

Segundo Kalonje

Loreak udan intza bezela





Segundo Kalonje

Liburu au Segundo Kalonje (1910-1986) zanaren bertso-bilduma da.

Orain ogeitabost bat urte, bertso-jartzailleak frutu berri mardulez bete zuten bertsojaritzaren zugaitz zaarra. Egunkari eta aldizkarietan arkitu zuten ortarako bide erosoan, garai batean bertso-paperetan bezelaxe. Sail ugariak urte aietan plazaratu ziranak; jartzaille egoki asko orduan agertu zana.

Oietakoa degu Kalonje: iturri garbi eta bizia arena; bertso ongi neurtua, puntu dotorea, etorri oparoa, euskera jatorra; bertsolari zaarren maitalea: Xempelar, Otaño, Txirrita... Bai bere denborakoena ere: Xalbador, Uztapide, Basarri, Lasarte...

Baiña ñor danen buru jartzekotan, Bilintx bereziko zuana. Gaztetandik, "loreak udan intza bezela" edan zituan Segundok aren bertsoak; bai beraren jarraitzaile txintxoak geroztik izan ere. Ortik liburu onen izenburua, Donostiako bi bertsolari maitagarri auket betiko uztartu nai ditua.

A. Z.



Donostiako Euskararen
Udal Patronatuaren
laguntzarekin argitaratua



ISBN 84-88080-02-X



9 788489 080645

Segundo Kalonge

Loreak udan intza bezela

Auspoa Liburutegia
255

SENDOA ARGITALDARIA
Ugaldetxo auzoa
Tel. (943) 49 35 51 -49 35 52 -49 35 53

Fax (943) 49 35 48
20 180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Segundo Kalonje

Loreak udan intza bezela

Auspoa Liburutegia
(1998)

? SENDOA ARGITALDAKIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA. S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-64-X

Legezko Gordailua: S.S. 467/98

Ataria



Segundo Kalonge, bere emazte eta biloba:
Nagore eta Ander

Segundo Kalonje Ezeiza bertsolaria (1910-1986)

Bizitzaren mugak

SEGUNDO Kalonje Ezeiza bertsolaria Donostiako Oriamendi baserrian jaio zan, 1910-ko azaroaren 25-ean. Pedro Maria Otaño il zan urtean munduratu alegia, berak bertso batean esaten duanez: “aren azkena izan omen zan ni jaio nintzan urtean”.

Gurasoak Jose Martin Kalonje eta Frantziska Ezeiza izan zituan

Sei senide ziran: Segundo; Pedro, iru urterekin illa; Andres; Juana, Donostiako San Bartolome komentuan moja; Jose Leon, Julia eta Anizeto. Gaur egun danak illak dira, Julia izan ezik, bere jaiotetxean bizi dana.

Etixerako gelditu zana Anizeto izan zan, Konsuelo Otxotekorekin ezkondata. Ondorengoak badituzte eta oietxek dira Oriamendiko seigarren belaunaldia Kalonje abizenarekin.

Segundo 1944-ko azaroaren 4-an ezkondu zan. Andregaiia, Eulalia Urkola Agirrezabala, Donostiako Irola baserrikoa. Baserri ori gaurko ospitalen ondoan dago. Senar-emazte berriak bertan jarri ziran bizi izaten.

Lau seme izan zituzten: Andres, Bizente, Lurdes eta Josune. Zaarrena, Andres, ogei ta emeretzi urterekin il zan. Naigabe aundia izan zan ori Segundorentzat, berak bertso-sail batean agertzen duanez.

Segundo 1986-ko otsaillaren 4-an il zan, irurogei ta amabost urterekin. Odolak bear bezela korritzen ez eta etzebillen ondo. Baiña bat-bateko eriotza izan zuan, biotzak utseginda.

Bertsolari

Segundo ez da izan Oriamendi baserrian jaiotako bertsolari bakarra.

Aita, Joxe Martin, bertsolaria zan. Arek aotik aora kantatutako bertsoen batzuk ondoren eskeiñiko dizkiogu irakurleri.

Bertsolaria zan Joxe Martiñen anai bat ere, Lino, Oriamendin jaio eta Antiguan bizi zana.

Segundoren bi anai ere, Andres eta Leon, bertsolariak ziran.

Segundok aotik aora kantatutakoetatik bertso bakarra gelditu zaigu. Sebastian Salaberriak bere [Sagardotegiak](#) liburuan (Auspoa, 247) kontatzen digunez, batean bera eta bere lagun Segundo Oiartzungo mendi-baserri batera joan ziran sagardo edatera; eta ara zer gertatu zitzairen jeixterakoan:

“Eta gu bide trakets artan beera, al genduan bezela, Antxe konturatu giñan linternak etxean utzi genituala aztuta, eta illargia ere bere garaian ezkutatua izango zan noski.

Izarrak maiz ikusten genituan, eta ez zeru aldean, gertuago baizik, zugaitz-adarrak begiondoan jotzen giñunean. Logaleak zegoana esnatu erazten zuten aiek disimulo ederrean.

Alako batean or dijoa nere laguna amilka goitik beera, sasi mordo aundi batean ezkutatzeraiño. Ala zion:

-Amildu egin nauk. Etzekiat nola aterako naizen. Nik goitik esaten nion: -Miñik artu al dek?

Berak:

-Orain ez diat sentitzen. Biar izango dituk kontuak. Aurpegiko eta eskuetako arantzak ateratzen bazeukat egun erdi bateko lana.

Eta, ez bat eta ez bi, or asten da sasi tartean bertsoan. Onelatsu kantatu zidan:

Goitikan bera amildu niok
sagardoaren indarrak,
ongi etorri egin zidatek
emen otiak ta larrak,
aurpegi dana zauriturikan,
baita ere atzaparrak:
arantza zorrotz asko zeuzkat nik
biar atera bearrak.

Garai artan neroni ere, trebeago nintzalako-edo, bat-batean bertsoak kantatzen zerbait jarduten nintzan, eta nik ere nolabait eman nion nere erantzuna:

Zurruta maite duanarekin
edariak agintzen du,
batere uste gabeen jo ta
ankaz gora botatzen du.
Auxe da emen gertatu dana:
guk nai baiño len illundu:
etziñan beko zulora joango
linterna izan bazendu.

Ederki kostata baiña noizbait atera zan, ba, sasi tartetik gora nere lagun Xegundo, eta nolabait jetxi giñan bide trakets artan beera".

Segundok papereratutako leenengo bertsoak 1936-ko gerra-denborakoak ditugu. Kintak deitu eta berak ere joan bear izan zuan. Bi urte t'erdiarredo or ibili zan Espaiñian barrena. Baiña zebillen tokitik etxerako eskutitzetan bertsoak sartzen zituan. Karta oiek nundik nora ibili zan erakusten digute: Montellano, Ampuero, Casasuertes, Asturias, Teruel, Iruñe, Kataluña...

Gerra ondoan lagunartearredo kantatuko zuan, baiña aren orduko bertsorik ez degu ezagutzen.

Baiña 1968-XI-17-an, *Zeruko Argia* astekarian, aren bertso-sail bikain bat agertu zan, Bilintx gai artuta eta Basarriri bialduta. Onek ongi etorri maitekorra egin zion bertso-jartzailleen taldera:

“Aiete gañean edo inguruan bizi dan baserritar jator bat datorkigu gaur. Segundo Kalonje jauna dezute. Bertsolaria kastatik ere”.

Orduan leenengo emaitza argitara atera, eta azkena 1985-XI-21-ean. Bitarte ortan, dozenaka bertso-sail, gai askori jarriak, plazaratu zituan. Urte aietan bertso-loratze ugaria izan zan gure egunkari eta aldizkarietan. Edertasun ori Basarriri zor zaio geienbat. Aren itzalera bildutako jartzailleak ziran danak edo geienak beintzat.

Oietako bat izan zan Segundo Kalonje; eta oparoenetakoa gaiñera. Basarriren lagun aundia zanez, berari bialduko zizkion bertsoak; bestela, eskutik eskura eman, Donostian alkarrekin biltzen ziranean.

Sariak ere bein baiño geiagotan irabazi zituan, garai artan egiten ziran bertso-paper-leiaketa gogoangarri aietan.

Berak an eta emen argitaratutako bertso-saillak osatzen dute liburu au. Baiña aurretik arek gerratean etxera bialdutakoak dira; eta atzetik, aren esku-idazkietan orain azalduak.

Esku-idazkiak

Segundo Kalonjeren alabak, izan ere, beren aita zanaren paperak eta esku-idazkiak erliki bat bezela gordetzen dituzte. Paperik geienak, aren bertso-saillak argitaratu ziran egunkari edo aldizkari-muturrak dira. Esku-idazkiak, berriz, lau bat kuademo, danak bertsoz beteta. Itxura danez, bururatu ala antxe papererutzen zituan.

Bertso oietan badira bein ere argitaratu gabeko saillak. Oiekin atal berezi bat osatu degu liburu ontan, Esku-idazkiak izenarekin.

Baiña argitaratutako saillak ere badira esku-idazki oietan. Eta batzuetan naiko ezberdin, egunkarietan eta aldizkarietan azaldu ziranetik. Itzak ez-ezik, lerro osoak ere berrituta. Aldaketa oiek emen jartzerik etzegoan, leku-faltaz.

Ala ere, ez degu dudarik izan testu oietan zein zan liburu ontarako artu bear genduana: egunkari edo aldizkarietan azaldua noski. Uraxe baita Segundok azkenerako ontzat eman, garbiro idatzi eta bialdua. Beste danak borradore baizik ez dira.

Baiña Segundoren alderdi jakingarri bat erakusten digute: bertsoa arretaz lantzen zuala arek, bein eta berriro idatziz, bere gustora utzi artean. Ori bera egiten zuan bere maisutzat zeukan Bilintx zanak ere.

Zenbait alditan, Kalonjeren sail batek bertso geiago ditu esku-idazkietan, egunkarian baiño. Lan oiek, izan ere, Basarrik egunkarian zuan saillean ikusten zuten argia. Baiña arako sei bertso nai izaten ziran. Oietxekin betetzen zan leku ori; eta, geiago bialdu ezkerro, Basarrik bat edo beste kendu egiten zituan; edo, bestela, orren berri izanik, egilleak berak egiten zuan iñausketa ori.

“Loreak udan intza bezela”

Segundo Kalonjek leengo bertsolarietan geien maite zuana Bilintx zan, batere dudarik gabe. Berak bein baiño geiagotan aitortzen du ori bere bertsoetan. Beraren leenengo bertso-sailla ere ari buruz moldatua da. Bein batez onelatsu entzun nion:

-Ni, gazte-denboran, zoratu egiten nintzan Bilintxen bertsoekin. Buruz ikasi ere egin nituan,

danak ez bada, geienak beintzat. Ala, Oriamendiko soroetan lanean ari nintzala, bakarrik banengoan, Bilintxen bertsoak kantari jarduten nintzan, eta begiak malkoz beteta nituala antxe ibiltzen nintzan idien aurretik edo atzetik...

Ori ala izanik, liburu onentzat izenburu billa asi giñanean, loreak udan intza bezela bururatu zitzaigun bat-batean. Alde batetik, ikusi degunez, Segundok egarri orrekintxe edaten zituan Bilintxen bertsoak; bestetik, berriz, ori egiñez, Donostiako bi bertsolari jator auek betiko alkarrekin uztartuta geldituko ziran.

Orra or bi arrazoi guretzat indar aundia izan dutenak. Irakurleak badaki, beraz, liburu onen izenburuaren nundik norakoa.

Kontalari

Bertsolariak aparte, Segundok bazuan beste doai arrigarri bat: kontalari. Leengo gertaerak kontaktzen oso gutxi diran bezelakoa zan ura.

Beraren alabak orain esan didatenez, azken urteetan ortan aritzen zan bere billobatxoekin: garai bateko ipui zaarrak kontaktzen. Aurak gustora noski, eta aitona areago, ziur aski.

Bein batez, Donostiako Bodegón Alejandroenean giñala uste det, gerrateko ibillerak kontaktzeari ekin zion. Inguruan giñanak arretaz eta atsegiñez entzun ere bai. Gertaera bat buruan gelditu zait. Onelatsu esan zigun:

-Nik Jaungoikoari eskerrak ematen dizkiot, gerra guzian tiro bat ere tira ez nualako. Mandazai ibili bainintzan. Baiña ez; gaizki esan det. Bein, kapitanak ametralladorekin tiro batzuk tiratzeko agindu zigun an giñan batzuei. Nere txanda iritxi zanean, izarretara begira jarri nuan traste ura, araiño iritxiko ez nintzala banekian eta.

Andik irtendakoan, nik aparte artu eta onela esan nion:

-Zure gerrako ibillerekin badago liburu polit bat egiterik. Nik lagunduko nizuke, Segundo.

Baiña berak erantzuna: -Ez, ez, ez.

Eta orrela utzi ninduan. Erri-prosa biziak jantzitako liburuak mordo badu Auspoa-k argitara emana, baiña ez nik nai ainbat, kalabazak bein baiño geiagotan jaso izan ditut eta, aldi artan bezela.

Aitorpenak

Segundoren bertsogintza zer zan epaitzen zuten idazlan batzuk jasota dauzkagu. Basarrik, adibidez, onela zion *El Diario Vasco* egunkarian, bere Nere Bordatxotik saillean, 1979-I-13-an:

“Kalonje adiskidea erderarekin kutsutu gabeko euskaldun uts-utsa da. Aurreko bertsolari zarren arrastotik dabil: aien eskolako da.

Euskaldunberri batek edo euskera oso mendean ez duan euskaldun batek. edo-ta erderarekin geiegi kutsutua dagon batek, ez du borobilduko bertsolari zarren moduko esaldi jatorrik.

Adibide batzuk: “Au da txoriak gari tartean goseak egon bearra”. (Txirrita). “Aundi gaiztoak diran tokian pagatzen du txiki onak”. (Txirrita).

Atzoko Kalonjeren bertsoetatik ere ar ditezke polit batzuk. Joan zan urteari ta asi berri degunari buruz au dio: “Soiñu berdiña joko dutela lengo zarrak eta biak”. Beste bertso batean: “Nere belarriz ez det entzuten eunetatik bi itz onik” Beste bat geiago oso ondo tajutua: “Maitasunaren leku apala estaltzen degu gorrotoz”.

Esaldi jator auetan dago izkuntza baten aberastasuna. Gure bertsolariak maixuak izan dira olakoak sortzen eta plazaratzen”.

Segundok bertso batzuk agertu zituan, 1980-I-Ernaniko Jose Maria Arrietari jarriak. Onak sei bertsorekin erantzun zion, 1980-I-13-an. Ona oietako iru:

Bertsoa lurra bada, zeu zera goldea,
zeruko aingeruen mintzoen moldea:
biotza xamurtzen dun abesti-taldea.
nolabait agertu nai, itzik ez ordea.
Kalonje, nun daukazu ezta gordea?

Gaiñezka egin dezu Zeru Goiko argiz,
ezin mintza bestela olako itz garbiz,
irakurriak ditut orrenbeste aldiz,
auxe aitortzen dizut biotzetik egiz:
begiak itxi arte egin naute diz-diz.

Oiek irakurtzen nik zenbatsu segundo,
minutu edo ordu, ez dakit, ez, ondo;
zure bertsoak lore ta zer arros-ondo!
Orrelako usairik gaur arte egundo
biotzera etzaida iritxi, Segundo.

Sebastian Salaberriak onela zion, onek ere *El Diario Vasco* ortan, 1986-II-23-an, *Lagun zaar biotzekoari* izeneko bertso-sail batean:

Udaberrian txorien gisa
gogoz abesten zenduan,
alaitasuna nabaitzen gendun,
Xegundo, zure onduan.
Guk ez daukagu geiago alkar
ikusterikan munduan,
baiña arnasik dedan artean
izango zaitut goguan.

Amaika bertso eder botea
zera zu lagunartean,
bai makiña bat idatzi ere
zure gelara joatean.
Argitaratu bearko dira
danak liburu batean,
Aita Zabalak bera bizi dan
etxera eramatean.

Joxe Aierbek, berriz, onela idatzi zuan egunkari berean, 1986-II-28-an, Segundo itzali berria zala alegia:

*Aizu, Xegundo: ain gogozko zenuen bertso-mundua dala medio,
badira urte batzuk ezagutu zintudala: eta, ain iztun atsegiña

eta apala izanik, bat-batean egin giñan lagun. Izketan asita, denbora asko baiño leen jotzen zenuen bertso-gaietara. Antxe aurkitzen zenuen gozamina izugarria izan, nonbait. Baserritarra ziñan izatez eta bizi-bidez, eta artan pasa zenituen, poz eta naigabe artean, Jaunak dei egin zizun arteraiñoko egunak. Badakit, baitere, ordea, besteak beste, lagunartean bertsoan aritzea zeinēn gogozkoa zitzaizun. Baiña, neri dagokidanez, bertso-jartzaille bezela ezagutzen zindudan, batikpat.

Nik eztaikit zuk noiz eta nola osatzen zenituen ainbat bertso bikain; baiña, bear bada, zelaitik edo ikullutik, lanak egin ondoren, sukalde txokoan izarditan sartu eta legortzeko astirik gabe asiko ziñan, egunean zear buruan jirabiraka zenerabilkien gaiari buruz itzak neurtzen. Agian, bazkalondoko lo-kuluskari uko egiñez edo gauari elduaz, bein baiño geiagotan. Asmatu al dut, Xegundo?

Nolanai ere, or dago zuk apalki eta ixiltasunean egindako lana. Eta iñoiz zalantzik izan bazenuen, jakin ezazu guk arreta biziz eta atsegiñez irakurtzen genituela, zuk ain euskera goxo eta errexean burututako bertso guztiak”.

Manuel Lasarte bertsolariak, berriz, onela zion egunkari berean, 1996-VII-7-an, *Xegundo Kalonje zana* izeneko idazlan batean:

“Bertsoak paperean idazten oso dotorea zan, lengo lege zarrera eta ugaria gaiñera. Izlari garbia ere bai. Aren euskerak etzuen akatsik eta ulertu eziñezko nasketa bigurrik”.

Erri-gizon oiek orrela juzkatu zuten Kalonjeren bertso gintza. Baiña erri guztiak berdin irizten ziola dudarik ez egin. Kalonjeren bertsoak, izan ere, atsegiñez irakurtzen ziran. Gizon eskolatuak liburu mardulak idatzi oi dituzte beren literatur-kritikak azalduz. Erriak ez du gai ortako libururik iñoiz atera. Baiña badaki aoz bere epaiak zuzen ematen.

Kalonjeren aitamenak sarritan ziran garai batean. Gorantzak emanez aitatu ere. Orain, berriz, aren bertsoak iñun arkitu ezin baitira, bera ere aaztuxea dago. Orrelakorik merezi ez dualakoan, ona liburu au zure eskuetan, irakurle, aren bertsoak eta izenak gure artean luzaroan iraun dezaten.

Oriamendiko Joxe Martiñen bertso batzuk

JOXE Martin ere bertsolaria zan. Ez plazaz plaza ibiltzen diran oietakoa; baiña bai lagunartean. Olako batzuk, jendeak buruz ikasiak, eskeiñiko dizkiogu orain irakurleari. Leendabiziko au Segundori jaso nion. Onela esan zidan:

“Gure aita zana, atxurrarekin ari zala ere, bolaretan bertso zaar kantari aritzen zan bere gisa. Garbi ere bai batzuetan, besteak aditzeko moduan. Arto zuritzera joan ezkerro, berriz, zer esanik ez. Orduan oraingo giro au izan balitz, ikasiko zuan, bai, zerbait arek. Etorria, izan ere, aundia zuan. Baiña sekula ibili ez plazetara joanda.

Sega pikatzen ari zan batean, au kantatu zuan:

Ni jaio nintzan erri zar artan,
bautismoko elizian,
kanparrtorretik bera zintzilik
iru kanpana bazian;
ta soka berriz egun da zazpi
metro pasia luzian,
lendabiziko otsa jakiña
lau t'erdiyetan goizian,
orduko ezkill-jotzaille ura
ez dakit orain bizi'an.

* * *

Joxe Martiñek etxe aurreko intxaurrari kantatutako beste bertso au, beraren seme Anizetori jaso genion. Oriamendi baserrian.

Afizioa izandu degu
sagar edo arbolian,
zenbat landare dago jarria
Oriamendiko lurrian.
Intxaur bat ere kurioa
etxeak dauka aurrian,
aitona zarrak paratakoa
ilbeltzaren amarrian,

* * *

Sebastian Salaberriak, leen aitaturako bere Sagardotegiak liburuan, Oriamendira sagardo edatera arrantzale asko joaten zala adierazi ondoren, onela jarraitzen du:

“Eta edandakoan:

- Au dek edaria, au! Lenago ere sagardo ederra atera izan dik kupel onek, eta orain ere etzeukak aitzaki aundirik.

Jarriko zituzten egur ikatzarekin egindako su-brasa ederrean txardiñak eta bixiguak erretzen, eta beroiek janez kupelari bixita maiz egingo zioten.

Arrantzale auek danak, euskaldunak ziranez, bertsozaleak ziran geienak, eta bazekiten bertako nagusi Joxe Martin bertsolaria zala, eta an asten zitzaizkion zirrikaka:

- Joxe Martin, kanta akiguzu bertso bat.

Eta pentsatzen luzaro egon gabe kantatzen zion. Ara egun batean jaulki zitzaiona:

Etxearen azpiko
gure sagastia
txertokitikan gora
bete da guztia;
beti onen inbiriz
dago Donostia,
aurten bada txardiñak
zerekin bustia”.

* * *

Urrengo bertso auek ez dakit noren aotik jaso nituan. Joxe Martiñek kantatuak dira, semeak 1936-ko gerran zebiltzala:

Erregututzen diot
Ama Birjiñari,
egunian bi aldiz
iru abemari:
iru seme daduzkat
Kastillan gudari,
arren guardatutzeko
bizitza aieri.

Eta beste otoitz bat
Jesusi urrena,
egunian bi aldiz
egiten detena:
arkitutzen bazaie
eriotzen pena,
zeruan sartutzeko
al duan lenena.

* * *

Segundok, gerran Espaiñian barrena zebilela, bertso egoki askoak bialtzen zituan bere eskutitzetan etxera. Aurreraxeago eskeiñiko dizkiogu irakurleari. Baiña batean aitak frentetan ziran bere semeentzat bertso bat kantatu, alabak eskribitu eta korreoz bere anaiei bialdu zieten. Bertso orren erdia galdua da; beste erdia onela jaso nuan:

aitak ekarriko'itu
menditik bi ardi,
Eguarri-jaietako
jatera etorri.

* * *

Beste batean, sagar biltzen ari zirala, bukaera onela zuan bertsoa kantatu zuan:

Sare ta kixkiakin
kargatu neurriya,
betetzen ari gera
upela gorriya.

* * *

Militarren zalditegi eta mandotegia Oriamendi baserritik urbil samar dago; eta inguruko larretara etortzen ziran ango abereak gerra ondoan. Joxe Martiñen bertso au ordukoa da:

Gosiak amorratzen
orrenbeste mando,
gobemu batentzako
ez deizkiot ondo;
erak ez baluteke
obetogo jango,
neskak kortejatzer
ez lirake joango

* * *

Onako bertso au Joxe Martiñen bertsorik famatuena izango da.

Galarretako Beltziña esaten zioten morroi bat bazan, bitxo gogorra bera, eta ona Joxe Martiñek bein batez kantatu ziona:

Zu ikusita errukitzen naiz
Galarretako Beltziña,
noiznai tabeman mozkortu eta
kanpuan zabiltz etziña.
Zure zartziak seguru dakar
iñork ikusi eziña,
obe zenduke konfesatu ta
lenbailen ilko baziña.

Sebastian Salabetiak, bere Sugardotegiak
liburuan, txetasun ugariak ematen ditu
Galarretako Beltziña onetaz.

* * *

Ondoko au ere Sebastian Salaberriaren
Sagardotegiak liburutik artua degu:

"Nik neronek ere gogoan artu nion bat, eriotz une larri
artan kantatu zuana. Onelatsu da oker aundirik gabe:

Agur egin bearra
nago munduari,
otoitzean eskatu
diot Jainkoari,
komeni baldin bada
emateko neri
asko kostata eindako
zeru eder ori.

Andik laster il zan gizarajoa. Zeruan beza atsedean".

Oriamendiko Lino

Kalonjeren bertso batzuk

LEEN esan degunez, Joxe Martin etzan familiartan bertsolari bakarra. Doai ori berekin zuan aren anai Linok ere, Antiguan bizi zanak. Ona aren bertso bat, Segundok eman ziguna:

“Gure osaba ori gaztea izango zan orduan; eta sagardotegian, badakizu, txistea bezela somatzen dana bota egiten da, eta jai-illunabarra eta auskalo. Baiña Añorga aldeko bat ere antxe. Buru aundi samarra bera, eta *Eskiñosua* esaten zioten, eiz orrek buru aundia eta isatsa luzea izaten du eta. Neska laguntzen izandua edo andik etorria edo olako zerbait gure osabari iduritu, eta bertso au kantatu zion:

Lenago're askotan
ori ikusia,
oillandak arrapatzen
sasitik sasia;
piztietan gaiztona
ori da klasia:
burua aundia ta
buztana luzia.

Beste au, berriz, Oriamendiko Anizeto Kalonjeren aotik jasoa da. Onela esan zidan:

“Bein batez, gure osaba Linok iru bertsorekin gonbidatu niñun bere etxera. Baiña orain beste biak aaztu zaizkit, eta bat bakarrik daukat gogoan:

Agur, illoba, ixtimatzen det
bialdu nazun txistia,
ta pentsatzen det zuk agindua
gogo onez iten astia:
emen nago ni noiz izango dan
gure alkar ikustia,
Ama Birjiña Agoztukotan
jetxi zaitez Donostia.

* * *

Uztapidek, bere *Lengo egunak gogoan* liburuan, bera Donostiako Konportan bizi izan zaneke oroipenak ematerakoan, onela esaten du:

“Bertsolariak ere baziran orduan Antiguan: Oriamendiko Lino Kalonje ta Juan Jose Sarasola, Lexo esaten ziotena: bertsolari onak gañera.

Guk, ara joan giñanean, ez genduan uste gu baño bertsolari oberik iñon zegoanik; eta, ni aruntz joan da andik urrengo jaietan, an bat egin genduan Linorekin da Juan Joserekin, da toki ederrean! Lezio ederra eman ziguten!

Gu, gure konkurso artantxe-ta piska bat aurreratu giñalakoan; baña ezer ez giñala, orduantxe konturatu nintzan ni. Aiek eskarmentu aundia zeukaten, gizon aiek, gure aldean.

Lenbiziko aldian bertsolariak onak iduritu ere egiten dira; baña aiek bigarrenean ere onak ziran, edo gu txarrak.

Guk egunero egiten genduan bertsotan Linorekin; sagardotegia zeukan da propio joaten giñan araxe. Berealaxe ikasi giñuzen aren manejoak ere. Ara joan da andik bi illabeterako bera bezela jarri giñan.

Jai-goiz baten Juan Jose Sarasola ta Lino juntatu ziran. Beti alkar toriatu bear izaten zuten aiek, eta Linok zerbait gauza zailla jarri zion Juan Jose Lexori.

Lexok kiskiarekin arbi-azia jasotzen baño errazago zala esan zion, Linok esan zion gauza zail ori: eta Linok atzera:

Berealaxe esango dizut
azi txiki oien lana:
galtzairu-autsa bota zaiozu
ta gero eman imana:
gauza erreztu litekiala
ez al zaude antz emana?
Gauz orren berri ez badakizu
sinistu nere esana.

Orrelaxe jarduten ziran: bati alukerian alkarri; alkar toriatzen alegia".

Karlisten gerrateko oroipenak

SEGUNDO Kalonjeren jaiotetxeak, Oriamendi baserria alegiak, ondo ezagutu zituan karlisten bi gerrateetako zalapartak. Alako lekuan dago izan ere: liberalak Donostian eta karlistak erriaren jira guzua artuta. Baserri orren inguruan gertatu zan Oriamendiko burruka esaten dana, karlistak leenengo gerratean lortu zuten garaipenik aundievetako bat. Ordutik dator karlisten himno edo kanta nagusia, Oriamendiko martxa izenarekin ezagutzen dana. Zer arriturik ez dauka, beraz, baserri ortako familian guda oietako oroipen asko gorde izana. Kontatu ere oietxek egingo ziran neguko arratsetan sukalde artan. Ala, ona emen Segundok bein batez esan zizkigunak.

Gure aiton ori artean sasoi onekoa. Baiña gazterik ezkondua eta iru aur zituena. Orrelakoa gerratik libre izaten zan. Baiña soldadu zebiltzanak baiño askoz ere bizimodu txarragoa pasa zuela esaten zuen arek, eta ala pasako zuen gaiñera.

Karlistak noiznai kax-kax atean, gauez etorrita edo eguna argitu baiño leen beintzat. Ori baiño tristeagorik ez da. Deitu eta kargu artu:

-Gure berri zuek esaten diezute beltzei!

Eta egunez beltzak:

-Gure ibillerak zuek salatzen dizkiezute karlistei.

Bi aldeetako jendea dabillen lekua baiño txarragorik ba al da, bada?

Ikaragarrizko sagar-urtea izan omen zan orduan, eta egin beiñepein sagardoa nolabait, garai artan tolarea nurrnai edo ia baserriero zanez.

Eta karlista oiek gauean, beren pusillekin, baserriz baserri, erdi berdoztu eta batere inportik etziela.

Kax-kax ateetan, eta iriki bearko. Ura bizimodua! Gure aiton ori esaten zuenez, batean alaxe etorri omen dira bi soldadu, leen berotuak, eta:

-Sagardorik bai al dek?

Gureak:

-Bai.

Nola edo ala beiñepein txarroa bete eta eman; eta aiek bat edan eta bestea zurrut.

Gero, or asi omen dira gure Oriamendi jaiotetxe ortatik Oriamendiko fuertera tiroka, an beltzak ziran eta. Baiña aiek gauean tiroen sua goitik beera ederki ikusten eta kaiñonazoka ekin. Egiñalak egin zituzten. Baiña ez bajatzen kañoia bear bezela, eta gure etxearen gaiñetik pasa eta Miramungo sagastitik onuntz jotzen omen zuten. Gure aitonak ikusi omen zuen, bai, nun sartu ziran aiek.

Bitartean, gure aiton orrek:

-Mutillak, zaute geldirik! Duroa badiat eta emango dizuet geratzeagatik!

-Benga, bada, benga duroa!

Eta duroa, zillarrezkoa noski, leiotik bota die; baiña lurrean erori eta denbora-mordoa pasa omen zuten aiek poxpoloak piztuta lurrera begira eta bueltaka, eta ez billatu. Urrengo egunean bista-bistan an omen zegoan.

Egunez tropa etortzen omen zan Donostitik, beltzetakoa; ta Benta eta Oriamendi artean kamio-buelta aundi ura nola da? Ba, an eta Laxtueneko ortan gelditzen omen ziran eguna pasatzen; eta illunabar aldera erretira.

Baiña gora zetozenean, or erreleboan, egun batean etxe batekoak eta bestean bestekoak, baxtar-bideetatik joan bear karlistarik ba ote zan begira. Auek, ordea, bestela frenterik zeratzeko indarrik ez; eta ez egunero, baiña tarteka beren gordelekuetatik *tarra* eta *tarra* tiroka ekin, eta bota egiten soldaduak. Ura ere bizimodu ederra!

Gure aitak esaten zuanez, Maximo izena zuan mutilzaar bat ba omen zan Laxtuenen, oso bitxo gogorra, eta egun artan ari tokatu: tropa zetorrela eta aurretik ikusteko ea karlistarik bazan. Eta joan egin bear. Maximo ori bialdu dute eta etzala iñor. Baiña aurreragi etzan joango, bestela bera ilko zuten eta.

Eta zer dek eta egun artan tokatu. *Danba!*, eta soldaduren bat-edo or bota dute karlistak. Gure jaiotetxetik beera, Pakea ba al daki etxe aundi ura: Txendarmene? Aren aurrean omen zan.

Orduan afusillatu egin bear zala Maximo ori. Errezatzeko “nere Jesukristo Jauna”. Jarri omen dute eta Maximo orrek deitu omen zuan:

-Ez al da emen euskaldunik?

Izan orregatik bat, eta:

-Zer nai dezu?

-Ni joan eta ortxe ibili naiz, baiña ez det inor ikusi. Eta nik al det kulpa? Ea zer esaten duan nagusiak!

Au eta ura, ola eta ola, eta azkenean errukitu pixkaren bat; eta bizirik utzi omen zuten beintzat, desafioak eginda:

-Urrengoan obeto erreparatu!

Zakur galduak nola ibiltzen dira? Ba alaxe orduan karlistak esaten zuten. Gu ere keja izaten gera, baiña gure aitak esaten zuan:

-Guk ere pasa diagu miseria pranko. Baiña gure aurrekoak geiago pasa ziten.

Etzan ederra izango gerra-ondo ura ere. Etxean orduan iru arreba zaaragoak eta gure aita laugarrena, gerra asi zaneurreo jaioa; eta esan dedana: urte aietan ikaragarriak ikusiak. Beintzat, bat mutil koxkorretan il omen zan, baiña amar izanduak izan bear zuten. Ala ere azi; bizi nolabait ere aiek ere.

Gero, beste gauza bat, gure aita zanak makiña bat bider esan zuana. Etxekoandreak bi neskazar omen zituzten, eta aiek Prantzira joan omen ziran, ta andikan abisatzen omen zuten:

-Kontu egin gure etxeari! Bestela, ez esperantzik eduki gerorako!

Alegia, orduan etxe asko erre omen ziran, eta gureak ere eskapada ederrak egin omen zituen, baiña ezer ere gabe ondo atera. Eta orregatik esaten omen zioten kontu egiteko etxeari.

Orduan ala bizituta, zer dek eta, gerra bukatu zanean, gure etxea ez bezelako baserriak, baserri bikaiñak, maizterrik ezin billaturik egon omen ziran. Ara gauzak nola aldatzen diran.

Gure aiton ori eztaietan tobera jotzen batera eta bestera asko ibiltzen zan. Kanta zaar asko zekizkian. Karlistetako bertso batzuk ere bai:

Kolumna igo dute
Arkosko torrera...

Banekizkian nik oiek. Leengoan pastel batzuk ekarri zituzten etxera, eta garai bateko kanta batez gogoratu nintzan:

Pasteleroren andriari
deitzen ziyoten Ana Mari;
atoz oiera, poliki-poliki...

Ni ori kantatzen asten banaiz, andrea berealaxe det errita ematen:

-Zaude ixilik, olako nazkagarrikeririk esan gabe!

Gure aitona reumarekin gizarajo ura; eta gu, mutil koxkorrak. Ari bolara etortzean, erruz kantatzen zuan. "Aita gureak erakutsi zidan neri ori" esaten zigun. Orrelakoak zenbat ikasi nizkion nik? Baiña danak aaztu zaizkit, edo ia ez dakit nola asi ere.

Aitajauna eta abar

BESTE arratsalde batean onela kontatu zigun Segundok: Nere aitajauna, Segundo ura ere, gure aitaren anaia zan. Ementxeneko Errotatxokoa.

Gizarajo ari ere parranda gustatzen, etxera berandu etorri eta beste guziak baiño leenago lanean asi bear; eta olaxe izurratu zuan bere burua, berrogei ta bat urterekin. Neri gogoratzen zait: ni, ura il zanean, mutik koxkorra nintzan: zortzi urte bete eta bederatzigarrenean.

Illunabarretan ni ere bein baiño geiagotan joan naiz jaiotetxera, eta joan ezkeru gustora egon. Eta nere aitajauna, ura ere bai. Ordurako gure amona ere ondoezik edo eroria, eta nere aitajaun orrek:

-Berori baiño leendik ilko naiz, bai, ni.

Amonak:

-Egon adi ixilik, olakorik esan gabe!

Eta arek:

-Bai, bai, bai.

Ala il ere. Ez alde askoz, baiña aguztuan il gure osaba ori; eta otsaillean, Santa Ageda egunean, orain izango dira berrogei ta amasei urte amona il zala.

Gure izeba or beeko zokoan bizi zan, eta arengana bialdu ginduzten lau urtez zaarragoko beste mutil

bat eta ni. Gure aitak, etxetik abiatzerakoan, onela esan zigun:

-Artu zazute makil bana, Irola baserriak zakur gaiztoen fama dik eta.

Nola izaten diran gauzak! Ni orain emen. Irolan. bizi naiz, eta lenbiziko ementxe orduan pasako nintzan. Nik ia bederatzi urte eta besteak amairu. Guk ez genduan bidean besterik: zakur-kontua. Ni baiño zaarragoa eta aundiagoa, ta mutilla ere fuertea amairu urterako, eta ura nere anparoa.

Izebak esan zidan:

-Illa izango dek?

-Ez dakit. Oso gaizki zegoala eta abixuarekin bialdu naute.

Gero, aitona, berriz, uztailean il zan.

Gerra-denborako bertsoak

A

tal ontan, gerra-denboran Segundok zebillen lekutik etxera bialtzen zituan eskutitzak eskeintzen ditugu, arek prosaz eta bertsoz idatziak. Geiago ere egingo zituan: baiña auek dira gure eskuetaraiño iritxi diranak. Sobre bat ere gorde da. Zuzenbidea onela du: *Sra. Francisca Eceiza, Barrio Ayete, Caserio Oriamerldi, San Sebastián*. Eta atzean, bialtzaillea: *Segundo Calonge, Rgto. Américas N° 23 Ametralladoras de 5º, Batallón. 61 División, Estafeta 18*.

Eskutirz auek, beren prosa eta bertsoekin, irakurlearen gustokoak izango dirala uste degu.

Montellano, 10 de Agosto de 1937

Atzo artu nuben karta, 5'an egiña. Jose Joakin il dala gizarajua. Izeba Marzianak egindako kartan letu nuben lenbizi. Zeruban gerta dedilla. Orain bertso bat jartzen diyot. Doñuba: Limosnatxo bat.

Operatuta ori egon da
beatzi illabetian,
biar etzuben lana eginda
gauza nola litekian.
Munduba onek txit bukatu du
ogei ta amaika urtian,
eta guk ere badadukagu
arriskuba bitartian,
alkar ikusiko degu berriz
Josafatera joatian.

Beste iru bertso jarri ditut:

Erru gaiztoko gerra zibill au
egun batian asiya,
eta geroztik ikusten degu
izaera itxusiya.
Ondo dakigu batzubegatik
sutan dagola sasiya.
Lagun urkuai gaitz egitia
Jesusek galeraziya,
bañan alare bagiña bati
kendutzen zaio biziya.

Mundu ontatik gertatzen bazait
laister bestera joatia,
ez arritzeko firmatutzen det
oraiñ, fameli maitia.
Beste bi ere aspalditxuan
ortikan falta baitia,
ez degu berriz berela joko
jaiotetxeko atia,
toki danetan bete dedilla
Jaunaren borondatia.

Ama Birjiña, Jesus ta Jose.
Santa Ana eta San Joakiñ,
nere barrena lasaitutzen da
oroitutzian oiekiñ.
Asko dabilta medallak eta
gurutze santubarekiñ,
maldeziyoka isildu gabe,
nork aguantatu oiekiñ?
ekatubaren erru gaiztuak
nola ez lezake irakiñ?

Izeba Marzianak bialdutako paketia ta karta artu
ditut. Berriz kontestatu niyon. Lengua zuek baño
nekezago artu zuben, bai.

Orañ esaten dizutet kartan ari puska bat barrenen zabalduban jarri ta bialtzeko.

Balantxa aldian arriya egiñ zubela abisatu ziran izebak. Emen ere trumoi denbora ibilli bai. Larunbat gabian turmoia ta tximista ta ebiya ta aizia, zaparra gogorra genduben.

Ta beste kontu bat: onuzkero bei aundiya(k) umia egin du.

Ta orañ, berriz, Nortu au berela artu biar degula, ta atzo ezker txoriyak paperak bota omen dituzte errenditzeko. Ez det entenditzen au: berak errenditzeko asmu duten edo ez dakit zer dan.

Jose Mariren seña ez dizkiñat konprenditzen. Batalloiaaren numeru biar diñat, ta zer konpañi konpatzia zer den. (sic)

Agur danoiri.

Ampuero, 30 de Agosto de 1937

Lenago egondako tokiyan jarritako bertsuak:

Egunikan onenak pasa genituben,
eskerrik eman gabe or giñan arte len:
orañ oroitzen gera zer modutan gauden,
probatu degunian etorrita emen.

Au da bizitza eta au da izaera,
ontarako jaiuak asko izan gera:
iñoiz bakardadian deranian era,
begira egoten naiz Donosti aldera.

Maiz sentitutzen degu granada ta bala,
indar izugarriya azkar daramala;
raindikan bizi naiz, pentsatzen derala
gaizkiyago daudenak izango dirala.

Lenguen eragiña au da gerratia,
anaiak alkar iltzen gauz bat arlotia:
tristia da besteren mende egotia,
inuzentia prankok au errematia!

Ez balego bezela iñon zer egiñik,
emen gaude denbora igaro eziñik;
gorputzian ez daukat oraindikan miñik,
ez gaude frentetikan berriz aldegiñik.

Il onen 19'an artu nuben paketia; ariya ta sagarrak,
lapitza, artu nituben; ta karta 21'an, berriz.
Izebarenik ez det artu oraindik.

Lengo lekutik mugitu giñan 23'ean, 25 kilo(me)
truan gutxiyenez etorri gera mendiz. Orain emen
gaude iru egunian Ampuero deitzen zaion erri polit
batian. Santander artuba omen dago eta orain ez
dakigu nora eramango gaituzten.

Abantzian gatozela, napar euskaldun bat badegu
leiza-zuluan bera erorita ta illa. Ez dakit aditu
dezuten. Eta tirorik egiñ gabe abantzi au izandu
degu.

Emen legortia dago. Artuak eta babarrunak
zimelduta daude, ta belarrak ere igartuta toki
askotan.

Arbola eukalitrua da asko emen nunai; arkaitz
tartian ere ederrak, bai luziak eta zuzenak.

Zizarrak unuzkero egiñ dituzute. Guri ere
gogoratzen zaigu, baño alperrik.

Bertso bat:

Lenago ez geundenak ezer ikusiyak,
orain pranko bagaude zerbait ikusiyak;
baldiñ irauten badu luzaro biziya,
igaroko ditugu probintzi guziya;
osasun ona daukat Jaunari graziya.

Casasuertes 12 de Setiembre de 1937

Bertsu bat:

Eskribitzen det emen gaudela
oraindik retaguardiyan,
Casasuertes deitzen zaion
gustagarritzko erriyan.
Gauden lekutik urruti gabe,
goiko aldeko mendiyen,
elur lapatxa ikusten degu
agorraren amabiyan.

Beste karta egiñ nuben ill onen 9'an. Ez dakit
allegatuko zan, Bestia Ampuerotik, lengo illaren
30'an. Ez det kontestaziyorik oraindik.
Montellanotik irten ezkerro, ez det kartik artu, toki
asko muatu ditugulako noski. Urrena bialtzen
dezutena zertifikatuta bialdu, ia allegatzen dan.

Gañerakuan ondo gaude. Lenago egoaldi ederrak
zeuden. Orain sarrera otza egiñ digu. Bai; au paraje
otza izango da neguban.

Laister frentera jua biarko degu noski. Ez dakigu
noiz. Abantzian asi biar dala esaten dute.

Presionero asko gelditu zala esaten dute
Santanderren. Bai al da iñoren aztarrenik?
Zurruperen semia ta Joanindeikua ikusi zitubela
esan ziran Paoleiko mutillak.

Emen ezta ezer jakiten. Periodikoik ez dute
ekartzen. Kartak e(r)diri(k) ez zaizkigu allegatzen.
Orrela gaude.

Osasun ona daukat biñipiñ; da, au baldiñ badet, ez
dit inportik.

Ill edo bizi egingo degu,
ortan ez dago dudarik,

bañan itxurik ez det billatzen
geldituzteko gudarik.
Esaten degu: "Ai, noiz edo noiz
onek bukaera badik".
Naiago nuke egingo balitz
arreglotxo bat bererik,
edo bestela biarko degu
iñoiz ibilli baraurik.

Señak gañian dauden bezela.

Frente de Asturias 12 de Octubre de 1937

Nere izeba: Eskribitzen diyot ondo nabillela.
Osasuna daukat, Jaunari eskerrak.

Lengo karta egiñ niyon lengo illaren 15'an, eta
beorrek 12'an neri; 20'an artu nuben. Ez dakit
neria artu zuben beorrek. Oraiñdaño egondu naiz
lenguaren kontestazyuaren zai; baño ez det artu.
Akaso beorrek ez zuben eskribituko.

San Migel egunian abantzian asi giñan gu.
Abantzatzen degu bastante. Asturiasko partian
sartu gera. Laister au artuko dala esaten dute.
Mendi galanta pasatzen ditugu, ederki kostata.
Lenguan baja piska bat egiñ ziguten, abiaziorik
gabe asita. Baño urrengo egunian utzi biarra izan
zuten, abiaziyua etorri zanian.

Oraiñ bertsuak:

Esaten ziran paper batian
bialitzeko bertsuak,
Ama Birjiñak laguntzen badit
jarriko ditut batzuak.
Gaiztuagatik sufritutzen du
askotan kristau mantsuak,
ta oraiñ ere gertatzen dira
modu ortako kasuak.

Bertso batzubek ipiñitzeko
badaukat borondatia,
piska-piska bat anparatubaz
nere aitona maitia.
Bere denboran izan da ori
sanua eta fuertia,
ta oraiñ ere gutxi bezela d
abill sufizientia.

Gu oraiñ emen arkitzen gera
oriyen lengo moduban,
eriyotzaren bildurrez beti,
ez lantegi seguruban.
Larogei eta iru-lau urte
igaro ditu munduban,
pozikan asko entzungo nuke
oraiñ zer esaten duban.

Zer estadutan gertatzen geran
aitonai adierazi:
or giñan arte bezela emen
oraiñ ez gerala bizi.
Oso gustora ez egon arren
eziñ aldegiñ igesi,
omeni dana kunpri dedilla
eskatzen diyot Jesusi.

Diferentzirik ez dabilkigu,
berdintsu lanak jai ta aste,
alaitasunik iñondik gabe,
beti biyotzetik triste.
Garai batian orrelakorik
ez genduben asko uste,
mutill zartu ta gero soldadu
pranko ekartzen gaituzte.

Eta guria asko ez dala
famelikuak ere bai,
emaztiak or, gizonak emen
arkitzen dirade nunai,
kartak egiñaz elkarri ziñez,
ta beste zenbat andregai,
illuntasunak danak kenduta
noiz jarriko dira alai?

Zazpi bertso nik bialtzen dizkat
oraiño berri-berriyak,
Santander azkar artuba zuten
ta inguruko erriyak.
Bañan oraindik seguru daude
atake izugarriyak,
egua aldetik esaten dute
gogor daudela jarriyak.

Señak gañian dauden bezela.

Segundo Calonge

1 de Febrero de 1938

Eskribitzen dizutet oraindik sano naizela, Jaunari eskerrak; eta artu ditut 18'an eta 24'an egiñdako kartak, eta Andresena ere bai, eta Jose Leonek ere eskribitu zubela esan ziran.

Gaur ikusi det Biramungo Manuel ere. Asko galdu omen zaie aieri ere.

Jose Leonek atera zuben zertifikauba; neronena falta det oraindik. Ontara ezkeru bialduko ditut. egiten badirate. Ez badute baliyo ere, ez dira asko kosta.

Teruelko onduan gaude illabete ontan.

Inuzente egunian jarritako bertsua. Beta gaur artu det neronen gustora eskribitzeko.

Ordu gutxiko argiya dago,
askoz geiago illuna,
urte-sasoia da alakua
oraiñ argitzen zaiguna.
Gorputzarentzat ez dabilkigu
txit ibillera leguna,
kontsideratzen jartzen geranok
gerontzat artzen deguna,
Abendubaren ogei ta zortziyan
Inuzentien eguna.

Oraiñ jarriya(k) obek, berriz:

Esan biar det nola daukagun
batalloiaren segira:
bi aldetatik jarriya dago
aspalditxuan erdira.
Il da arrapatu egiñdakuak
seitatik iru badira,
gure anaiak zanpatu arte
etziran izan kupira,
oraiñ txit triste egoten gera
Teruel'era begira.

Ernaniarrak emen bost lagun
len banituben urrian,
ta oraiñ iru or gelditubak
dira gorriyen aurrian.
Egun batian gertatu ziran
oso estadu txarrian,
atzubek bertan, bestiak iges,
erbait egiñ biarrian,
riyotzaren bildurrarekiñ
danak erdi negarrian,
estuasun oi ikusi zuten
Ilbeltzaren amarrian.

Gu, mandazaiak, atzerago gertatu giñan orduban. Gerra laister bukatuko dala esaten den. Guk baño esperantza obia daukan. Ala obe, Jesusi nai dakiyola.

Adios. urrena arte.

Pamplona 20 de Mayo de 1938

Eskribitzen dizutet sano nabillela, ta karta eranegun artu niñen. Zertifikatuta zertako bialtzen den, inportantzizkua bezela? Neretzat ere endrerua diñ emen, ta urrengua bestela bial zan. Akaso artuko diñat.

Emen noiz eramango gaituzten ez zekiñagu, ta akaso berela ta egun batzuk pasa igual oraindik.

Eta sagarduak ez dituzutela salduko. Gauza piska batzuk izan da aiek enpleatu ez, ori miseriya! Andresen kontuba(k) ere esaten itunen. Ua ere triste ibilliko den, eta ni ere sekulan baño tristiago nebillen. Amari esaion berriz ez dakiala ikusiko naun. Jesusek nai badu, bai oraindik.

Ebiya ari du egunero emen. Or egiten al du?

Kapotia garbituta ala jarri zirazuten, da onera etorri ta kendu. Manta txar bat daukat oraiñ. Jakiñ izan banu, or utziko nuben, bai.

Istruziyua ta guardiya daukagu ugari. Anizetori ere esan, iltzen bagera errezzateko gureztat.

Adios, urrena arte.

Beatzi puntu:

Gurekiñ agintze(n) du
dagon suerti(a) k,

poza ematen digu
bizi izatiak.
Emen ere badaude
txit ordu torpiak,
penarekiñ biyotzak
nolako golpiak!
Gu inozentiak
aurrera botiak,
ez inportantiak;
aungoiko maitiak
guztiyontzat ark dauzka
pasaportiak.

Frente de Cataluña 14 de Julio de 1938

Rezibitu det karta atzo, 8'an egiña; baño besterik ez. Lengo illaren 18'an egiñ nuben bestia. Ez dakit artu zenduten.

Gañerakuan ondo gaude oso. Ez gera lengo tokitik mugitu oraindik, eta esaten ianen Pako erituba ote dan. Ezten arritzekua. Jose Leonen berririk bai al dezute?

Eta esaten den San Fermin egunian aize aundiya ibilli zala: sagarrak bota ditubela danak. Lan gutxiyago izango dezute, ta lengo sagarduakiñ oraiñdik upelak betiak. Sagarra izatia alperrikan kasik. Jaungoikuak jakingo du zer egiten duben.

Belar ontzen ariko zerate unuzkero. Pitikar aldian ere egongo da lana.

Eta Intxordeiko suiak Galarretan lanian segitzen ome(n) du. Ez ditu Intxordeiko lanak ederki egingo orregatik.

Eta oraiñ esaten det kukuba isildu berriya dala. Illaren 9'an azkeneko sentitu nuben. Berandubago ez det sekulan aditu.

Orañ xoxuari iru bertso, kabiya billatu niyorra ill onen aurrenien. Orañ umiakín dago. Iru atera zituben.

Xoxo-kabi bat lau arraultzekiñ
arkaitz baten anparuan,
bera altxata akordatu naiz
len ez neukana goguan.
Ikusi gabe nola pentsatu
txit zeñen apañ dagan?
Zimindu ona dagon lekuban
badaki non para duan, (1)
sasi gañian baño askozaz
patxara ederragan.

Xoxo-kabirik arkaitzian nik
askotan ez det ikusi,
ni inguratu nitzaiorian
aldegin zuben igasi.
Bere lau arraultz berdi oiekiñ
eztu ipiñi itxusi;
danak beretzat utzi nizkiyon,
ez du kentzerik merezi;
eta gañera ez da bakarrik,
laguntzalle eta guzi.

Xoxo gaxua arraultz gañian
ill ontan sartuta ere,
bere senarrak kantatzen diyo
garboso eta dotore.
Aserrerikan ez diyet suma,
ondo konpontzen dirade;
beste gauzarik ez det pentsatu,
au dute dudarik gabe:
lana egiñaz nai lutekela
famelitxo baten jabe.

Orañ bukatzen det onekiñ. Bapo gaude, orañ gauden bezela. Ez dakigu noiz arte. Agur, urrena arte, agur:

Segundo Calonge

Frente Cataluña 10 de Septiembre

Paketia artu det, ez berela baño,
etzala etorriko negon egundaño.
Urruti egongo zan ortik oneraño,
Donostitik asi ta Cataluñaraño,
bitartian daudenak zenbat desengaño:
bizirik eta sano nabill oraindaño.

Paketia artu det. Eskatzen nitubenak emen dia; eta gañerakuan ondo gaude oraindik, Jesusi eskerrak.

Gaur iru illabete betetzen zaizkit onera etorri nitzala. Leku batian gaude oraindik. Elurra galanki egiten du mendi altubetan. Posoziyuan ere atzo ederki txuritu zuben. Azemilleruak kapitana dagon tokiyan gaude erriyan. Gu bajubago gaude, bai, baño emen ere laister egingo du. Neguban a ze elurrak emen!

Eta aitona ill zala Andresen kartatik enteratu nitzan. Gizarajua zeruban gerta dediyela.

Eta ark bialdutako paperak ere alperrik izango dirala noski eskribitzen ziran gañera. Zer egiñ zenduten aiekiñ?

Eta unuzkero zizarra egin dezute. Sagar asko dala diyote premisuakiñ izaten diranak.

Eta oraingo txandan kartik ez det artu, eta nai dezutenian eskribitu.

Orañ azkenian bertso bat.

Eta Anizetok zer esaten du? Oraindik ori ere gerra ontan ekarriko dute noski. Esan ia kartik ez al diran egin biar.

Orañ adios, urrena arte.

Segundo Calonge

Nik irakurri izan derana
lengo ixtori zarretan,
gizon iltzia izandu dala
oraindaño gerretan.
Orantxen ere ortarakoxe
ez guaz egun txarretan,
kulpik gabiak sufritutzen du
gaiztuen atzaparretan.

Bertsua

Or bezelaxe ikusten ditut
eguzkiya ta izarrak,
illargiya ere or dabilkite,
diradelako txit zarrak;
beren lanetan segitzalliak
zuzenak eta azkarrak,
guri laguntza egiten beti,
Jaungoikuaren maiztarrak.

Gurutze Santubari iru anaiontzat bana, eriyotzako orduban erruki dedilla.

Beste billete obek Anizetorentza(t). Itxura polita dute, baño ez dute asko baliyo.

(1) Segundok *nor* idazten du: baiña non bear duala uste degu.

**Egunkari eta
aldizkarietako
bertsoak**

Bilintx zanari

1

Bertsoak ipiñi nai dizkiot Bilintxi,
ark merezi bezela ni ezin iritxi.
Ura bezelakoak izan dira gutxi,
au aitortu nai ezik ez ezpañak itxi.

2

Eun urte gutxienez noski badirala,
Bilintxen bertso asko azaldu zirala.
Nik ere egingo det nere egiñala,
esanaz Bilintx ona bertsoetan zala.

3

Indalezio izena, gero Bizkarrondo,
bertso politak jartzen bazekien ondo.
Zeruan ez dagonik ez nuke esango,
an ezpadago ere ez al da joango?

4

Zeruan dagoela baldin banekike,
arek egin zuena alegindu nik e.
Inpernuan ez dala ziur esan leike,
bakoitzak erregutu salve bat bedeik e.

5

Zar-zarra etzan gorde mundu onetatik,
berrogeitabost urte, sei beñepein betik.
Gurutze Santuaren señaleagatik,
zeruan baldin bada ez dio inportik.

6

Erreztasun bikaña bazuen beregan,
bai egin ere zerbait(1) zoragarrizko lan.
Susmurrak baditugu zeruan ote dan,
aren antz-antzeko bat bai omen dabill an.

7

Nola egon ninteke ni orain ixilik?
Izparringiak dauzkat nunaitik zintzilik.
Norbaitek iritzia galdetuko balit,
nik aren bertsoak jo eder eta polit.

8

Irakurri ta gero ausnartu banaka,
itz eztitsu, politik, jarrita badauka.
Pillatik bazterrera nolanai tiraka,
alakoak ez dira izan amarnaka.

9

Zerizkion guzian beti bertso jartzen,
barrengo maitasuna norbaiti agertzen.
Neskatx ederreneri loreak botatzen,
Euskalerrria gutxi etzuen ondratzen.

10

Xamur artzen zizkion gauz askori gañak,
iñoiz adoratuaz neskatxen ezpañak.
Bertsoetan jartzeko ain lore apañak,
urrezkoak zituen ark buruko zañak.

11

Arek apaindutako makiñatxo bat itz,
gure oroitza ontan agoz ago dabiltz.
Amets bat egin det nik -ai, egia balitz!
oraindik bizi dala Donostian Bilintx.

12

Ai, bizirik balego Bilintx oraindakian,
ez igasi joan ere neskatxengandikan.
Naiz urte asko izan onera andikan,
maitatuko lituzke biotz barrendikan.

13

Atsegin auxe zuen lenengo itzetik,
etzan galdukerian ibiltzen atzetik.
Neskatxak maitatzeko biotz-biotzetik,
Jesusek agindua zuen gurutzetik.

14

Neskatxak bezelaxe maitatu eliza,
ondo sinisten zuen Jaungoikoan itza.
Zerutikan datozen milagroen gisa,
arek azaldu zuen bere jatorritza.

15

Donostiko seme bat ain neskatx-maitea,
Jaungoikoak nai nunbait ala izatea.
Samintasunez daukat biotza betea,
omenaldi bat ari gaur ez egitea.

16

Esker Jaungoikoari, Bilintxi graziak,
dakizkidan apurrak ari ikasiak.
Gaude entzunak eta ondo ikusiak
etzituela jarri bertso itxusiak.

17

Ontantxe ziur nago: dagola urruti,
ta ni ara joateko bainabil beldurri.
Zerbait eskeñi nai-ta or nenbillen beti,
bertso-jartzalle polit Bilintx zana bati.

18

Bilintxen lan politikak dira ezaugarri,
nik iñoiz gogoz asko ditut irakurri.
Zor nizkionak ziran aspaldian ari,
ta orra emezortzi bertso artzaz jarri.

Zeruko Argia, 1968-X-1 7

* * *

Ez dakit bertso auengatik izango zan, baiña bein batez lerro auek idatzi zizkion Bilbotik Euskaltzaindiko J. L. Lizundiak Segundo Kalonjeri:

“1973ko Uztaillaren 8an.
Segundo Kalonje jaunari
Agur t’erdi.

Aurtengo Euskera aldizkaria argitaratzeko xehetasun bat jakin nahi nuke, alegia, zuk 1969 urtean irabazitako Xenpelar sariaren titulua.

Zure erantzunarten zain, milla esker aurretiaz.
Ongi izan.

J. L. Lizundia, idazkari-ordea”.

Segundo Kalonjek, bere esku-idazkietan agertu diran bi bertso auen bidez erantzun zion:

Lizundia jaunari berdin agur t’erdi,
erantzun bear diot zerbait geldi-geldi:
Bilintxi jarritako bertsoak aspaldi,
titulo ori dute ziur erdiz erdi.

Euskaldunak bai, baiña ez gera lengusu,
berdin eskolatuak apenas ni ta zu;
eskuz bialtzen dizut urrutitik musu,
Bilintxi jarritako bertsoak dituzu.

(1) Bearbada zenbait bearko luke.

Illargirako asmoan

1

Illargira begira dago gaur mundua,
ainbat milla urtian len lo egondua.
Orain esnaratuta ez da berandua,
ara joateko dute txit asmo sendua.

2

Errusitarrak eta amerikanoak,
aruntza dijoazenak gogor da sanuak.
Probatu nai dituzte ango platanuak,
ezpazaizkate oker irteten planuak.

3

Mundutik nai luteke illargira jeiki,
bientzat bai ote da biar ainbat toki?
Ezpadira konpontzen nai bezin egoki,
zer gertatu diteken Jaungoikoak daki.

4

Amerikanua ta Errusia berdin,
lan beldurgarrizkuak nai dituzte egin.
Alkar maitatzen dute biak txuri-urdin,
zein nagusituko dan nork daki illargin?

5

An ez ote du iñork sentitutzen miñik?
Edo... ez ote dago odolez egiñik?
Emenguak dabiltza iritxi eziñik,
oraindak ez diote arrapatu zaiñik.

5

Orain jakintsu asko nola ari dian,
ez ditugu ikusten begien aurrian.
Emendik aldegin da ainbeste bidian,
amaika egun pasa dituzte aidian.

6

Lurretik berezita milloika leguan,
amaika egun nunbait igaro eguan.
Gizonaren buruan orain zer daguan:
biurrikeri asko dabilzki goguan.

7

Urrutira joateko bildurrik ere ez:
aparatuan sartu, ura dute babes.
Ez dakit denborarik pasa duten gabez,
baiña illargiratzen ez daukate errez.

8

Gizona dabil orain aurrerapen aundiz,
nik esaten dedana makiña bat aldiz.
Len ibiltzen zirala oñez eta zaldiz,
al zuten bezelaxe, erreka ta mendiz.

9

Orain erreka utzi, mendiak ere bai,
illargira joateko gizonak daude gai.
Ta beste asko berriz erreparuan zai,
bitzta eztsuan or dabilzta lasai.

10

Illargian nai dute arki Amerika,
orregatik dabilzta berari zirika.
Ezer ez dan tokian bueltaka korrika,
naiko bildurrarekin alkarri segika.

11

Maitasun aundirik ez alkarrenganako,
uste det ortatixe dabilzala plako.
Ez ezjakin da buruz illun daudelako,
jatorrizko gaitz ori degu sekulako.

12

Illargiak etsaiak orain badaukazki,
denak joan nai luteke ondo edo gaizki.
Berak erakusten du ispillurik aski,
Jainkoaren eskutik dabillega noski.

13

Arriturik daukate Jaungoikoa bera,
ta ikusi nai ditu gora eta beera.
Gizona nola ez dan oso biotz-bera,
ia ekartzen duten danen bukaera.

14

Uste det gabiltzala arrixku txarretan,
ezin kabitu dira munduko lurretan.
Gizonak sartu nai du illargi orretan,
ez dira ibiliko noski gezurretan.

15

Mundu ontan badago naiko katramilla,
galanki gastatuaz urrutira billa.
Ori ontzat artuta beste zenbat milla?
Jainkuak nai duena, ala izan dedilla!

Zeruko Argia, 1968-X11-8

Xenpelar zanari

1

Sarri bertso-jartzalle Xenpelar zanari,
nik ere ezarri nai zerbait berari.
Aitamena jendeak badauka ugari,
eztiot txarra zanik entzuten iñori;
poz ematen neri
aditzean ori,
jarri nai det guri,
sendo eta lodi;
zeruko sukaldean gertatu bedi!

2

Eun urte il zala ta atzo iruditzen,
Xenpelar aitatzea ez naiz arritzen.
Ezta nere burura bakan etorritzen,
orregatik asi naiz bertsoak jarritzen,
gauz oiek berritzen,
artzaz errukitzen,
biotza irrikitzen;
zein ezta egarritzen?
Lantegi xamurrean ez naiz arkitzen.

3

Bat nola joan diteke lan zallaren billa?
Zenbaitek esango dit: "Ez aiz abilla".
Baiña nik ikusten det leku biribilla,
eman ezkeru beintzat bear dan kurpilla.
Xenpelar mutilla,
aren bertso-pilla
lau edo bost milla,
au jakin dedilla!
Txit zar baten sonadan gazterik illa.

4

Ogeitamalau urte munduko bizia,
batere beste gabe dana guzia.
Ni ala nago beintzat adierazia,
Xenpelar etzala txit gizon itxusia;
aren malizia
gogor justizia,
ortara ezia,
xamur ikasia,
ai, zenbat txalo-soñu irabazia!

5

Errenderiko seme, kantari argia,
zenbat aldiz poztua Euskalerrria.
Ai, ezagutu banu aren arpegia!
Zer-nolakotsua zan pentsatzen det ia.
Zuen etorria
lasai iturria,
berez jatorria
aitormengarria:
errespeto aundiko bertsolaria.

6

Bertso jartzen gogotik altxea zan gora,
nork ala probetxatu gazte-denbora?
Artan jarraitutzerik etzuen gerora,
il zanean kantari ezin joan iñora:
len iñoiz gustora
bere arrastora,
ta gu oraingora
obe izango da,
gero noizpait joateko bere ondora.

7

Nunaitik datozkigu Xenpelarren otsak,
eun urteren burura eztira motzak.
Asko goibeldu zuen aren eriotzak,
neri ere paketan ez uzten biotzak.
Bota ditut lotsak,
zertan egon otzak?
Albiste zorrotzak,
zail da on danontzat...
Xenpelar jotzen dute geienak ontzat.

8

Doñu-mota askotan egin zuen lana,
errez moldatzen baita iaioa dana.
Gizon gaztea zala zuten eramana,
an ere izango da bertsolari-fama.
Artzen badu kalma,
berekin du arma:
aita eta ama
noiznai beregana;
zorionean bego Xenpelar zana!

9

Zenbat santu ta santa kantuz edertuta,
arek jarri zituan gogoratuta.
Bai gai polit askoak bereganatuta,
eun klase gutxienez danak banatuta.
Itz danak neurtuta
nago ulertuta,
iñoiz beartuta,
gogoan artüta:
il zan makiñatxo bat bertso sortuta.

10

Xenpelarren kondaira sartzen zait barrena
abenduko illaren zortzigarrena,
munduko izaera bukatu zuena,
ori oroituztean etortzen zait pena.
Ain gizon zuzena,
Frantzisku izena, a
besteko sena
l zuen maizena;
beñere paltik gabe ark almazena.

11

Frantziskuren gorantzak atsegiñak oso,
nik ere apurtxo bat nai nuke jaso.
Berarentzat mesedez diranak akaso,
leku txarren batean ezpadago preso.
Ara nik eraso
emendik eroso,
al dan aña bertso
denborean mantso...
Xenpelarren kontuak etziran atzo.

12

Orra amabi bertso Xenpelarrentzat nik,
eztakit ondo edo gaizki daudenik.
Iñork ezpadu artzen gogo txarrez penik,
ustez eztet eragin kalterako lanik.
Alako gizonik,
gazterik il zanik,
azkarra izanik,
au egin zuenik,
eztiot ukatutzen bertsoen famik.

Xenpelar saria epaitu duten jaunentzat:

13

Xenpelar-sariketa banatu da aurten,
lendabiziko malla eman zidaten.
Arritzen naiz ni nola berezia nauten,
egokierak ola tarteka izaten.
Ari naiz esaten
aditu dezaten,
eskerrak ematen,
arpegia irten: epaille maite jaunak zein on
zeraten!

Zeruko Argia. 1969-X-26

Urtaintzat iritzi batzuk

1

Nik baneuka zenbaitek ainbeste poesi,
eztakiten askori ulertu erazi.
Urtainen goraberak bear ditut nasi,
gizon baten beldurrez ori ezta bizi.

2

Zuzen sartuak ditu ogeitalau tiro,
ezagun da almentsu dagola guztiro.
Bozeuan eztaki jokatzen eztiro,
apenas Urtainekin dagon oso giro.

3

Urtainek jipoituak zenbat gizon-mota,
denbora gutxi barru oñazpira bota,
askok ez ustearren indarrean jota,
pruebak ederki asko emana dago-ta.

4

Xelebre itzegiten askotan errez da,
inbiria bueltaka baitabil itzez ta.
Orain ikusiko da Españiko pesta,
Urtaintzako Canal txota aña ezta.

5

Urtain aritz onena ta Canal gaztaiña,
doi-doi jarritakoa campeón de España.
Ibar-ek badarama aurrera ezpaiña,
zenbait asko-jakiñen gustora ez baiña.

6

Urtainek euskaldunok nai ginduzke goitu,
bestek eztuen zerbait doai berak baitu.
Erromara joanda're garaille gelditu,
ikusi dute baiña itxu utzi ditu.

7

Otsak eztakiela ezer bozeuan,
Urtainekin luzitzen zailla luzaruan.
Erroman izana da aurten azaruan,
ai, zeñen une xamur ona pasa duan!

8

Zenbaiten iritzian tranpa eta tongo:
"Bestela orren errez ez itukek joango".
Urtainek jotakoak badakite ondo,
iñork esan bearrik eztute izango.

9

Ustez jakintsu askok egindako zopa,
olako gizon bati nik eztiot opa.
Danez ere bandera ta urrezko kopa,
aurki jartzen danean campeón de Europa.

10

Probatu omen ditu mendi ta basoak,
beti ezta komeni paraje gozoak.
Urtainek tiratako ukabillazoak
ikaratuko ditu batalloi osoak.

11

Amarengandik etzan seme aula jaiο,
diran gauzak esaten jardungo natzaio.
Beti zail da ibiltzen ziur eta iaio,
noizpait makurtutzea tokatuko zaio.

12

Oraindik baneukake zer esana pranko,
baiña utziko ditut beste baterako.
Euskaldun bat sortu da kondairetarako,
edozein txaldanekin ez al dute joko.

Zeruko Argia, 1970-I-18

Baserriko kontuak

1

Gauzik onena degu Jaungoikoa jabe,
negua igaro du lan-giro gabe.
Bere gogoa noski izango da obe,
lur-sagar asko-asko egiñak ez gaude.
Lan geiago ere
atzean or daude,
alperrak dotore,
kontzientziz more,
gorputzak itxogiña baitu mesede.

2

Negua joan eta orain udaberri,
egunak luzatuaz zuzen etorri.
Patatik ezin egin ta gabiltza larri,
nekazariarentzat baita lotsagarri;
disgustua sarri
nunaitik ezarri,
begira gauz orri,
kale ta baserri,
guretzat dago zenbait ixtilu gorri.

3

Baserritar gazteak esanaz dabilta.
“Kalera joan beagu” lenengo itza.
Gezurretan ez tet nai iñorekin mintza,
ezpaitet alakoa kopeteko mintza.
Au al da bizitza?
Beartsu gabiltza,
etorri murrirtza,
sendotutzen gaitza...
Asko uzten ari da nekazaritza.

4

Aundia txikiari gogor arrapazka,
orrekin artzen det nik askotan nazka.
Lendik egiña dago guretzako aska,
beti lotuta gaude, ezin gera aska.
Buruari azka,
makiña bat kezka,
zuzen ezin eska,
iñoiz aldrebeska;
norabait joan bearra dago igeska.

5

Mendi aldetik dator asko goitik beera,
bizitza xamurrari artu nai era.
Mundu ontan ortara alegintzen gera,
irixten bada beintzat onena da bera:
daukagun aukera
ez utzi lurpera
alperrik galtzera,
jarraitu aurrera
biotzez maitatuaz beti euskera.

6

Danak berdin jotzerik eztaukagulako,
indarrekoak ere badaude pranko.
Itxaropena badet(1)
gezurrezko soiñurik eztet aterako:
arloteak kako,
bizimoduz plako,
egia dalako,
ezpalute joko,
errukia nun dago orretarako?

7

Indartzen ari dira txillar eta sasi,
baserriko legeak erabat nasi.
Emen zer eldu zaigun ez al da ikusi?
Langilleak aituta alperrak nagusi.
Makinak erosi
eztago itxusi,
oiek ondo ezi,
lan egin erazi;
asko nekatu gabe dotore bizi.

La Voz de España. 1970-IV-7
Zeruko Argia. 1970-V-10

(1) Lerro au falta *Zeruko Argia* aldizkarian

Deabruaren beldurrez

1

Geroko zerbait gogoratuta
ni aurkitzen naiz kezkatu,
ondo ezin det ikusi baiña
begira nago gauz bati;
mundu ontako arrokeria
atsegingarri ez beti,
aurrerapenak iritxi arren
radio edo irrati,
bear genduken apaltasuna
askok daukagu urruti.

2

Deabruaren pentsamentuak
indartu dira benetan,
orregatikan dabil jendea
jazkera nabarmenetan.
Gaiñerakoan ez naiz arritzen
baiña bai euskaldunetan,
moda politak jarri dituzte
emakumeak gonetan,
ontaz aurrera ezta izango
tontorik mundu onetan.

3

Urrutitikan ekarri dute
Euskalenira jazkera,
urte-mordo bat daukagunok gu
oso konporme ez gera.
Azken arnasak gertu dauzkagu
egun batetik bestera,
deabru xarra omen dijoa
lan xelebrea astera:
beste izkuntzak len mentzututa
orain azkenik euskera.

3

Jantzi politak ikusi dira
emen aurtengo udaran,
gorputz geiena bixtan jarrita
zeiñen gustoko moda dan!
Deabruaren dollorkeriak
egon bear du bolaran,
gaztedi dana libertituaz
bere asmozko patxaran,
anima zuzen salbatutzeko
a zer nolako martxa dan!

4

Lendabiziko guraso zarrak
Adan da Ebarengandik,
guk dabilkigun argaltasuna
jatorriz deguna andik;
debequatuta dagon gauz goxo
sagradu ortatik jan dit, (1)
argitasunik ez ote dator
gure burura iñundik?
Deabru zarra indarberritzen
ari ote da oraindik?

6

Mundu ontako gozotasuna
aberatsaren aldetik,
mingarritasun geiago dago
beartsuaren taldetik.
Deabru zarra danontzat dago
zirikatzeke albotik,
ezin ukatzen asiko gera
kusten dana aldetik,
bestela ezinda baderizkio(2)
suge maltzuraren aotik.

7

Deabru zarra sugearekin
sartu zan Paradisuan,
Adan da Eba galtzeagatik
gorroto biziko suan.
Jaungoikoaren aurkako lana
an eragiñazi zuan,
beste modu bat bear zutena
beren bizitza osuan,
pekaturikan ezpazan sortu,
txit izaera gozuan.

8

Azken ordua datorrenean
nork eztu izango kezka?
Ta eztaukagu aldegiterik
babes batera igeska.
Entzunak gaude zeñi ta nola
nai baldin bazaio eska,
baiña askotxok kontzientzia
iraulirikan trabeska,
mingaiñarekin ezer eztala
esaten oso errez da.

9

Goiko urdiña eta izarrak,
eguzkia ta illargi,
urruti samar dabilta baiña
ikusten ditugu garbi.
Jaungoikoaren esku zuriak
egiten digute argi,
bazterretikan agertu arren
jartzen dira erdiz erdi,
gauz oiek danak bakarren batek
egin zituan aspaldi.

10

Golgota mendi zoragarrian
Jesus ona il zanean,
erreztasuna ipiñi zuan
guretzat mundu danean.
Zerura sartzen oso xamurra
ezpada're zuzenean,
eriotzaren beldur-dardara
asarre datorrenean,
animatxoa gerta dedilla
Jainkoaren izenean.

11

Mesias juez jartzen danean
edo epaille maikoa,
bear bezela bereziko du
bakoitza bere gaikoa.
Nola daukagun irakurrita
beekoa edo goikoa,
bi aldetatik agintzaille bi:
deabrua ta Jainkoa;
pekatariak an izango du
larritasuna naikoa.

12

Eztakit zenbat eunki diran
nik deabrua sortu zala,
Jainkoak zuzen egiñagatik
okertu zan berez ala.
Zerbaitegatik dabilkigu guk
pekatarien azala,
Garbitokian utzi nai nuke
erru guzien gezala,
komeni bada Jesus umillak
beregán artu nazala.

Zeruko Argia. 1970-X-8

(1) Bearbada *janik* bearko luke.

(2) *Zeruko Argia*-k onela du lerro au: *bestela ezin daerizkio*.

Alkarrizketa

Kaxiano:

1

Pello Joxe, ik entzun gaur neri arretaz,
itzegin bear dizut lasai-lasai, betaz.
Lorearen ondoren osatzea lekaz
gauza ona litzake naiz iritxi nekaz,
beti ibili gabe teman edo setaz.

Pello Joxe:

2

Ontzat artzen dizut nik esan didazuna,
ortarako bear da biotz-maitasuna.
Askok ez al daukagu urrutira juna?
Eman bear didazu orren erantzuna,
ia xuxpertutzen dan nere Osasuna.

Kaxiano:

3

Diozu etzaudela oso osasuntsu,
askotxok dabilkigu gaur gaitzaren kutsu;
ur garbiari utzita putzu-zuloz putzu,
argalak geralako askotan beartsu...
Xuxpertuko zera ta eskua ekatzu.

Pello Joxe:

4

Poz ematen didazu gauz oiek esanda,
ortan oitua nago elizara joanda.
Jarri lege berriak ta modaren txanda,
mundu ontan badago gaur naiko demanda,
xuxpertuko ote naiz eskua emanda?

Kaxiano:

5

Zu oitua zaudela eskua ematen,
itxurak egitera ezpazera joaten?
Maitasun apal ori ez dedilla eten,
joan dan urtean baiño sendoago aurten,
animatik aditu zer esaten duten.

Pella Joxe:

6

Ondo esaten dana ziñetan aditu,
lagun urkoangana biotza kupitu.
Lendik ere dotriñak beartutzen gaitu,
gogor egin naiean ez burua goitu,
Jesusek bezelaxe umil obeditu.

Kaxiano:

7

Aita Santua ere dabil munduz mundu,
ejenpluak ematen nai duenak ondu.
Agintzen duana da: ez besteri kendu,
premian dagonari albada lagundu;
gauza ona litzake egingo bagendu.

Pello Joxe:

8

Besterena nai orrek sortzen baitu gerra,
pakea izateko ez da lan ederra.
Langilleak eginda gozatu alperra,
bide ortatik dator munduko okerra,
Jesussek ortarako egin al zun lerra?

Kaxiano:

9

Ler egin da gaiñera odol danak utzi,
maitasuna nola dan or bai erakutsi.
Amarretatik zortzik sinistamen gutxi,
goraldu bearrean ankapera jetxi,
lagun daukagulako inpernuko Patxi.

Pello Joxe:

10

Orretxengatik gaude izaki nastua,
maitasuna bear da nun degun aztua.
Kontzientzia berriz kelarrez beztua,
askotan iritzia arrunt berdoztua,
Jaungoikoaren itzik ezin sinistua.

Kaxiano:

11

Mundu au omen dabill millaka urtean,
jendea jarri zaio gain dana betean.
Txarretik bai ugari, on gutxi tartean;
bereziko gaituzte egunen batean,
Josafateko zelai santura joatean.

Pello Joxe:

12

Eraman bearko du nork bere puntua,
gauz ori ziur dago, eduki kontua.
Beldurra izateko atarramentua,
zerorrek egiña da gure talentua,
gutaz erruki izan, Jaungoiko santua.

ZerukoArgia, 1971-I-14

Udazkena

1

Urri-illaren erdi aldean
argia eta leguna,
pozik etxean artu diteke
olako bizi-laguna.
Estimatzea obeko degu
leial ematen zaiguna,
ai, aurten ere zein udarazken
zoragarria deguna!

2

Ta batez ere baserritarrak
biotzez daukagun poza,
zerbait anparo badala beintzat
naiz nai ainbat ezin osa.
Mintasun asko urrutiratu
ta al bagindezke goza,
lore betean orain daukagu
udaberriko arrosa.

3

Intxaur, piko ta arto, babarrun
ta diran sagar aleak,
premirik iñoiz ez da palta ta
guztiok gera zaleak.
Itxaropena edukiarren
izaten dira kaleak,
orduan ere ez gera oso
esker on eman-zaleak.

4

Gure labore arlote oiek:
sagar, arto ta babarrun,
lurraren bidez eltzen diranak
sei illabeteren barrun.
Ta egualdiak gaiñetik berriz
zer nola lagundutzen dun,
jangaia urri degun urtean
iñoiz esteak alargun.

5

Udaberrian esaten zana:
“Aurten ez daukagu ezer!”
Garagarrillak erdia jota
parregarri eta oker.
Baiña geroztik opatzen digu
makiña bat egun eder,
bizitarako moduan gera
udarazkenari esker.

6

Gertatzen dana ikusita ni
ixilik nola gelditu?
Txit aulak ziran landare asko
azkenerako aunditu.
Pentsatzen etzan modura gauzak
dotore erremeritu,
nai duenean orrek okerrak
errez zuzendutzen ditu.

7

Emaleari esker ematen
gogoz asiko bagiña,
orretarako bear genduke
biotzez maitasun piña.
Argaltasunak galerazten du,
ez gera irixten diña:
gu kapaz gera gaizki artzeko
askotan ondo egiña.

8

Alguztidunak ematen digu
guk merezi degun aiña,
orain dijoan bolara onek
badirudi esne-gaiña.
Eguna joan da eguna etorri,
auxe udazken apaiña!
Ipintzen digu nun eguzkitu,
ez gera aseko baiña.

9

Txantxangorriak txio-txioka
egunsentian ertzean,
geroxeago kantari berriz
bat bai zugaitz bakoitzean.
Udara-azkena ez dute uzten
oiek aztuta atzean,
kuxkurxeago ibiltzen dira
negu gogorrek jotzean.

10

Giro onaren indarrarekin
nabaitzen danean sasoi,
bakoitzak bere jatorriari
ematen dio arrazoi.
Euskalerriko txoritxoetan
nabarmentzen dana bat oi,
udara-azkenak txantxangorria
noizpait jarri zuen patroii.

Zeruko Argia. 1971-X-14

Donostiari

1

Zerbait iritzi irten nai luke.
Donosti zarra, zugandik,
berriak ere ez du merezi
esker gaiztorik iñundik.
Maitasunaren bultzadarekin
datorkidana barrendik
pixkabanaka azalduko det,
denbora dago oraindik.

2

Donosti zarrak bere barruan
toki politak baditu,
jende-bolara datorrenean
danak or ezin kabitu.
Berria askoz aundiago da,
ara pixka bat partitu,
dotoreago moldatzen danik
nik beintzat ezin arkitu.

3

Danen gustora ezin itzegin,
au da demontrezko lana!
Ni baiño gizon azkarragoak
ederki daukate jana.
Gipuzkoako uriburua,
gauza bat gertatzen dana:
politenetan polita dala
aspalditik dauka fama.

4

Bazter dagoen gain batetikan
ni egoten naiz begira,
goitikan beera etxe bikaiñak
ta asko ikusten dira.
Urgull izena duen menditik
dago itxas alderdira,
Jesus daukate ara jasoa
Donostiaren guardira.

5

Makiña batek joera badu
gogoz Donosti zarrera,
len izan ez dan atzerritarrak
lendabiziko sarrera;
patrikadatik ondo badago
ez dator leku txarrera,
naiz len sekula ezagutu ez
egingo zaio arrera.

6

Beste guziak beste dirala,
Alejandroren bodegan,
eskalleretan beera sartuta
zenbat lagunek jan da edan,
zuaitzetatik lurreratzen dan
txori-talde baten eran!
Atzera berriz gora irten nai
asteko zorian egan.

7

Iduritutzen baldin bazaizu
moduz antzean jaterik,
ez beintzat pentsa beste iñora
gauz orrengatik joaterik.
Jendea ondo serbitu arte
ez du itxiko aterik,
Jainkoak bestek ez daki ondo
Martiñen borondaterik.

8

Nere bertsoak, nai dituenak,
irakurri ta ikasi,
bestela berriz gauza erreza:
lantegi ontan ez asi.
Nik dakidana Martin dagola
bodegoi ortan nagusi,
azpi-azpitik leku txarrean
zaiñak ez ditu itsatsi.

9

Lana egiñaz irabazteko
ez dago modu txarrean,
beste geiago eduki arren
beregandikan urrean.
Sei edo zazpi metro geienez
bat bestearen aurrean,
barraren paltik ez dauka orain
iñork Donosti zarrean.

10

Itxaropena oparo degu
nunai aurtengo urtean,
jendea lasai elduko dala
kale guziak betean.
Guretzat ere mesede da ta
zuentzat ez da kaltean,
nere esanak onartu, Martin,
ta lagun izan gaitean.

11

Ezin liteke asko luzatu
nere jakinduri motza,
an bezelaxe au aitortzeko
nik zertan bear det lotsa?
Donostiaren edertasunak
nola pozten dit biotza,
eku askotan entzuten dala
diote beraren otsa.

12

Donosti zarra, aipatzen zaitut
maitasun beroz azkenik,
uretzat ez det erabili nai
min emateko eztenik.
Premirik gabe zertan beartu
zarrenik eta gaztenik?
Asko moduzko dollorkeririk
apalarentzat ez det nik.

[*Zeruko Argia*, ez dakigu zein egunetakoa)

Idi-tratua

1

Aurten milla ta bederatzireun
irurogei ta amabi,
gaurko munduan ezin liteke
piatu noski geiegi.
Zenbait gizonen kopetarekin,
mutillak, eduki begi,
aurretik itzak apaiñak eta
ondoren portatu nagi.

2

Esango ditut diran bezela
ikusitako egiak,
edo bestela zertako dira
mingaiña eta begiak?
Zenbat xelebre mantentzen gaitun
mundu onetan ogiak,
pena aundirik apenas daukan
guk saldutako idiak.

3

Ni bizitzen naiz Residentziko
alboan edo ertzean,
bakarren bat, bai, oroituko da
bertsoak irakurtzean.
Nun nagon ere ez tet jakiten
nik au pentsatzen jartzean,
guk saldutako idia dago
oraindik ere etxean.

4

Guk saldutako idia berez
da beltza eta gorria,
amar arra or bete-betean
nik artzen diot neurria.
Baba ederki jaten du eta
mugi lezake arria,
iseka egin zenduen baiña
eztago parregarria.

5

Eztakit zein bidez etorri
ziñan zu gure etxera,
erostun ona ziñalakoan
gu prest idia saltzera;
ainbeste kontu amarratuta
danak biurtu utsera,
gizarajoak engañatzeko
jaiotakoa al zera?

6

Korridetako zezenak ere
tankera ortako adarrik,
aragirikan urratu gabe
sartzen du ziri ederrik.
Ta zein ote dan galdetzen dute,
eztaukat esan bearrik,
berak badaki nik bezin ondo,
ori basta da bakarrik.

7

Zuk egindako trukoarekin
eztet malkorik ixuri,
gizonak nola egin lezazke
ainbeste biaje txuri?
Minberatzeko ainbeste bada,
ulertu zazu gauz ori
ni ezpanazu zuk gorrotatzen
barkatzen dizut nik zuri.

La Voz de España, 1972-V-16

Aurtengo Xenpelar sariketari

1

Xalbadorren lan ori nai duenak ondu,
bertsoak jartzen arrunt zaigu nabarmendu.
Ziur samar zebillen, eztiote kendu,
zan saririk onena berak eraman du.

2

Oben egiten badet gogoak emanda,
gero barkatuko dit apaizak esanda.
Xalbadorren izketa gustatuko zan da,
saririk bikaiñena mugaz aruntz joan da.

3

Galdorrean gelditzen egiñikan modu,
ortara irixteak ontasuna badu.
Kapitantza artuta besteak soldadu,
jarraituko dizute zuzen eta ondradu.

4

Xalbador ikusi det Donostian bitan,
gizon piña ote dan dirudi begitan;
pruebak emanak dauzka amaika tokitan,
bertso jartzaille orain guztien kapitan.

5

Bertso-arazo ortan ezta gizon lela,
pentsatu igerrita askotxo daudela;
errespetatu zagun apaiz bat bezela,
Euskalerririk maite eztegu bestela.

6

Ankean min duenak egiten du erren,
berak erakusten du zer aje dakarren;
Matxain eta Olea onak izan arren,
izendatua dute Aierbe bigarren.

7

Irugarren Olea izango da noski,
berarengatik esan bear ditut itz bi.
Bertso bikaiñak erruz nunai badaukazki,
pixka bat ulertuta ausnartzea aski.

8

Matxainek eztakit nik zer izango duan,
edo zer ipui-klase pentsatzen dagan;
txit alai ikusten det nik nere albuan,
ia bera jartzen dan lenen urrenguan.

9

Amasei gizonak or artu zuten parte,
Xalbador da txapeldun berriz kendu arte.
Bertso oiek eztira euskaldunen kalte,
gure sorterri zar au bear degu maite.

10

Urepeleko seme apal, bioztuna,
ontzat artutzen degu guk zuk diozuna.
Gorputzera sartutzen dezun poztasuna,
animarentzat ere baita Osasuna.

11

Zorionak gaiñezka gure Xalbadorri,
egal askotatikan joango zaizka sarri.
Badakigu jakintzan etzaudela urri,
bertsorik ederrenak berriz ere jarri.

Zeruko Argia, 1972-X. 15

Moda ta lujoak

1

Kebelarra salneurritz joango da goraka,
legezko gauza dala nago ortaraka;
emakumeak ere sartu dute anka,
beste aurrerapenik ez genduen palta!

2

Zigarroa erretzen emakumezkuak,
neskatxa apain, polit ta lirain askuak,
tabakoz usanduta ederki eskuak;
badatozkigu moda zoragarritzkuak.

3

Ezpaiñak pintatuta zigarroak erre,
mutillak berdintzeko gertu aurrez aurre.
Egunean baleude bost ontzako urre,
orduantxe ez giñake izango asarre.

4

Dezakenak bezela arloteak ere,
emen bizi nai degu lanik egin gabe.
Ala balitz gauz ori askorentzat obe,
iduripen orrekin zatar ez al gaude?

5

Gaurko aurrerapen bat lanaren igesi,
zigarroa erretzen lenengo ikasi.
Lengo ogeitatik bat eztute nai ezi,
nola demontre ola beartsua bizi?

6

Mutillak ezin badu fumatzeko sortu,
bere moduko neska emaztetzat artu.
Ataka ederrean etzerate sartu,
aunditsu petral orrek bearko du lertu.

7

Askotxo ari dira bizioak artzen,
deabru egazkiña or dabil ekartzen,
modak eta lujoak sendietan sartzen;
aita ta ama berriz malkoak ixurtzen.

8

Zarraren esanari egin kaso gutxi,
lengo oitura asko bazterrera utzi;
moda edo lujozko beste zerbait pitxi
oraingo gaztediak nai du erakutsi.

9

Ortaratuko zanik gure probintzia,
arrunt oker irten da nere iritzia.
Lanik egin nai ez ta aberats jantzia,
beartsuarentzako a zer erentzia!

10

Aberatsaren martxa guk nola eraman?
Motxa ipiñi bear luzearen faman.
Emen ezin iritxi ta laburrago an,
etzazutela artu oinbesteraíño lan.

11

Tontorrean dauzkagu lujua ta moda,
danok igo nai degu mailla obegora.
Zeiñek daki noraiño? Nik eztakit nora;
kea bezela asko badijoaz gora.

12

Bear dan gauza dala diote kultura,
zuaitz gazteak artu nai dute altura.
Edari piñak edan, dutxatzeko ura,
ondo-nai ori beintzat oso indartu da.

13

Aberatsa berdindu nai luke pobrek,
arrunt aldaturikan munduko legeak.
Gustatuta ipiñi gauza dotoreak,
gero igaro bear kalamidadeak.

14

Lujua ta moda bai, poltsa diruz urri,
gaur askok ezpaitio begiratzen orri.
Itotzeko zorian lokarria jarri,
apain bizi nai baiña disgustua sarri.

15

Beti izango dira gazia ta geza,
danak ondo bizitzen eztago erreza.
Txarren-txarrena au da: ulertu nai eza;
jakinduria aiña badago laiñeza.

La Voz de España, 1973-III-18

Kukuaren otsa

1

Aprikatikan Euskalerrira
kukuak badatozkigu,
mendekoari jarri naiean
zerbait poz eta kastigu.
Esan bearrik ere eztago,
berak or daude testigu,
ku-ku entzuten degunean guk
penik ematen eztingu.

2

Itxumustuan entzuna naiz ni
aurten kukuaren otsa,
arrigarrizko zerbait ote zan
jarri zitzaidan biotza;
oiean epel-epel nengon da
neri eman zidan poza,
dirurik gabe aurkitu nintzan,
beste nunbait urre-poltsa.

3

Uste gabeko gauzak askotan
gertatzen zaizkigunak, *rau!*
Lengo urteak lengo dirala
xelebrea aurtengo au.
Ni mixerian bizituarren
orri inporta dio lau,
xentimo baten trabarik gabe
oiean arrapatu nau.

4

Udaberriko egunsentian
gogor asten da kantatzen,
biotza zeñen gogorra duen
askok eztute pentsatzen.
Ez naiz ariko gezurretan da
eztiran gauzak aipatzen,
besterenak txit gorrotatuta
bererik eztu maitatzen.

5

Emeak dira seriorita ta
arrak oso señorito,
alkarregana urbiltzen dira
Mari-zikin da Pakito.
Txantxangorrien ume gaixoak
kabitik kendu ta ito,
gero arrautza berak an egin,
azi dezala ta kito!

6

Piztiak ere jartzen digute
esperientzi ederra:
aundia lasai pasiatzen da
txikiarentzako lerra.
Txantxangorriak nozitu bear
kulparik gabeko gerra,
kukua da bat santu-itxuran
kriminala ta alperra.

7

Ondo sinistu gauza orrek ni
erruz naigabetzen naula,
indartsu batek koitaduari
oinbesteraiño burla.
Txantxangorria berez dalako
biotz-bera eta aula,
kukuak eztu arrazoi txar bat
entzun izandu sekula.

8

Eztu usteko ibili danik
iñoiz iñoren kaltean,
lagun urkoa ortxe jartzen du
penaz beteta nekean.
Suerte ori lendandik dauka,
nik eztakit noiz artean,
berak nai duen guztia egin
ta bizi pake-pakean.

9

Ari gera ta ez ote degu
zerbait adieraziko?
Alperrak ere eztira beti
nai bezin ondo biziko.
Txantxangorria amaitzen bada
eztu kukurik aziko,
zer pentsatua utziko die
beren denbora guziko.

10

Orain artean kaso aundirik
eztio egin erriak,
bere denboran ikusi ditu
une latz eta larriak.
Iñori apal obeditutzen
badaki txantxangorriak,
beste nunebait izan ditzala
esker atsegingarriak.

11

Goitik dagonak azpikoari
ipintzen dion jokera:
maitasunezko erruki gutxi,
beretzako nai aukera.
Burutik asi, lepo ta ego,
ipurditikan ankerak,
txantxangorria, ematen dizut
euskaldunaren tankera.

12

Kukuak nola agintzen duen
txantxangorrien lurrean,
ain urrutitik onuntz elduta
lotsarik ez muturrean.
Dollorkerizko ausardi ori
besteren etxe aurrean,
kontzientzia ondu nai badu
eztabil sasoi txarrean.

13

Orri eztio gaizki egiñak
kezka aundirik ematen,
lengo urtetan bezela berdin
jarraitu naiko du aurten.
Kukukumea ia janean
zuen malkoak edaten,
txantxangorriok, eztakit nola
orren leialak zeraten.

14

Nere buruan erabili det
bi egaztiren bizitza,
txantxangorriak kuku jaunari
noizbait eman zion itza.
Ta orain bere kontra eztu nai
xotilla dalako mintza,
gogorkerizko aundi-txikian
oso ezberdin dabilta.

15

Kukua eta txantxangorria
biak alkarren onduan,
bat iltzaillea, bestea berriz
dabil maitasun senduan,
Jesukristo ta bere etsaiak
ibili ziran moduan; a
urrera ere billaukeririk
ezta paltako munduan.

La Voz de España, 1973-IV-II eta 14

Patronato San Miguel

1
Patronato San Migel leku apaiñean,
Donostiko baillera Aiete gaiñean.
Lengoan izandu naiz bere jardiñean,
zerbait itzegin naia daukat mingaiñean,
baiña ezin goraldtu merezi aiñean.

2
Maiatzaren lenengo eguna zan bera,
nik ara irixteko izan nuen era:
lendik ere baneukan zerbait ezaguera,
pozik urbildu nintzan bere magalera,
txit paraje polita ikusiak gera.

3
Duten arrazoiz gauzak esango bagiñu,
len gaztain-txarak ziran ta ondoren piñu;
orain jardin batetik egiten du kiñu,
bertara biltzen dute nai ainbeste soiñu,
mundu onetan sortzen diran aiña doiñu.

4
Nunaitik bazetorren kukuaren otsa,
xoxo ta birigarro, txori danen boza.
Barrendik irten nairik biotzak zer poza!
Donostiak or dauka urrezko arrosa,
zentzuz urri diranak nai dituzte osa.

5

Ezpaita palta aize osasuntsu piñik,
gutxi gelditzen dira antzeman eziñik;
gorputzean ezpadu ajearen miñik,
etzaio pasiatzen nekatuko oiñik,
San Migel bai apaiña, bat bada apaiñik!

6

Askok egiten dio San Migeli kaso,
ikusteko apaiña dagolako oso.
Aspertu eziñikan bertan goxo-goxo,
baratz biurtu zera len ziñana baso,
etzaitu esku txarrak apalera jaso.

7

Aurrezki Kutxa orrek egin duen lana,
askoren mesedetan izango da dana.
Ume bat nabaitzean burutik baldana,
urrutitxotik ere datoz beregana,
or atsedentzen dira aita eta ama.

8

Danentzat urte onik iñoiz eztalako,
gaizki esaka ere jardun ziran pranko,
arantzak zulatuta min artu zalako;
baiña uts-utsik iñor eztute lagako,
etorkizuna ortxe dago gerorako.

La Voz de España, 1973-V-13
Goiz-Argi, 1973-VIII-15

Ondartzara joan nintzan

1

Ondartzara joan nintzan lengo egun batez,
buelta bat ematera aspaldiko partez.
Jendea bazebillen xelebren, suertez,
zerbait pentsatu bear onez edo gaitzez.

2

Bat jabetutzen baita gauzak ikusita,
len ez nekizkienak nago ikasita;
auxe esan didate galdezka asita:
“Zuk ere egin zazu tarteka bixita”.

3

Denbora pasa asko, lasai ederrean,
nik ikusi nituen Kontxan ondarrean.
Peri begiratu jartzen da aurrean,
ni bakarrik nintzan an jazkera zarrean.

4

Ikusteko egiña dalako begia,
alegintzen eztanik gutxi, alegia;
bada or okela ta bada aragia,
txorabioarekin jausi nintzan ia.

5

Txorabioa pasa eta gero ere,
ezin gelditu nintzan begiratu gabe;
beurak izango dira beurenaren jabe,
ni oker ezpanago ederrak badaude.

6

Itxas-ertz polit oiek legorreko arraiz,
bero nabaitzen bada joaten dira garaiz,
Kantauriko lurretan ez nai dan bezin maiz;
ni nere iritzi bat ematen ari naiz.

7

Berotzen diranean udako egunak,
or inguratzen dira millaka lagunak;
bai erakutsi ere paraje legunak,
arritzen gera baiña len eztakigunak.

8

Eguzkia nai dute azala bezteko,
lengo kolore zuri ederra uzteko.
Ezer pekatu danik eztute usteko,
pixkan paltan dabilta dana ikusteko.

9

Neroni ere ez naiz oso seda piña,
ziprixtiñak badauzkat mantxatzeko diña.
Sasoiean daukanak jatorrizko griña,
maistrak badaudela ta ikasi dotriña.

10

Esango dute trapu gaiztoa naizela,
beurak lenbizi jator porta ditezela;
zer pentsatua jartzen digute bestela,
ai, beztuko balira ikatza bezela!

11

Batzuek geldi eta besteak jostatzen,
lan gogorrik askori etzaigu gustatzen.
Ur goxo apaletan dabilta preskatzen,
Ginea-ra joaterik eztute pentsatzen.

12

Auxe gogoratu zait orain bat-batean:
konpondu litekela alkarren artean,
Ginea-ra joateko urrengo urtean,
angoak bezelaxe beztu bitartean.

13

Entzun berria naiz ni Ama Euskerari,
maitea dedalako esan zidan neri:
“Gustatutzen al zaizu edertasun ori?
Deabrua bueltaka badabil ugari”.

14

Deabruak badauka indar edo kemen,
esaten zaiolako geienez amen.
Orren soil ipintzea ez al da nabarmen,
Euskalerra gaixoan, azkenean emen?

15

Amabost bertsorekin nai nuke gelditu,
gai batek beretzako asko ez al ditu?
Ondartzarako bide onari jarraitu,
eguzkiak beztuta indartuko gaitu.

La Voz de España, 1973-VII-12

Goialdea laino

1

Bertsoak ipintzea gogoak eman dit,
asi besterik ez det nik egin oraindik.
Jaunak laguntzen badit nundik edo andik,
zerbait irtengo al da Kalonjerengandik.

2

Pentsatzen egoten naiz makiña bat aldiz
Donostia ez dala iñoiz izan Cádiz.
Ez gaitu ikusi nai eguzkiak begiz,
ez ote da gugana limurtuko berriz?

3

Itzalean gabiltza geienez udan,
zuaitz-orri aundiak daudelako mugan:
ta eguzkia berriz lanerako dudan,
bere berotasuna ez dakigu nun dan.

4

Aspalditxo onetan nere baitan nengon
eguzkiak kemenik gabe ote dagon;
baiña andik pixka bat gertuago egon,
berotutzen omen du Mediterraneon.

5

Traba gogorak daude jarrita topean,
ez bazaie ekiten kañoiz atakean.
Udak aldegingo du laister galopean,
ta lizunduko gera danok lainoepen.

6

Denboralez gabiltza erabat nastuta,
onik ez du egin nai arrunt zapuztuta.
Ez gera zatartuko beroak beztuta,
eguzkirik askotan azaltzen ez du ta.

7

Jaiak igaro eta prestatzen danean,
laiñoak baztertuaz datorkigunean,
bero galantak igual ogei egunean;
gogoak ematean joko du lanean.

8

Gu ibiliagatik biurri ta kako,
orri ez dio iñork bioliñik joko.
Gertatzen dana ez da gutxigotarako,
orren mende bear guk jabea dalako.

La Voz de España, 1973-VII-29
Goiz-Argi, 1973-X-15

Zar geienak pipiak jota

(Doiñua: "Aizak i, mutil mañontzi...")

1

Zerbait bear det itzegin,
eztet izandu atsegin,
erreuma petral gizatxar onek
jokera bat egin;
gogor ematen zidan min,
nik pausorik altxa ezin,
gutxieneko artua badet
trenka bat medezin.

2

Erreuma gaiztoa da ta
kanalla, traste galanta;
elbarritzeko beste ajerik
nik ez nuen palta.
Ipiñi nai nauten planta
erdia kendurik anka,
lendabiziko jarri ditzadan
dozena bat kanta.

3

Albiste txarrak zartzera,
lengo kemenak atzera,
mundu ontako itxaropenak
erabat galtzera.
Erreuma eta ultzera,
gaitz asko oien antzera,
ajerik gabe gutxi dijoa
norbere etxera.

4

Au da atarramentua,
atera zagun kontua,
gazte denboran
nola genduen
errukimentua;
duenak eskarmentua
berekin dauka puntua,
nik esan gabe pentsatuko du
ezpada tontua.

5

Pentsatzen al da gazterik
zarraren molde tristerik?
Eztet esango par egiteko
moduko txisterik;
baldin badago besterik,
ori nai luken trasterik,
ez uste iñor azitarako
munduan uzterik.

6

Len botatako aziak
ondo kostata eziak,
enbarazuan dagoenari
bultzaka asiak.
Nik nola esan guziak,
nere begiz ikusiak?
Gaztearentzat zer pintatzen du
zarraren biziak?

7

Ni ari naiz itz-jario
ta jarraituko banio,
mundu onetan zenbat izaki
ainbeste jenio.
Pikaro askotxok dio,
beuren iritziz serio:
“Guraso zarren buruzpideak
deus ezтик balio!”

8

Zartzera eztago pozik
pena ta tristura baizik,
au aitortzeko eztet izango
nik batere lotsik.
Iduripen asko utsik,
ezin alaitu biotzik,
alaxen ere beste mundura
iñor joan nai ezik.

9

Emen bizitzeko griña,
il bear ori da miña,
obe genduke konpesatuta
onduko bagiña.
Au da Jesusen dotriña,
baiña limurtu eziña,
bai, bagenduke Jainkoagana
txit sinismen piña.

10

Maitasun piña bagendu
nola gindezke illundu? (1)
Jesusengana gogor urbildu,
berari lagundu.
Zenbat gabiltz munduz mundu
ezin geranak zuzendu?
Pikoetara joan bear orrek
pena ematen du.

11

Ni egondu naiz etsita,
itxaropenak utzita,
traje bat izan da ura bera
soiñean jantzita;
aingeru batek bixita,
noski zerutik jetxita,
oraindik ere emen nabil ark
geldi arazita.

12
Erreumaz nago betea,
ontatik badet dotea,
bakarren batek pentsatu zuen
neri ematea,
Jesusen Ama maitea,
nitzaz erruki zaitea;
zuk nai badezu,
nik pentsatzen det
zerura joatea.

La Voz de España, 1973-XI-14 eta 15
Goiz-Argi, 1974-III-27

(1) *La Voz de España*-k: nola gindezke ikundu?

Kinto-billerak

1

Kintoen billerak maiz diralako buruz,
ezin itzegingo det beintzat asko moduz.
Modan dabilta orain gastatuaz erruz,
plakirik eztutenak patrikadan diruz.

2

Kintoak an da emen dabilta bazkaltzen,
ta itxura txarrean eztira azaltzen:
bizio geiagori ezpadie eltzen,
urtean beingo orrek eztu ezer galtzen.

3

Debaldeko morrontza probatu degunak,
nai orduko ez baiña aldatu egunak.
Noiznai biltzen zerate or kinto lagunak,
abenjandeizutela, seme euskaldunak!

4

Jendeak osatzen du ortarako plaza,
billera bat egiñaz alkarrekin lasa.
Gorputzarentzat ezta ori arri-jasa,
tripa ondo zaituaz egun on bat pasa.

5

Meza entzuten dute geienak elizan,
Jainkoa goralduez kristau onen gisan.
Berak ikusten ditu zergatik dabilzan,
lagunduko dizute, ez bildurrik izan.

6

Taldeak biltzen dira tokatzen dan eran,
bazkaltzeko denboran ondo jan da edan.
Izango dute noski naikoa aukeran,
orra nik garbi esan zer pentsatzen dedan.

7

Barrena indartzean nola egon mantxo?
Orduan izaten da jarri naia jauntxo.
Aitortzen det neroni banaizela batxo,
garaiz erretiratu denok txintxo-txintxo.

8

Txintxoa izatea ezta ondra gutxi,
saria jasoko du biar edo etzi;
berak jo baiño lendik edaria utzi,
besteri ejemploa orra erakutsi!

9

Besteri erakusten askotan errez-ta,
ori nola liteke berak jakin ez-ta?
Bein jarri bazan, jarri, au munduko pesta!
Etxean doi-doi eta kanpoken kezka.

10

Ondo erakustea iñork eztu kalte,
oraindik kinta asko sasoiko zaudete.
Zar bakar txintxo oiek jakiten badute,
Egoako Polora uxatuko naute.

11

Nik ondo sinisten det esan didatena,
gezurra baldin bada izango det pena.
Egingo baluteke al dan azkarrena,
neri iruditzen zait txit on litzakena.

12

Gaztetan ibiliak aspaldi soldadu,
Alfonso serbitutzen orduan ondradu.
Uste det badutela iñork ainbat gradu,
Francoren kintak ere laister izango du.

El Diario Vasco, 1973-XII-9 / Goiz-Argi. 1974-I-15

Baserriko auldadea

1

Ogeigarren eunki au degu nabarmena,
aurten irurogei ta amalaugarrena.
Zenbat poz eder eta beste zenbat pena!
Emen artu bearra dago datorrena.

2

Izkutatzen ari da baserriko martxa,
gazteak aldegin da zarrak nola altxa?
Kaletar biurturik ainbeste neskatxa,
uste det sortu dala sekulako mantxa.

3

Lege zarrak utzirik berezita mugaz,
oraingo gazte asko kalera dijuaz.
Deika ari dalako antzokitik Judas,
or engañatzen ditu biboliña juaz.

4

Oso urte gutxian au da gorabera!
Polita ikusita il bearrak gera.
Baserria utzita dijoaz kalera,
zeiñen penagarri dan datorren galera!

5

Kalea gustatu ta baserria utzi,
bururatu zaiena millaka neskatxi.
Sortu ziran lekura txit maitasun gutxi,
zeruaren ondotik linboraiño jetxi.

6

Gaur-gaur bezela zenbat baserriko dama,
askoz naiago dute alperraren pama.
Etziran olakoak aita eta ama,
baserriko bizitza sorgiñak darama.

7

Mesede aiña noski izango da kalte,
goibeltasun galanta utzi bear dute.
Garbi ikusten dana ziur esan leike:
jaiotako kabirik eztutela maite.

8

Aurreratuak daude gaurko zenbait gazte,
munduko teknikorik onenak ainbeste.
Orrengatik kalera txulo dijoazte,
an ere naiko lanak izango dituzte.

9

Erantzungo duela kaleak bakarrik
esango dute, baiña neretzat alperrik.
Nik eztet sinistuko olako gezurrik,
dantzatutzen ezpada aruntz-onuntz lurrik.

10

Lenago ederrenak baserrira pozik,
orain gertatzen dana degu beste gauzik.
Beirik eta ardirik ikusi nai ezik,
bizileku politikak uzten dira utsik.

11

Atsekabe gogorra dator guregana,
sendo salatuko det nabaitzen dedana.
Len goieneko maillan aipatutzen zana,
baserriak badauka galtzak bete lana.

12

Baserri gaixoari joan zaio kordea,
xuxpertu lezakena kalera gordea.
Lanerako gogoa bear da ordea,
maiorazkoentzako maitasun berdea.

13

Segika dabillen bat emaztegaiari,
zenbait panpoxarekin nolanai piari!
Eskarnentu dutenak esana da neri:
askok eztutela nai baserrian ari.

14

Orra beste gauza bat txit ziur jakiña:
mutillarentzat neska baldin bada piña,
eraman bear luke baserriko miña,
edo bestela dauka maitasun sorgiña.

15

Mutillak ezpadu nai lurrik gabe bizi,
beste opiziorik ezpaitu ikasi,
neska berri batekin kalera igesi,
olakoak ez luke batere merezi.

16

Maiorazko jator bat maitasun onean,
lagun bat artu nairik prestutasunean.
Zuk jarraitu nai arren bide zuzenean,
zenbaitek uzten gaitu utsik azkenean.

17

Zoritzarreko gaitza etxean sartuta,
palta duena dago oso beartuta.
Naigabe izugarritz biotza lertuta,
maite paltsoagandik propiña artuta.

18

Maiorazko askotxok gaur daukaten penik,
neronen biotzean ez nuke naiko nik.
Ezin bada billatu iñun euskaldunik,
andaluzak ekarri neskame bedenik.

19

Baserria dago gaur aul eta serio,
zuri galdezka nator ni, San Antonio.
Jainkoaren indarrak ezpadu balio,
gaiñerakoan zeñek lagunduko dio?

20

Baserrian arnasa ikusten det doi-doi,
ta bota nai diote itozeko lain loi.
Aize biurria ta laiñojea marroi,
berriz ere euskerak bearko du morroi.

La Voz de España, 1974-I-7
Goiz-Argi, 1974-IV-18

Emazte gaixoari

OITURA aundia zan garai batean. Norbaiti zerbait jakingarri gertatzen zitzaionean, norbait ori bertsolari batengana inguratzen zan, gero bertso bidez erriari adierazteko.

Goizuetako Jose Maria Larrea jaunari, etxeko lanak egiten ari zala, emaztea il zion tximixtak.

Eta Jose Mari onek, emazte onaren oroipenez, bertso batzuk moldatzeko eskatu dio gure adiskide Segundo Kalonje donostiar bertso-jartzailleari.

Onek bete du Goizuetako alargunaren naia. Ona emen Kalonjeren bertsoak. (1)

1
Naparroako erri txiki bat
ainbat neke eramana,
Goizueta du bere izena
antziñatik daramana.
An jaio nintzan eta geroztik
osatzen zait naiko lana,
Jose Maria Larrea naiz ni,
orra ezaugarri dana,
emazte maite biotzekoa
tximixtak bota zidana.

2

Ezbear ura gertatu eta
goibel bizi naiz geroztik,
ai, zenbat pena eta naigabe
biotzeratutzen zaizkit!
Operatuta negon garaian
egundo alako pestik!
Bost aldetara begiratuta
on aundirik egin eztit,
naiago nuke ezpalitzake
berriz sortuko tximixtik.

3

Une luzean ibilia naiz
erotutzeko zorian,
gaur pentsatzen det ote nabillen
erabat mundu berrian;
igaro diran illabeteak
jarri nai ditut neurrian,
bi urte zuzen elduko dira
abuztuan amabian,
ni alargundu nintzala azkar
Goizuetako errian.

4

Naigabe txarrak pixka bat utzi
ta xuxpertz naizenean,
bertso auetxek ipiñi ditut
andrearen izenean.
Iru-lau aldiz oroitutzen naiz
gutxienez egunean,
gabetan berriz amets egiñaz
beregana zuzenean,
iruditzen zait bizi naizela
len nion maitasunean.

5

Probatu det nik nola izaten dan
barrendik triste antzean,
biotzak buelta ematen baitu
puska maite bat kentzean;
bizitza ere ezta erreza
alako une latzean,
ain bear nuan emaztea nik
eztet ikusten etxean,
besarkada bat emango diot
Josafatera biltzean.

6

Adierazten alegindu naiz
guretzat zegon kasoan,
zerbait bear da argazkitxo bat
nunebait badet jasoa.
Denboralea asarretzean
ezta izaten gozoa,
tximixta da bat biurria ta
gauza txit peligr osoa,
ark utzi zidan etxe barruan
illik emazte gaixoa.

La Voz de España, 1974-V-II
Goiz-Argi, 1974-V

(1) Basarriren adierazpena, bertso auek egunkarian
argitaratu ematerakoan.

Bertso Berriak

Gizonak:

1

Ezkonu giñan eta ondoren au pesta!
Seme-alaben orde z demontrezko kezka.
Nik mutilla nai nuan ta andreak neska,
itxaropen aundirik guregandik ezta.

2

Ezkondu giñan baiña ondorengorik ez,
alkar apa1 maitatzen eztaukagu errez.
Andrea zapuztua, ni erdi negarrez,
ta neskazar guztiak or dabilta parrez.

Andreak:

3

Biurritu gera ta maitasuna koko,
gizona olakoxe txepela dalako.
Len bezela jostatzen eztiot lagako,
kontserbatu bear det iltzen danerako.

Gizonak:

4

Ni iltzea nai luke artzeko berria,
neretzako ez al da txit penagarria?
Onek edukiko du biotza arria,
erruki aundi gabe nigana jarria.

Andreak:

5

Entzun nai badezute esango det dana,
errukia banuan gizonarengana.
Nai zuan garaiean jartzen nion lana,
bere paltaz galdu du ain gustoko plana.

Gizonak:

6

Pentsatu ditugula andrearen paltak,
entzun bear ko ditu nigandik galantak.
Maleziosa danak xelebrezko tranpak,
egundaiño eztizkit zuzen jarri anakak.

Andreak:

7

Bera petrala danak txarrerako griña,
errespetorik ez ta gaizki itzegiña.
Ezagutu dedala ipurdian miña,
ezkerrez ere banaiz orrentzako diña.

Gizonak:

8

Ni eskubitik eta ori ezkerretik,
sekula eztu izan ziñezko arretik.
Ondo ezia dago eskola txarretik,
eztu asko jan bear nere bizkarretik.

Andreak:

9

Engaiñatu nindun, bai, len gizarajoak,
berak jan nai lituzke nik egindakoak.
Gizon prestu batentzat arrazoi bapoak,
txarragorik eluke emango zapoak.

Gizonak:

10

Engaiñatu nuala or dabil kontari,
lenengo amari ta urrena aitari.
Alperrik ariko naiz ni ari ta ari,
eztio begiratzen kristauen plantari.

Andreak:

11

Oraiñarte guzian izan det kaltea,
merezi etzuana orri ematea.
Neri gustatutzen zait garbi esatea:
inpernura bedenik nai nuke joatea.

Gizonak:

12

Izaten zanik ere olako trastorik,
nere baitan enuan pentsatzen askorik.
Mundu ontan eztago guretzat gustorik,
andreak ezpainau ni maite arrastorik.

13

Etsipena artu det andrearengandik,
inpemuko tristura datorkit barrendik.
Jauna, lagun zaidazu nundik edo andik,
esperantza Zugana badaukat oraindak.

Goiz-Argi, 1974-VII-3

Begira nola gabiltzan

1

Lenago ere badakizute
nik noraiñotsu dakiten,
azkena ona izaten baiño
errezago da ekiten;
al baldin bada okerrekotik
bide zuzenera irten,
eztakiana asi dedilla
norbaitengandik jakiten,
munduan dagon lanik zailena
danen gustoa egiten.

2

Mundu ontako izaera da
alde batera laburra,
bestera berriz arpegi ondo
ematen ezta samurra.
Egia baiño askoz geiago
nagusitzen da gezurra,
mai bat bezela ipiñi zuen
gure Jaungoikoak lurra,
emen batzuek gozatzen dute
eztiz ederki muturra.

3

Ta beste asko larru gorrian
jangairik gabe gosiak,
Europar zerbait, Aprikan erruz,
zer esanik ez Asiak.
Zenbat arraza bere sailletan
Amerika lur luziak?
Ozeaniak ere baditu
lendik pertsona-klasiak,
ontarakoxe egin zuten da
mundua onela ziaik.

4

Paraje otzak egon beaute
iparrean da egoan,
nik jakinduri asko eztaukat,
entzundakoa gogoan.
Ondo igerri diote noski
mundu au nola dagoan,
orain gizona or omen dabil
ainbat milloika legoan,
kabituz ezin zaizkigulako
emengo destierroan.

5

Beldurgarrizko aurrerapenak
entzuten ditugunak gaur,
baiña oraindik oso beartsu
milloika gizon eta aur.
Mundu onetan egon bear du
lautatik bat or nunbait lur,
gaiñerakoa urdin antzean
itxaso biurturik ur,
noiz egiña dan oraindik iñork
apenas dakian ziur.

6

Jakintsu asko ariko dira
iaiokeriz buru austen,
denborarekin entzuten degu
zer asmatutzen dituzten.
Gauden lekutik ez al degu ba
ixpillu ori ikusten?
Batek bestea izututzeko
ainbeste akulu-ezten,
etorkizunen beldurrez beti
armamentuz aberasten.

7

Ni lo nagola amets egiñez
albiste auek datozkit,
mundua egin zuten unetik
biraka dabil geroztik.
Eguzkia ta izar guztiak
illargiaren arunztik,
urrutietan zirin egin du
emengo zenbait egaztik,
an ez omen da iñoiz ikusi
azkarragoko tximixtik.

8

Gizona sortzez sortu bazan bein
beti zerbaiten inbiriz,
bere burua desegintzen du
ezin ase dan egarriz.
Orain askotan joaten omen da
mundutik kanpora berriz,
jabea duten leku zabalak
itxi naiean elorritz,
besterenaren zale dalako
aurreko zarren jatorriz.

9

Erreparoa jartzen bagera
guda-kondaira zar bati,
gizona baita osatzen eztan
goseak dagona beti.
Illargia ta or beste zerbait
egon beaute urruti,
ortxe dabilta toki arrotzak
biurtu nairik barruti,
ori bai dala Jainkoangana
ez izatea beldurri.

10

Urte gutxian ikusten degu
makiña bat alderantzi,
len dotoreak ziñaten oiek
bai trajez ederki jantzi!
Mundu zarrari nai lioteke
beste zati bat erantsi,
joaten zaizkigu beetik goraiño,
berriz goitik beera jetxi,
Jainkoak kargu artu baiño
len obe lioteke utzi.

11

Gorputza il da munduan utzi,
anima soil-soil bestera,
emengo lanak nagusiari
zer diran erakustera.
Premizkoena an izango da
kontzientzizko jazkera,
gezur da tranpa ta inbusteriz
eskatatuko ezkera,
limurtzen eztan aren etsaia
an sartuko da auspera.

12

Pekataria naiz ni ere txit,
eztaukat ezer santutik,
baiña oraindik eztidate eldu
deabru zarrak anketik.
Bide lasaiak utzi ditzagun,
igaro zail da tartetik,
zerbait erosi nai baldin bada
Jesus onaren bentatik,
gure errukiz odol emanda
joana da mundu ontatik.

13

Elizaratzen geranok beintzat
sarri entzuten deguna:
esku emanaz agurtutzeko
alboan dagon laguna.
Gauz ori balitz biotz-biotzez
asmoz leial da kutuna,
zuk badakizu ederki asko,
Mesias alguztiduna,
latiña zukan bukatu zan da
larri dabil euskalduna.

14

Negar da marru jaio giñan da
begira nola gabiltzan,
bekaizkeria lagun artuta
deabruaren langintzan.
Kristo apala gaitz orrengatik
gurutzeturik jarri zan,
berarengana makur gaitezen
lapur eskubian gisan,
gizon iltzaille zenbait bezela
ez biotz-gogorrak izan.

La Voz de España, 1974-X-II

Mendaro Txirrixtakari

1

Jaungoikoari eskeintzen dizkat
mundu ontako pausoak,
ildakoentzat izan gaitzen
al dana biotz jasoak.
Txirrixtakaren oroimengarri
jarri ditzagun bertsoak,
ari begira egiña naiz ni
iñoiz algara gozoak.

2

Bertso politak argitaratzen,
artarakoa zan berez,
ura zan baiño obeagorik
izaten ezpaita errez.
Urte askoan munduan bizi,
azkenean illa zarrez,
amaika gazte jarri-azia
aozabalka ta parrez.

3

Bizi bearra berekin ditu
guretzat ainbat istillu,
umore ona bear danean
bat nola jarri kaskaillu?
Txirrixtakaren kondaira ori
orra non dagon ispillu,
Euskalerrian bearrezko zan
gaztediaren jostaillu.

4

Txirixtaka zer gizon-modu zan
oraindik etzaigu azten,
ura etzegon arrapatzerik,
nolanai ezpaizan asten.
Berekin zuen doai-mota bat
bertsoak xelebregazten,
ark bazekian neskatx gazteai
irrintzi egiñerazten.

5

Jakin naiean iñor balego
nik esango det zergatik,
kaballero bat bazirudian
jazten bazuan gorbatik.
Iñori parra egiñarazten
etzan ariko gordetik,
itxura txarrik batere gabe
nabarmentzen zan berdetik.

6

Bertso-jartzaille artista oso
ta ez izlari motela,
zar askok beintzat pentsatutzen det
ori jakingo dutela.
Parregarritzko itz-neurtuz arek
betetzen zuan papela,
nai zuanari gero salduta
diruz gizendu sakela.

7

Gazte denboran egoten nintzan
ni iñoiz ari begira,
kargu artzea merezi nuke
gezurrezkoak badira.
Alakoxe bat, ai!, baletorke
berriro Euskalerrira,
karta bat egin bearko zaio
lenbailen dagon tokira.

8

Azkenerako joan bear degu
guztiok tropa zarrera,
aldez aurretik artzea obe
an bear degun sarrera.
Ateziari enaiz asiko
ezer galdezka txarrera,
esango diot joan nai nukela
Txirrixtakaren aurrera.

9

Nere esanik eztedilla joan
ildakoaren kaltean,
lendik sartuta izango al du
aita San Pedrok atean.
Nik Txirrixtaka ikusten badet
mundu ontatik joatean,
broma txiki bat jarri beagu
ango elizen batean.

10

Ontaz aurrera eztet ikusten
iñora bide zuzenik,
txorakeriak eztu ekartzen
azkenerako gauz onik.
Ta ixiltzera noa zearo
ezaguera au izanik,
endreatzea ezpaita ona
zeruan dagon gizonik.

La Voz de España. 1974-X. 17

Pedro Mariren omenez

1

Len Pedro Mari Otañotarra
bertsolaria izana,
arrasto nastuz sortu giñanok
zorra badegu zugana.
Iruditzen zait deia dedala
nunbaitetikan nigana,
alperkeriak bentzutu gabe
egin bearako det lana,
zu bezelako gizon-talde bat
ai baletorke gugana!

2

Bost aldiz noski igaro ziñan
itxasoz putzu senduan,
ni gutxiago ibilia naiz
makiña baten moduan.
Zuk azi ziñan seaskatxo
biotzez maite zenduan,
zedorrek ala idatzi eta
guk irakurri genduan,
pentsatzen det nik gaur ote zauden
santu aundien onduan.

3

Zuk bazenduan euskeragana
maitasun beroko griña,
nai egon arren jaiotetxetik
urrutira aldegiña.
Atzerritarrak nagusitzeak
ark ematen zizun miña,
zure bertsoak emen dauzkagu
zerbait ulertzeko diña,
ain maite zendun lur apur ontan
dago alkartu eziña.

4

Gauza guziak ezin litezke
buruz ibili batean,
Pedro Mariren izateatzaz
iñoiz oroitu gaitean.
Esaten dute gelditu zala
Arjentinako partean,
berriz onuntza itzuli gabe
an egongo da lurpean,
aren azkena izan omen zan
ni jaio nintzan urtean.

5

Irurogei ta lau urte aurten
izango ditugu noski,
nere iritzi laiñopekoa
ez baldin badago gaizki.
Goibeltasunak uxatu eta
jarri dedilla eguzki,
Pedro Mariren gorantzan orain
ipiñi nai ditut itz bi,
ikusi gabe maitatutzen det,
ezta aipatzea aski.

6

Eztakienak ezin lezake
gaur aundi-aundirik neurri,
ala ta guztiz bertso onetan
nai nizuteke ezarri.
Barruan arra nabaitutzen det
xirriki-xarraka sarri,
Pedro Mariren edertasuna
datorkit oroimengarri,
bere maillako bat ikusten det
gaur Eizmenditar Basarri.

La Voz de España, 1974-III-31
(Goiz Argi, 1974)

Neguan uda

1

Otsaillaren bederatzian
goizean seitako mezan
izandu nintzan. Ura giroa!
Preskura aundirik etzan.
Geiegizkoa zala zioten;
guk al dakigu zer esan?
Ixi-ixilik egonda obe
bere naia egin dezan.

2

Negu gorria izanagatik
ai, ura giro aparta!
Batek ziona: "Onek badakar
legorte edo urpalta".
Asko jakiñak erakusteko
egin dezatela karta,
noski ez dira ortan asiko
alperrikakoa da ta.

3

Gizon zar batek esan zidana
perira joanda lengoan:
sasoi onetan aritza berde
ark ez duala gogoan,
Ama Birjiña Martxokoetan
len izaten dan moduan;
ontatik pentsa Egille orrek
zer eskubidea duan.

4

Diran egunik laburrenetan
oinbeste eguzki eder,
beti lanean gelditu gabe
batek egin lezake ler.
Gu lendik gaude txit nekatuta
egal, eskubi ta ezker,
alaxen ere Egilleari
eskeiñi nai diot esker.

5

Belarra zorrotz gora naiean
maiatzean bezin trebe,
geroko dauden ekaitz petralak
askorik izutu gabe.
Iruditurik bai ote diran
beuren buruaren jabe,
nola zurituta jarri diran
japondar aranak ere!

6

Baldin gogoak eman ezker
erreza dauka oztutzen,
eskubidea berekin du ta
ori etzaio aztutzen.
Ale geiegi itsatsi gabe
ezpazaizkigu beztutzen,
goizeko lore polit oiekin
ni ez naiz asko poztutzen.

7

Ipar aldera gogor dijoaz
antzarrak eta usuak,
zenbateraiño alaitzen nauten
oien egada goxuak!
Kantari berriz entzuten ditut
birigarro ta zozuak,
udaberria badatorrela
esaten dute gaixuak.

La Voz de España. 1975-K 19

Manuel Olaizolari

(Uztapideren *Lengo egunak gogoan*
liburua irakurri ondoren)

1

Gure Manuel Olaizolari
jartzera nua bertsuak,
berak tajurik ez du izan da
komeni zaizka batzuak.
Oraindik ere gogoan dauzka
gazte zaneke pausuak,
eldu ta gero egindakoak
buruan ondo jasua,
aitormen danak merezi ditu
orren gizon doatsuak.

2

Atze-atzetik ni ere zerbait
azaldu naiean nabil,
Uztapideren putzu ortara
ezin egin degu murgil.
Bere denboran botea badu
millaka bertso biribil,
gure Jainkoak nai duan arte
bat ezin baliteke il,
gaitzak gorputza jipoitu baiña
animaz indartsu dabil.

3

Uztapideren idazte onek
jarri dit eginkizuna,
berarengana amarratu naiz,
ez izan balitz lizuna.
Liburu onak maite nai ditut
nola baitan garizuma,
zu, irakurle, esan nai dizut
txit on egingo dizuna,
zeruak ere zuzenarentzat
geiago du maitasuna.

4

Bekaizkeriz ta inkurriuan
ez genduke bear mintza,
baiña askotan lagun urkoa
mendratu nairik gabiltza.
Tankera ortan ez det ikusten
Uztapideren eskeintza;
iruditzen zait gau eder batek
prestu egindako intza,
mundu guztiak jakin dezala
eraman duan biritza.

5

Morrontzan eta artzantzan, biak,
latzago berriz basuan,
nekea zer zan gaztea zala
noski ikasiko zuan.
Goizean egunsentian asi,
jo ta ke egun osuan,
ikazkin batek egur galantak
ibili bear besuan,
txanpon batzuen antsiarekin
ez oso lan erosuan.

6

Esaten digu gaiñera berriz
itaiarekin garitan,
bizkar gaiñeko otz aundi gabe
eguzkiaren argitan;
beti makurka jardun bearra
atseden gabe gerritan,
goizean begiz jotako lanak
ezin txauturik sarritan,
oitura aiek bukatu ziran
ta... gaur zer Euskalerritan?

7

Etxe aldetik omen zebillen
gerra zabaldu zanean,
geroxeago Antiguako
zerbezerian lanean;
lendik lagunak zirala eta
Zepairen aldamenean,
bertso-saioak lasai egiñaz
gogoa zegoanean,
militar jantzi bearrarekin
komeriak azkenean.

8

Une batean aipatzen ditu
gure kastaren berriak,
garrantzi asko ez dute baiña
jakin ditzala erriak;
liburu eder bikain orretan
nik dauzkat irakurriak,
olako gauzak izaten dira
iñoiz atsegingarriak,
malkoz bustita gelditu nintzan
len legor neuzkan begiak.

9

Uztapideren gizatasuna
iruditzen zait bapua,
ta bestek ere txartzat nola jo
ori dan bezelakua?
Gerra ondoren urte batzuek
prestu igarotakua;
orrek ezpaitu beera jatziko
beñere lagun urkua,
San Josek ere maite duala
jarriko nuke lepua.

10

Pentsatu orren ona ez dala
besteren gauzak nastia,
gure Jainkoak nai ote zuan
ni lan onekin astia?
Betiko penik izan etzezan
artu zuan emaztia,
bera edadez aurreratua,
andria gazte-gaztia;
ori egiten duten gizonak
asko izaten ezia.

11

Nere barrengo berotasuna
ia biurturikan su,
ipiñi dezun liburu ortaz
zerbait mintzatu natzaizu.
Sortu giñan da Euskalerriko
semeak gera ni ta zu,
orain oitura dagon bezela
emango nizuke musu,
lotsa gabeko ausarta banaiz
barkatu bear didazu.

La Voz de España, 1975-III-16 eta 19

Goierriarrak txalotuz

1

Bertso-jartzaille asko dauzkagu
Goierri alde orretan,
gauza orrekin ez naiz jarriko
batere kezka txarretan.
Emen bekoak egongo gera
zabarkerizko zorretan;
zaletasuna sendotu dedin
Euskalerriko lurretan,
nik alegiñak egingo ditut
lengo oitura zarretan.

2

Bertso-muiñaren argitasuna
nai dezute erakutsi,
gaur gaur bezela Euskalerrian
ori ez da ondra gutxi.
Jakiñagatik ezin gerala
goi-maillaraiño iritxi,
gaur eta biar ezpada ere
gerta litekena etzi,
anai maiteok, jarri lanean,
ez ikaratuta utzi.

3

Bertso-jartzaillez ta irakurlez
ez gera gutxi ugaldtu,
zugaitz gazteok atozte gogoz
naiz gu laister samar galdu;
biotz-biotzez maitetasuna
sorterriari zabaldu,
mutur batetik edo bestetik
esku banarekin eldu,
Jainkoak ere, komeni bada,
zerbait lagunduko al du.

4

Beste gauzarik ez det esango,
datorkidana burura;
gogoratzen zait garai bateko
oitura eder zar ura.
Azken arnasa ez det eman nai
Jesusen etsai-modura;
adierazi nai nizuteke:
izan zazute ardura,
iltzean ere joan bear degu
bertso-jartzaille zerura.

5

Oso esan-nai ezberdiñetan
bertsoaren bost puntuak,
illera oiek moldatutzeko
ez du balio tontuak.
Deusik pentsatzen ez dan tokian
badaude eskarmentuak;
nere lanetik atera ditut
ederki asko kontuak,
arriturikan ontarazi nau
ni zuen pulamentuak.

6

Gaia nunaitik inguratzen da
itz neurtu batzuk jartzeko,
beldur aundirik apenas dagon
bertsolaritza galtzeko.
Aitak beñere etzidan esan
lan astunari eltzeko;
neroni naiz ni olakoxea
dixparateak sortzeko,
gogo-paltarik ez det aurkitzen
eun urte arte zartzeko.

La Voz de España, 1975-IV-20
Goiz-Argi, 1975-V-7

Indotxinako gerra

1

Pentsatu utsarekin lertzen zait biotza,
zenbat zauritu eta zenbat eriotza!
Gugana iritxi da amaitu dan otsa,
Indotxinako gerra ez da izan motza.

2

Mundu ontako martxa dago ikusia,
biotz berarentzako gauza itxusia;
komeni zaielako saldu-erosia,
iñoxente askori kenduaz bizia.

3

Indarkeria dago mundu ontan jabe,
iñoxente gaixoen errukirik gabe.
Pentsatuko ezpalitz askoz ere obe,
an gaur gertatzen dana zer kuixidade!

4

Gauza ori ikusia nazute neroni,
ta zerbait esatea ez al da komeni?
Nere antz bera duen iñoxente oni
arrika bota die ainbat suzko burni.

5

Bear bezela gauzak zuzen esateko,
nun det jakinduria kapaz izateko?
Burnia ona balitz okela jateko,
goseak dabillanak ez luke kalteko.

6

Gerrateak baditu amaika komeri,
apurtxo bat bederik badakigu ori.
Ez dakianak nola erakutsi neri,
naiz irakurri arren kondaira ugari?

7

Esango dizkitzutet geienak egiak,
ezpaizuen betetzen tokirik ogiak;
borrokan geienean ijeran zorriak,
ta kolkokoak berriz amorragarriak.

8

Begi gorri-gorriak gerrateak ditu,
askotan bizkor asi ta nekez gelditu.
Berrik egin nai ez ta len diranak aitu,
zigor gogorrarekin bazterrak zatitu.

9

Makiñatxo bat seme eta ainbat aita,
palta dituan asko oroituko baita.
Orrenbeste urtean gerran ibilita,
gerorako badute kondaira polita.

10

Urte-pilla batean alkar iltzen gudan,
beste lanikan gabe neguan da udan.
Ez dakit danak ondo esango ditudan,
egia danik ere jartzen bainaiz dudan.

11

Indotxinako penak ditugu luziak,
oneraíño ekarri dizkigu aiziak.
Millaka tiroz illak, ta zenbat gosiak?
Munduko izaera gorrotoan ziak.

12

Gorrotoa sortu zan deabruagandik,
bera ibiliko da munduan oraindik.
Aitu dan itxurarik ez dauka iñundik,
kea azaltzen zaigu nundik edo andik.

13

Lendik dakiguna da zer dan gerratea:
besteren mende soil-soil makur egotea.
Zuk ipiñi zenigun munduko nekea,
danon Errege orrek emazu pakea.

La Voz de España. 1975-V-9 eta 10.
Goiz-Argi. 1975-V I-4

Pelotariak

(Pelota-Federazioaren
berrogei ta amargarren urteburuan.)

1

Al dan lenena bete bear det
nik egindako promesa,
edo bestela gaindu liteke
zabarkerizko laiñeza.
Pelotariak gaitzat ipiñi,
ortan dago esamesa,
garai batean sonatua ta
ona zan Mondragonesa.

2

Gorputzez oso lerdena eta
bi eskuetara trebe,
ta jokatzaille korajetsua
batere beldurrik gabe.
Azkoitiarra irten zitzaiion
bere lantegian jabe,
ta ondorengo urte askotan
ori egondu zan abe.

3

Anka ta besoz etzan izango
maingua eta errena,
Mariano da txapeldun izan
ta bizi zaigun zarrena.
Ainbeste urte nola igaro
lezake batek aurrena?
Makiña batek aipatua da
Atano irugarrena.

4

Noizebait ere eldu zitzaion
txapela utzi bearra,
ainbat urtean danen nagusi
egonda azkoitiarra.
Aundiak ziran Gallastegiren
sasoia eta indarra,
an itzali zan bein sekulako
len ona zanaren garra.

5

Gallastegi au eibartarra da
ta ez gizona txepela,
guk ez dakigu zergatik baiña
sartu zioten epela.
Tamalgarria iruditzen zait
bazterreratu zutela,
Barberitori jokatu gabe
eman zioten txapela.

6

Guk ez dakigu gauza nola zan,
goibelduta bai laiñua;
askotan ala entzuten degu:
badala trumoi-soiñua.
Aurrera asko luzatu gabe
ontan bukatzera nua:
jokatu gabe pozik jarri zan
txapeldun riojanua.

7

Lan egiteko txit onak dira
sasoia eta gogoa,
jakinduria lagun dutela
zer gauza obeagoa?
Bere denboran ez da izandu
ergela eta zoroa,
Barberitori txapela kendu
ziona degu Soroa.

8

Argitaratzen ez dauzkat emen
burutazio illunak,
Arriaran da Garzia Ariño
izan ziran txapeldunak.
Amaika aldiz alkarren aurka
jokatutako lagunak,
pelota baitu bere maitea
aspalditik euskaldunak.

9

Oien urrena txapeldun zana
badakizute: Ogeta;
gezur kontari ez naiz ariko
danontzako da obe ta.
Nere izkuntza gixarajoan
jarri nai ditut lau letra,
jakinduria azaldutzero
txit beartuak gaude ta.

10

Deus ezertxo're ez nekian da
lengoan esan didate
Elorrioko semea dala
Ilario Azkarate.
Bat aruntza ta bestea onuntz
zabalik dauzka bi ate,
"Pelotaria izan da ori"
benetan askok diote.

11

Atano amargarrenarentzat
orain zer esango det nik?
Onentzat ez da iñor iritxi
pixuz geiago ez danik.
Aundiagoa etzala ori
etzaiot paltako penik,
urte batean txapeldun bazan
orren txikia izanik.

12

Juan Inazio menderatuta
txapeldun izan zan Lajos:
irabaztea gauza ona da
noski izango zuan poz.
Retegik berriz aurea artu
sasi tartetik atajoz,
ta aurten ere txautu zuala
esanaz ementxe gatoz.

13

Erasundikan irten zaizkigu
txit pelotari azkarrak,
beuren sailletan dotore asko
bai neurtu ere baztarrak.
Kentzen dituzte aurrekaldean
ipiñitako zakarrak,
gaur gaur bezela txapeldun daude
osaba-illoba naparrak.

14

Oker aundia egon liteke
uste gabeko balantzan,
ordu askotan ni gertatu naiz
ikaraz edo zalantzan.
Itz neurtu batzuk ipintzen ditut
txapeldun oien gorantzan,
ez dakit zer lan egingo nuan
pelotarien baratzen.

15

Oroitzen zaizkit gazte nintzala
nere aitonak esanak:
lenago ere ba omen ziran
pelotariak izanak.
Berrogeitamar urte oietan
egin dituzuten lanak,
jendeak asko maite zaituzte,
agur, agintari jaunak!

La Voz de España, 1975-VII-10 eta 11

* * *

Sail au ere arkitu degu S. Kalonjeren esku-
idazkietan, baiña ondoren beste bertso au duala:

16

Pelota degu gauza polita
ta entzuleok aditu,
gezurrarekin txikia dana
nik ez baitet nai aunditu;
zenbait senditan negar galantak
iñoiz jarri izan ditu
jokalariak galtzearekin,
ezin gindezke arritu.

Pelotaren izaera

1

Laguntzen badit Jainkoak edo
ark emandako zentzuak,
bururatutzen asiak ditut
alako ipui batzuak.
Danak desegin baiño lenago
nere aragi trontzuak,
pelota artu eskuan eta
jartzera nua bertsuak.

2

Geure gustoak ondo betetzen
daukagu lanik zaillena,
askotan oker gerta liteke
asmo ortan dabillena.
Euskalerrriak berekin duan
jolaskerik apaiñena,
nik ere laister pelotan asi
bear det alajaiñena!

3

Esan didate ona nukela
lantegi ortan astia,
erakusteko prest jarri zaizkit,
txit ez-leialak eztia.
Jainkuak ere igual naiko du
nik pelotan ikastia,
neronek nuke kalte galanta
egokiera uztia.

4

Tontoak gutxi jaioko dira
gaurko mundu azkar ontan,
nik nere baitan pentsatuzten det,
ez bein bakarrik, askotan.
Esan didate irabazia
badagoala pelotan,
sasoia arrunt joan bitartean
ezin egongo naiz lotan.

5

Pelotarekin izango dira
makiña bat joko-mota,
jokalariak modu askotan
dantzatzen dute pelota.
Ni arritzen naiz ez etsitzea
oinbeste gizonek jota,
zimeltasuna aparta du ta
loriak nai dizkat bota.

6

Ume txikiak pelotarekin
txit pozik ibiltzen dira,
ta sasoikoak pelota joaz
nekatzeko ez kupira.
Aldamenetik zar eta gazte
pelota orri begira,
mundu guztitik pelota billa
badatoz Euskalerrira.

7

Ezjakiñari jartzen dizkate
buruaustea ta lana,
nai dan bezela ez dago errez,
egingo degu al dana.
Epailariak ikus dezaten
bakoitzak iritzi bana,
naiago nuke gaur bizi balitz
pelota sortu zuana.

8

Asko jakiña ez izan arren
itzegingo det benetan,
asmo orixe nik ibiltzen det
beti ez, bai geienetan.
Pelota degu kirol polita
lur zoragarri onetan,
umezurtz baten antzera dabil
baratzik ederrenetan.

9

Pelota degu arpegitsua
jira guztin maratilla,
indar aundian dijoanean
ondo arrapatzen zailla.
Norbaitek oker jipoitzen badu
arrastaka bide-sailla,
eta urrena berriz joko du
goien-goieneko mailla.

10

Euskalerrian sortu ziñan da
noranai zaude irtena,
ondo dakigu zu etzerala
maltzurra eta kirtena.
Oinbesteraíño jipoitutzeak
neri ematen dit pena,
pelotariok jotzen zaituzte
merezi etzendukena.

11

Leku askotan ibiliarren
etzai azaltzen ama,
ta aitak berriz kontzientzia
aspaldi astoak jana.
Mundu onetan umezurtz onek
zer bizimodu darama?
Pelotaria, erruki zaitez
pelota gaixuangana.

12

Euskalerrriak eman dizkigu
makiña bat pelotari,
begien bixtan ikusten dana,
ez det ukatuko ori.
Esaten dute maite dutela,
baiña ezin sartu neri,
oinbeste jipoi ola ematen
merezi ez duanari.

13

Entzun, pelota: nere bertsoak
artu itzazu loretzat,
Euskalerrriak ez du izandu
joko oberik beretzat.
Noizebait ere jarri zizuten
zigor gogorra legetzat,
etsaiak plazan erasotzean
emandakoak zuretzat.

14

Nork daki ondo noiz izandu zan
pelotaren asiera?
Bakoitza bere iritziz emen
izketan ariko gera.
Negarti dagon umezurtz gaixo
beartsu baten antzera,
besteren mende erabiltzeko
norbaitek egiña zera.

15

Pelota baita, batek jo eta
besteak jo, errukitsu,
ormarik ere ez du ikusten,
berez jaioa da itxu.
Dudan bazaude, zu, irakurle,
nik agindua egizu:
galdegiozu gaur edo biar,
berak esango dizkizu.

La Voz de España, 1975. VIII-31 eta IX-2
Goiz-Argi, 1975-1X-17

Luziano Ormaetxeari

1
Zoriontsua mundu onetan
daukana langille-fama,
izan diteken kargik onena
bere gaiñean darama.
Geronen onez ipiñi zuan
gure Jaungoikoak lana,
alperkeria dalako beti
bizio guzien ama.

2
Bertsorik nola eztedan jarri
nik sei illabete ontan,
esaten dute bertsolariak
danok ote gauden lotan.
Beste gauzetan gertatzen dana
gertatu oi da bertsoan:
irabazirik eztan tokian
galera dago askotan.

3
Denbora eta askatasunez
gu ibiltzen gera urri,
irakurleai adierazteko
nai gendukenaren berri.
Geronen itzak zeñek neurtua
nola izaten dan sarri,
pentsatu bear ondo bertsoak
zeiñi eta nola jarri.

4

Gaurko aleak zuretzat dira,
Luziano Ormaetxea,
barka zaidazu baimenik gabe
Zeruko Argia-n jartzea.
Bolara ontan ikasi dezu
ondo zer dan supritzea,
baiña pazientziz eraman dezu
bizkarrean gurutzea.

5

Urte osoa igarota da
irten ziñala etxetik
Basurton dagon sendaetxera,
zerbait osatzeagatik.
Otoitza pranko egiñik gera
egun ura ezkeroztik,
gaitza lagata ea lenbailen
altxatzen zeran oetik.

6

Urtebetean pasa dituzu,
Luziano, oiñaze latzak,
baiña jakin det eztituzula
iñoiz galdu esperantzak.
Emen guziok supritu bear
pobre eta aberatsak,
arrosak baiño askoz geiago
sortzen baitira arantzak.

7

Bi makuluak bota arrika
ta ikusiko zaitut aurki,
kolpean ezta iñor sendatzen,
baizik poliki-poliki.
Sanoaldi ta okerraldiak
pasa dituzu gizonki,
orrelakoak bere garaian
Jaunak ordaintzen badaki.

8

Esan didate laixter zerala
zerbait ibiltzeko eran,
zuk ez dakizu berri orrekin
nik zer poza artzen dedan.
Zu bertsozale purrukatua
beti nola izan zeran,
bakar batzuek kantatuz ia
gu laixter juntatzen geran.

(Makinaz idatzitako orri batetik artutako bertsoak.
Goiko aldean, “*La Voz de España*-n argitaratuak”
idatzita dago. Laugarren bertsoak, berriz, *Zeruko
Argia* astekaria aitatzen du. Ez dakigu zer izango
dan. A. Z.)

Nere lagun bati aipamenak

1

Bertsoak ipintzea pentsatu det aurten,
urte au joan baiño len autsi edo eten,
Bergarako Iza-ri zaizkanak esaten,
lendik ez dakitenak ikasi dezaten.

2

Bergaratar bat badet lagun Donostian,
txintxoia izan dana bizitza guztian.
Gudari ibilia itxaso bustian,
bera ontzian eta putzua azpian.

3

Bere izen-deiturak Tiburtzio Iza,
askok ezagutzen du Donostian aixa.
Ibiltzen da gizon on prestu baten gisa,
aspalditxo onetan txit lagun gabiltza.

4

Baditu irurogei eta zazpi urte,
ez dauka kupirarik beste ogei arte.
Bakarren baten paltik izaten badute,
ni noski lenagotik eramango naute.

5

Aundia ez da baiña beti gizon-puska,
maitatuz egin nai det marruska-marruska.
Urean igaroa bere soldaduzka,
ondra ta Osasuna goiko maillan dauzka.

6

Argitaratu nai det nik gogoratua,
al dedan txukunena bertsoz moldatua.
Gazte-gaztea zala itxasoratua,
ontzian ibiltzeko zegon zoratua.

7

Emeretzi urtetan ziñan mutikua,
baiña gaztetasuna ez da betikua.
Habanako neskekin itzegindakua,
orain aiton polita, orduan guapua.

8

Ni ez naiz Amerikan izan egundaiño,
beste paraje asko ere dauzkat laiño.
Zu pozik joango ziñan noski Kuba-raiño,
onuntzean zarrago aruntzean baiño.

9

Milla bederatzireun ta ogeitazortzi,
itxasoko gudari orduantxe jantzi.
Ia iru urtean etziñan erantzi,
ogeitamarrean zuk amaituta utzi.

10

Gaztea geienean odoletan bero,
zoro baten modura jarraituaz ero.
Bizi bearko dala oroitzen da gero
lurrarekin borrokan edo pelukero.

11

Neretzat ez da lanik beiñere errezten,
onenak asiko naiz ni adierazten.
Neskatx politenari noiznai ille mozten,
edo bestela andre ederrak orrazten.

12

Au esan dedala ta ez iñor txunditu,
len daukan izen ona nai diot aunditu.
Gajuak ere iñoiz apaindutzen ditu,
al badet ez det ori nai nik ofenditu.

13

Ugarte txikitxo bat Donostian bada,
oso izen polita dauka Santa Klara.
Udako egunetan joera du ara,
une bat igaroaz lagun zarretara.

La Voz de España. 1975-XI-6 eta 7

Mundutarrok biurri

1

Urte Berrian sartu gera ta
ill ez geranok bizirik,
gizon azkarren aurrerapenak
entzunez ta ikusirik.
Ez det berezten Amerikarik
ta ain gutxi Errusirik,
antz berdiñean Txinako murail
edo ormazko esirik;
indartsu oiek bai al daukate
guretzat irabazirik?

2

Zugaitz aundiak txikiarentzat
askotan beintzat kaltean,
iñola ezin indarririk artu
estalirik ostopean;
beste batzuek amarratuta
deabruaren katean;
utsa litzake libre bagiña
mundu ontatik joatean,
Urte Berria, lagun zaiguzu
Jainkoarekin pakean!

3

Biurrikeri-paltik ez dala
gizona sortu zanetik,
nik dakidana au da bat beintzat
igarleen esanetik:
alde ederra badagoala
gizonera gizonetik,
zerua lortzen errez ote da
dabilkigun utsunetik?
Jainkoangana gutxi joango
da oso bide zuzenetik.

4

Praille zar batek esan zidana
oraindik daukat goguan:
“Lengo maitasun-kutsu geienak
aldegin dute eguan.
Deabru zarrak berriz irentsi
gizatasuna traguan,
ez ote gera berriz jarriko
barrunbe obeaguan?
Ni sinimentsu ilko naiz baiña
ai zeñen triste naguan!”

5

Noski ulertzen ez dago zailla
nundik datorren okerra,
lanik egin nai ez duan ori
mundu guztian alperra.
Besteren bizkar jan nai askota
au ez da asmo ederra,
bere adarrak biurriturik
maltzur dabillen akerra,
pakea baiño askoz geiago
onek maitatzen du gerra.

6

Ezjakiñean balego iñor,
ni zerbait erakutsita:
gaur edo biar geldituko naiz
nere begiak itxita.
Danok daukagu egin bearra
Jaungoikoari bixita;
besterik ezin degun garaian
derrigorrean etsita,
munduan maite ditugun gauzak
bein betirako utzita.

La Voz de España, 1976-I-7

Baserria ta baserritar zarrak

1

Baserri gaixo, errukarria,
mintzatuko naiz zugatik,
amaika kolpe eginda gaude
Jaunari esker gogotik.
Bizkarra beti lanez betea
eta arin patrikadatik,
aurrera ere ez du izango
nork igurtziaren paltik.

2

Geure denboran izandu degu
sosegu ainbeste neke,
beste apur bat jaulki ta ere
gutxitxo esango nuke.
Baserritarak zerbait anparo
ondo merezia luke,
ainbat izerdi boteaz dago
diru gutxigatik merke.

3

Lanean merke ari ezkerro
ain ziur dago galera,
orretxengatik gaur sendi asko
inguratzen da kalera.
Gaztea berriz zazpitatik sei
erreztasunan zale da,
baserriak len zuen izenak
burua jetxi du beera.

4

Gaur askok parre egiten dio
baserriari aurrean,
nundik jaten dan oroitu gabe,
lasaitasun ederrean.
Bestela ondo biziko eta
gu zertan jardun lurrean?
Merezi luken esker on ori
ez dauka oso urrean.

5

Gezurra dabil aruntz-onuntza,
gordean dago egia,
ni jakintsua ez izan arren
botatzen diot begia.
Zuzentasunik ez dan tokian
maitasunaren premia,
bestek egiña jan nai dutenak
kentzen digute erdia.

6

Baserritarrak ez du ikusten
iñundik ere laguntzik,
agintariak, ez al zaizute
biguntzen zuen biotzik?
Erregu-bidez itzegiteko
nik ez det izango lotsik,
azken egunak igarotzeko
artuko genduke pozik.

La Voz de España, 1976-III-28

Gazte baten aginduz

1

Neskatxa batengana nago txoraturik,
pausorik geienetan artaz oroiturik.
Nik ezin det gabean berriz egin lorik,
neretzat ez da gauza mingarriagorik.

2

Nere biotz gaixoa or ari da urtzen,
tanto txiki-txikiak etzaizka ixurtzen;
ta laister asiko zait mundua agurtzen,
maite duan kuttuna ez bada limurtzen.

3

Garbi azaltzen ditut nere maitemiñak,
danok ez dabilzkigu iritzi berdiñak.
Burutazio asko dauzkat utsegiñak,
ontzat ez dizkit artzen maite atsegiñak.

4

Pekatu dan gauzik nik ez diot eskatzen,
nere asmoetara ez balitz prestatzen.
Alper-alperrik nabil burua puskatzen,
korapillo gogorra zailla da askatzen.

5

Bazenekizu zer dan ziñez maitasuna,
asko nai dizun onek esaten dizuna.
Neretzat errukirik iñoiz ez dezuna,
lurpera badiljoa nere osasuna.

6

Maiatzeko loreak eskeintzen dizkitzut,
gauzak izaten dira bat bestearen truk.
Ta ori bera egin bear genduke guk,
nik zu bezela maite baninduzu ni zuk.

La Voz de España, 1976-V-15

Aingeru eder bat

1

Nere begiak ikusten duten
aingeru eder, laztana,
beste guztiak bat eginda ere
gutxiagoa ez dana;
txikia zala ainbat guraso
arriturikan zeuzkana,
ta orain berriz ni bezelaxe
asko txorutzen dauzkana.

2

Ni ariko naiz nere aldetik
orri loreak tiraka,
zatarragoak mundu honetan
milloiak daude millaka.
Alper-alperrik ibiltzea da
zulo miatzen miaka,
danak atzera utziko ditu
bai errez asko pillaka.

3

Aingerutxoa, zu nola zaitun
gaur begi askok maitea,
oputzen dizut jator on batek
beretzat eramatea.
Gure Jainkoak emana dezu
edertasunez dotea,
zuretzat ez da paltako iñoiz
eskua zeñek botea.

4

Begi askoren gustagarria,
landare bikain, gaztia,
gertatzen zaizun edertasuna
zeiñi ote da kostia?
Zure esanak gogoan artzen
nik igaro det astia,
ta pentsatu det obe dedala
berri-emale astia.

5

Berri-emale batek zedozer
jarri bear egunkariz,
gezur txikiak tarteka iñoiz
irixten ezpada egiz.
Bide berriak danak utzita
lengora joango naiz berriz,
aingeru bati abestutzera
al dedana edergarriz.

6

Aberastasun arrigarria
berdingabea ederrez,
zure doaiak ondo esaten
nik ez det izango errez.
Ezin liteken gauzik ezpaita
Jaungoikoaren indarrez,
diamantezko gorputza dezu
jantziz estalia urrez.

La Voz de España. 1976-VII-11

Nik bai nai

1

Nai nukelarik astera noa
maitasunezko kantetan,
nere biotzak agindutzen dit
ez ibiltzeko txantxetan.
Kontzientzirik ez det jarriko
loiez beteta anketan,
ezaugarritzat au ipintzen det
ez nabillela tranpetan.

2

Albiste eder zoragarri bat
eldu da Euskalerrira:
maitasunezko ainbat itz goxo
askoren autan jarri da;
nere begiak ere dabilta
neskatxa bati begira,
ta ezpadute berenganatzen
laister itxutuko dira.

3

Nere begiak esaten dute,
ta berdin biotz gaixuak:
“Ez ote digu onuntz egingo
guk maite degun uxuak?”
Egun garratzak daramazkigu,
nun dira une goxuak?
Iñoiz ez dira aztuko noski
tamalgarritzako pausuak.

4

Barreneraiño sartu didate
ta ezin joan zait tristurik,
esaten duten aiña iñola
nabil ezin sinisturik;
maitagarriak ez ote didan
iñoiz emango eskurik,
kontrabanduak nabarmentzeko
ez dagola arrixkurik.

5

Nik maitasuna eduki arren
barrendik sutsu ta bero,
uste ez dala gerta liteke
nai ez dan aiña endredo.
Amets guztiak uts biurtuta
zer atarramentu gero?
Batek askozaz obeko luke
lasai bizitzea ero.

6

Nere barrengo sentimentuak
bota nai ditut kanpora,
dijoazela zeru aldera
laisterka gora ta gora.
Esaten dute alperrik galtzen
ote nabillen denbora,
au ola balitz banijoake
isats-makurka txokora.

7

Biotza daukat gaixorik eta
burua berriz kezkatu,
animak ere ordu danetan
lasaitasunik ez beti.
Gabea lorik ezin eginda
nai nukeana urruti,
nere biotzak amodioa
ni maite nai ez naun bati.

8

Gaiztoa dala esaten dute
barrena sartzen dan arra,
jatea ere galerazten dit,
argalduko zait bizkarra.
Nere sortzetik beartsua naiz,
aita ere det maiztarra,
amodioa badaukat baiña
ixtimazio kaskarra.

9

Ni bezin triste bai ote dago
basoan zugaitz igerrik?
Nik nai nukenak badaki baiña
nere jarduna alperrik;
munduan ez da naiago nuken
urrerik eta zillarrik,
neretzat ez da paltako noski
zoritxarreko negarrik.

La Voz de España, 1976-VIII-28

Maiteko nukenari

1

Maitasunaren oroitza onek
nola jartzen dit biotza?
Euskalduna dan toki danetan
zabaldu nai nuke otsa.
Zartu baiño len nere bizitza
mundu ontan ez da motza,
maite dedanak ni nai banindu
emango lidaken poza!

2

Pitxi eder bat nere oroitzan
aztu eziñik dagona,
onenbesteko buruaustea
nik ez det izango ona.
Ai, ezagutu izan banitu
orren ama ta amona!
Ez ote daki ni beregatik
suprimentuan nagona?

3

Argi-paltarik ez du beiñere
izarrez eta eguzkiz,
sendagilletzat bera nai nuke
maitasunez ta errukiz.
Beste gauzarik ez da izango
ederra dalako guztiz,
aitak eta amak nunbait sortua
ain gogo aundiko eztiz.

4

Pentsamentuan beti dabilkit
nabillen leku danetan,
aitortuko det maite dedala
biotz-biotzez benetan.
Ori besterik ez nuke nai nik
kariñoz diran lanetan,
edo bestela geldituko naiz
esklabo mundu onetan.

5

Zeruan zer dan ez dakit baiña
ez det ikusten lurrean
aingeru polit apaiñagorik
nere begien aurrean.
Ludian noski ez da izango
egoan da iparrear,
baldin ezpada nitaz gustatzen
ez naiz planta ederrear.

6

Nola nabillen jakiten badu
ez al da errukituko?
Nik aiña maite duan beste bat
ez du nunai aurkituko.
Soro eder bat guk bezin ondo
iñork ez luke laituko,
biok ezkontzen ezpagera gu
besterik ez det zaituko.

7

Mundu ontako nere naia da
orrekin ezkontutzea,
berak nai balu artuko nuke
pozik asko gurutzea.
Jaungoikoari nai dakiola
bide ortan amiltzea,
gaiñerakoan nik ziur daukat
tamalgarrri ibiltzea.

8

Arantz aundi dun arros ederra,
zugañ badaukat nik traba,
egun guztia pentsamentuan
eta amets batean gaba;
esnaratzean izketan asi
itxi ta iriki aba,
dakidalako ain zerala zu
ama onaren alaba.

9

Asmo onekin burruka nabil
puskatzen kanpo ta barren,
pentsatu zazu zerbait birtutek
zugana ote nakarren.
Zu gabetanik nere bizian
izango nintzake erren,
ez nuke naiko ezetzik entzun
beartzen bazaitut, arren!

10

Xakar apur bat inun ez dezun
ixpillu garbi-garbia,
iruditzen zait eguzkiaren
irteerako argia.
Ezin geiago maite zaituztet
nik zu ta Euskalerrria,
testamentu bat balitz bezela
emen uzten det jarria.

La Voz de España. 1976-IX-5

Bilintxen arrazoiak

1

Aurten eun urte il zan gizon baten jabe
norbaitzuk egin dira; zeñentzat ez obe?
Bilintx igaroa zan ainbat atsekabe,
ezkondu zan artean emazterik gabe.

2

Bilintxen zenbait bertso gazte-gaztetandik,
bein buruan sartuta or dauzkat oraindik.
Berriak ipintzea gogoak eman dit,
laguntzen badit beintzat, nun dabillen, andik.

3

Bilintxen irudi bat balego urretan,
komeniko litzake donostiarretan.
Noski bearko degu geienok zorretan,
sartzen geranok aren bidetxigorretan.

4

Bilintx gelditu zala Donostian ixill,
eun urte bete dira sendo ta biribill.
Aren aurka egin baiño naiago nuke ill,
praille-morroï bezela jarraitzaille nabill.

5

Belauniko jarrita goizean goizena,
erregututzen diot al dedan maizena.
Segundo Moises daukat nik nere izena,
Bilintx maita nai ezik ilko ez naizena.

6

Bilintx zan bertsolari buru argikoa,
biotzaren zain sakon, erdi-erdikoa;
ta kontzientzi jator, txukun, garbikoa,
Donosti maite ontan Euskalerrikoa.

7

Geienok badaukagu lendik aditzera,
barrengo maite-miña goaz eskeintzera,
zor daukagun gai ori zerbait ordaintzera;
merezia daukazun Bilintx, zu ain zera.

8

Nik zuri bakar batzuk ikasi nizkizun,
ia nereak aintzat artzen dizkidazun.
Idatzirik daukazu ainbat eginkizun,
zu etziñan ibiltzen amodioz lizun.

9

Bilintx, apaiña zala zure nortasuna,
sinistu inbidia ematen nazuna.
Geldi baiño lenago txit soil Osasuna,
ni ere azaltzera nua maitasuna.

10

Askok badakizute ez nagola gazte,
lan danak ondo egin ezin bainezazke.
Alare ederrenak mintza nai nituzke,
Bilintxi asiko naiz doai orren eske.

11

Batengana ez nago gustatuta gutxi:
neskatx muxu-gorri bat, izena du Lutxi.
Asmoa nai nioke bertsoz erakutsi,
kokotzaren azpian nai nuke igurtzi.

12

Ezin aserik nabil barrengo gosia,
nik nai nuken ori da izenez Luzia.
Gauza bat badaukat nik buruan pasia:
erregali egingo diot orrazia.

13

Aurrez aurre beñere etzait egokitu,

begiratzeko ditut milla zirrikitu;
maitasun-sortzailleak doai asko ditu,
nere atsegingarri ojala balitu!

14

Idatzita zaiñetan ipintzen dedanez,
errukituko al da nere oroimenez;
borroka nabillela amodio-lanez,
gogoia galanta ta iñoiz ausartzen ez.

15

Elduko balitzaiket Jaunaren laguntzik,
salto egingo nuke teillatutik pozik.
Munduan ez nuke nik obe nuken gauzik,
zortzi egun baiño len ezkontzea baizik.

16

Lutxirekin banego obe ezkontuta,
barrengo maitasuna ondo apainduta;
zalantzak eta dudak erabat kenduta,
neretzako lirake poza ta konduta.

La Voz de España, 1976-X-16 eta 17

Xalbador il zan

1

Bizia diogu guk Jaungoikoari zor,
ordaindu gabe ez da geldituko iñor.
Zu, bai, iritxi ziñan zerura, Xalbador,
gu ere joan gindezke baldin bagera nor.

2

Urepelgo semea, ain biotz biguna,
Jaungoikoak beretzat eraman ziguna.
Bolara bat igaro degu txit illuna,
berrrio argitzera dijoa eguna.

3

Argitasunak datoz Xalbadorrengandik,
zeruan dago eta bialtzen du andik.
Iruditzen zait atzo il zala oraindik
beragan mintzatzea gogoak eman dit.

4

Urepelen jaioa, ume bezela aur,
gizon giar sakon bat epaitzen dute gaur;
alakoa izaten ez da oso samur,
itz batetik bestera ixilduaz labur.

5

Berez urepeldarra, poeta apaiña,
barrendik ausnartua izkuntzaren zaina.
Euskera zeïnek maite Xalbadorrek aiña?
Atsekabe orrekin il zan, alajaiña!

6

Xalbador, Donostitik egiten dizut ots,
zu maite zinduztenak apenas dauden otz;
noiznai omenaldiak eskeñiaz zorrotz,
Euskalerrriak ez du gelditu naiko motz.

7

Euskal lur maitatzaille txit egitazkoa,
arrunt egizalea ta arrazoizkoa.
Bera izanagatik mugaz arunzkoa,
asko maitatzen zuan gure Gipuzkoa.

8

Alkarri josi nairik Euskalerrri dana,
au zan Xalbadorrek txit maite zuan lana.
Notak eraman ditu Jaungoikoangana,
ez dakit lortuko dan ark asmo zuana.

9

Ametsak nere baitan egin ditut nik bart,
Xalbadorren asmoak oroiturik ainbat.
Zazpi puska alkarri josi ta berri bat,
au ez ote digute epaituko txartzat.

10

Euskalerrriak daukan muga ta ainbat ertz,
lotu ote leizkean bart egin det amets.
Askok ipintzen dute kopet-ezurra beltz,
arrazoi duanari nekez esan baietz.

11

Aspaldi asi ziran askatasun billa,
gauz ori egongo da aspaldian illa.
Korapilloz lotuta joan dan urte-pilla,
demokrazirik bada askatu dedilla.

12

Euskaldunok maitatu bear degu alkar,
aurkitzen geralako zazpi anai bakar.
Bakoitza bere alde ez ibili zakar,
bestela ondamendi beltza onek dakar.

La Voz de España, 1977-I-30

Udara negu biurtu

1

Euskalerriko itxas-ertzetan
au ola komeni al zan?
Udaberria zan bezelaxe
udara dijoa martxan.
Leengo bi urte oietan arro
ibili ziranak dantzan,
aurten ez dira asko gozaten
arkakosoak ondartzan.

2

Ondartzan ekaitz gogorra eta
askotxo daude etxean,
beztu nai eta eguzkirik ez,
kezka txarra biotzean.
Aburrimentu tamalgarria
Kontxatzaz gogoratzean,
baiña potaje ederragoa
gizonarentzat eltzean. (1)

3

Giro kaskarrak egiten ditu
ondar gaiñera joateko,
gordean dauden lore onenak
bixtara eramateko.
Danontzat gaizki izan ez dedin
gizonak ez du kalteko,
eltzean baba bigunagoak
izango ditu jateko.

4

Broman bezela ari naiz eta
ez beintzat iñor zapuztu,
trixte daudenak nai nituzke nik
al banu pixka bat poztu.
Eguzki ori gordean dabil,
ezin du jenderik beztu,
aurten oraindik berotu baietz
egingo nuke apustu.

5

Kaltegarrizko moda berriak,
zenbaitek ez du usteko,
Abisinian bezela asko
konporme dira bezteko;
zakurrak aiña inportantzi ez
diranak erakusteko,
baiña aizeak agintzen die
lotsik badute jazteko.

6

Kezka bizitan aurkitzen da bat
zerbait pentsatuta ere,
deabrua ta bere lagunak
sarri ikusten dirade.
Mundu onetan nola dabiltzan
ainbeste milla mirabe,
zoritxarra ta inpernuari
geroko bildurrik gabe.

7

Nabarmenkeri asko sortu zan
beste laterri oietan,
ta orain berriz moda ortatik
naikoa daukagu bertan.
Arrai politak ikusten dira
Donostiako uretan,
beuren gorputzak erakusteko
ez dabiltzanak dudetan.

8

Nere iritzi labur axalak
orra txit leial agertu,
nik ez det iñor itxusitu ta
ain gutxi berriz edertu.
Dударik gabe Jainkoa ere
bere onetatik lertu:
neguan uda eman zigun da
udara negu biurtu.

La Voz de España, 1977-VIII-7

(1) *La Voz de España*-n agertu zanez, bi bider etxean punturako. Inprentaren edo uste gabeko oker bat dala derizkiogu. Urrengo bertsoak eltzeko babak aitatzen baititu. Orregatik, bigarrengoan eltzean bear dualakoan, orrela idatzi degu.

Perurenari

1

Gazte bat aipatzera ni pozak narama,
gudaritzara berak txapela darama.
Perurenak baditu aita eta ama,
erdia oiena da semearen pama.

2

Gurasoak lenbizi, semea urrena,
geienok badakigu zein dan Perurena;
arri aundiarekin sortu dan onena,
garbi or gelditzen da egiten duena.

3

Ejenplu dotoreak badauzka emanak,
makiña bat ere bai arritu geranak.
Soldadutza baiño len menderatu lanak,
leitzarrak txautu ditu penomeno danak.

4

Zenbaitek ezpaizuan orrekin usterik,
mailla orretaraiño iñoiz irixterik,
Perurena jarri da txapeldun gazterik,
orren gorputzak ez du indarra besterik.

5

Orain soldadutzara joan bearra zuan,
Estaduairengana serbitzu osuan.
An ere artzen badu arririk besuan,
ez dute ikusiko gora ezin jasuan.

6

Soldadutza eginda etortzen danean,
berriz ekingo dio gogotsu lanean;
irureun kilo jaso bear ditunean,
orduaz izango da sasoi onenean.

7

Orren amona baten anaia lagun det,
Donostian bizi da ta ezagutzen det.
Bertsoak ipintzeko esan zidan arek,
beldurrez egon gabe motibua badet.

8

Ez natzaio jardungo ustez kalterako,
bizia opa diot nik eun urterako.
Ez da epea motza mundu ontarako,
ez ote zaio iñor aurka aterako?

La Voz de España, 1977-X-13

Negua oraindik

1

Entzun nituan gauzak nik bart arratsian,
gaiñera ez arreta oso narratsian;
ipiñi nai nituzke zuzen ardatzian,
ez nuke gelditu nai ixilik etxian.

2

Albisteak entzunik Atxukarroandik,
argibidea bear nundik edo andik.
Elurtea degula diote oraindik,
aurtengo negu onek txarrena eman dik.

3

Len ere izan ziran artzaiaren otsak,
etzuen ikaratzen elurraren otzak.
Ardiak jokatzeko erren ankamotzak,
irabazi dizkanak orain dauzkan lotsak.

4

Artzaiak arrazoirik inondik bai al du?
Elur gaiñetik aize txit epela eldu.
Mendi geienetatik urtu ta bialdu,
larogei ardi oiek ez al ditu galdu?

5

Artzaia izango da igarle iaioa,
ardi eta aizeak zaitzeko jaioa.
Andrerik baldin badu ark errosaioa,
ardiak ola galdu, kaskar arraioa!

6

Emengo mundutarren zenbait pronostiko,
nik ondo sinisteko ez ditut askiko.
Elurteak berriro tirata ostiko,
auntzak zaitzera joanda ni ez nau bustiko.

7

Zortzi egun dijoaz deus otzikan gabe,
otsailla egin da lore batzun jabe.
Epel jarraitzen badu guretzako obe,
ezpaldin bada laister zerbait nobedade.

8

Ogeitasei otsaillak gaurko egunean,
gaitzerdi, portatu da epel azkenean.
Ondoren asiko da martxoa lanean,
danok jarrai dezagun bere izenean.

9

Ez al du ekarriko elurte trasterik,
jaunak, ez degu bear martxoan besterik.
Asmatuko baldin balu(1) ortan Berastegik,
nik ez neukake berriz idazten asterik.

10

Artzaia, asiko naiz barkazio eske,
broman ari naiz eta piatu zindezke;
tranposua naizenik etzazula uste,
alkar ezagutzera iritxi gindezke.

La Voz de España, 1978-III-1

(1) Silaba bat geiegi lerro ontan. Kalonje oso nekez deskuidatzen zan ortan. Inprentaren utsegiteren bat izango da.

Zartzaroaren soiñekoa

1

Au atarramentua zartu geranean,
zaiñak indar-urritu gorputz danean.
Len iñoiz jartzen giñan umore onean,
orain burutazio goibel, illunean;
sasoia joanean,
gauza ez lanean,
mirgindu janean,
doi-doi azkenean;
urte geiegi ez da ona soiñean.

2

Lagun egingo balu danon Egilleak,
burutik joan baiño len arrunt illeak!
Gu izan gera beti pobre langilleak,
ala esango dute dakiten prailleak;
oiek epailleak,
ez gezur zaleak,
ogi-emaleak,
ain zuzen aleak,
zerurako bidea ipintzailleak.

3

Inguratu geranok zerbait zartzarora,
igaro degunean gazte-denbora;
ia nor mintzatzen dan gai ortaz iñora,
aginpidean dauden gizonen ondora;
obe izango da begiratu gora,
datorkit gogora,
naiz ez jakin nora,
joango al gera leku pakeagora!

4

Gaztea bezin alai zarra nola bizi?
 Zaiñetako odolak joanak igesi.
 Al dala bizitzeko gaia nai erosi,
 asko piatzen danak barrenak egosi;
 odol danak nasi,
 osasuna basi, (sic)
 derriorraz ezi,
 noren kontra asi?
 Ikusten ez deguna dago nagusi.

5

Zer itxaropen dauka mundu ontan zarrak?
 Ixilik ezpadago arrazoi txarrak.
 “Galdu aiz” esaten du makurtu bearrak,
 ankak errez trabatu aiena ta larrak;
 pausoak baldarrak,
 joan ziran indarrak,
 alperrik marmarrak,
 entzun, zar samarrak:
 “Noizko kimu-berritu gure adarrak”?

6

Danak berdin jotzea ez dago egoki,
 batzuek zarrak ere zeñen ederkil!
 Berdintasunik emen ezin erabaki,
 arrazoiari eman bear zaio toki;
 kontuan eduki
 gerala gizaki,
 al bada apalki,
 ez arrotuz jeiki;
 zein norentzat berezi Jesusek daki.

7

Adin orren medioz aulduta gaudenak,
 nora joan ote ziran gure almenak?
 Eraman zizkiguten gozorik onenak,
 itxaropen arrotza daukagu geienak;
 txautzen gaitu penak,
 amets nabarmenak,
 erdoia duenak
 aitortu obenak;
 bestela nola izan Jaungoikoarenak?

8

Guk zer egingo degu? Nolabait al dana,
eguzkitzan itzala bakoitzak bana.
Uzten badegu beintzat oiaren imana,
berriro itzultzeko apa1 beregana;
azkeneko lana
dator guregana,
lengoentzat zana,
ori daukat jana;
askok ez dute artzen zarraren pama.

La Voz de España, 1978-V-13 eta 14

San Antonio egunez

1

Lan geienetan gauza ona da
pazientzia artzea,
edo bestela gerta liteke
anka zuloan sartzea,
modu berean an edo emen
zer esan asko sortzea;
barkatu, baiña erabaki det
sei bertso-ale jartzea.

2

Garagarrillak amairu, beraz
San Antonio eguna,
Ereñozuko baillara ortan
aurten ikusi deguna:
amona batek kantatu zuan,
ta... bai eztarri leguna!
Senarra gertu egonagatik
eldu zitzaion laguna.

3

Amona ori urte askoan
munduan det nik lengusu,
emakume bat bikaiña eta
ain gustagarria dezu.
Gizonezko bat rau jeiki zan da
barrendik zetorkion su,
apaizak bixtan zeuden lekuan
antxen eman zion musu.

4

Maitasun gisa biotz ondoan
alako gauz bat nabaitu,
mundu ontara sortu giñanok
iñoiz dominatzen gaitu.
Zartuta ere irudipenak
naiz ez gaztetandik oitu,
gaurko mundua zer dan jakiñik
ez giñan asko arritu.

5

Gizonezkoak azaldu zuan
axaleko maitasuna,
pekaturako asmorik gabe,
ura zan edertasuna!
Nere lengusu amona orrek
eman zion erantzuna,
lengoagandik luza didazu
sei urteko osasuna.

6

Danok il bear degun bezela
gauzak olaxe dirade,
bazirudian egin ote zan
andre berri baten jabe;
joan da lepotik elduta musu,
bai eman ere dotore,
senarraren da ango apaizen
baimenan arrasto gabe.

La Voz de España, 1978-VI-24

Aralar

1

Donostiatik giñan da irten
aruntz joanean-joanean,
bazterretara begiratuaz
gogotsu bide danean.
Lendabiziko esan nuana
an iritxi giñanean:
“Au izango da txarrean baiño
obea giro onean”.

2

Joan-etorri bat egin genduan
Santa Teresa egunez,
alaba, suigai eta anaia,
osatu nintzan lagunez;
ulertuazten saiatuko naiz
zerbait idazten jardunez,
goi-aingeru bat aitatu nai det,
bera San Migel degunez.

3

Lekunberritik Baraibar urren,
gero ez bide zaillean;
pagadi gazte, lerden, bikaiñak,
milloika metro saillean.
Gora igota mendi xanpal bat
Aralarren egalean,
San Migel antxe aurkitutzen da
ipiñirik apalean.



Segundo eta bere billoha Ander, Aralar mendiko San Migelen.

4

Aralar mendi apal orretan
San Migel dagon tokia,
nekez bederik iritxia naiz
arturik erabakia;
San Donatora begiratzeko
bai paraje egokia,
lengo guraso sinesmentsuak
aintzakotzat edukia.

5

Mendi-gain danak eguzkitan da
laiñoa zegon beetan,
nik nai ainbeste ikusi gabe
jetxia nintzan penetan.
Komeni bada maite gaitzala
gu San Migelek benetan,
Euskalerrriak pitxi politikak
badauzka euskaldunetan.

6

Aspaldikoa izan bear du
ermita sendo uraxe,
maitasunez ta giartsu dago,
egin zuten bezelaxe.
Ez beintzat pentsa gezurra danik,
egia baita olaxe,
bestela lendik dakian bati
galdetu berealaxe.

7

Ez nintzan iñoiz iritxi izan,
ai, ura gauza apaiña!
Animatikan maitatu nuan
mendi polit aren gaiña;
ezin nezake adierazi
atsegin zitzaidan aiña,
berriro ere joan nai nuke nik
bizkorra ez nago baiña.

8

Ni ez ote naiz ara elduko
San Migel egun batean,
aingeruari otoitz egiñaz
biotzez asmo betean?
Bein edo iñoiz ibili banaiz
lagun urkoen kaltean,
zure premian gertatuko naiz
mundu ontatik joatean.

9

San Donatotik Aralar tarte
utsune ederra dago,
guda-garaian bultzian illun
igaro nintzan lenago;
ta orain berriz berebilletik
zerbait ikusita nago,
erri politak badaude antxe
bat, bi, iru ta geiago.

El Diario Vasco. 1978-XII-20

Segundo Kalonjeren esku-idazkietan sail au ere azaldu da, baiña amar bertso dituala. Amargarrena auxe:

10

Irurtzundikan Altsasuraino
deitzen diote Barranka,
gazte banego orrera joan da
dantzatuko nuke anka,
erri guztiak ezagutuaz
danak banaka-banaka,
gatzelerarik ez dakit baiña
ez da ori Salamanka.

Gizona munduan

1

Asieratik erakutsi du
aurtengo Urte Berriak
soiñu berdiña joko dutela
lengo zarrak eta biak.
Arrunt ukatzen dituzten arte
arrazoi garbi-garbiak,
aztu eziñik gogoan dauden
kondaira tamalgarriak,
beste laterri askoren gisa
nola ez EuskalERRIAK?

2

Ez al da ala gaiztokerira
jaio giñala mundura,
Adanen seme Kain biurria
nabarmendu zan modura?
Bere anaia iltzeko asmoz
ark piztu zuan guda ura:
bera betiko kondenatuta
Abel Jainkoak zerura,
orain guretzat zer ote daukan
badaukat naiko ardura.

3

Lagun urkoa, iritzitxo bat
labur jarriko dizut nik,
nere belarriz ez det entzuten
eunetatik bi gauz onik:
millaka edo milloika urte
asieratik izanik,
gudarik gabe ezin bizi da
mundu onetan gizonik,
Kainek anaia il da geroztik
ez daukagu maitasunik.

4

Maitasunaren leku apala
estaltzen degu gorrotoz,
Kainen lanaren ondoren txarrak
oraindik indartzen datoz.
Onak banaka egongo dira,
gaiztoa geiago askoz;
ainbat erritan ez da aurkitzen
bear litzaken ainbai poz,
aurrerapena goraka baiña
laguntzaz beeraka gatoz.

5

Animak eta kontzientziak
zer gogorazten didaten:
jatorriz degun ezker aiena
bein ezin degula eten.
Barruti zital petral ortatik
ez al degu bear irten?
“Lagun urkoa maitatzen det nik”
txit samurra da esaten,
askoz zaillago iruditzen zait
ona ta piña izaten.

6

Beti leian nik ikusten ditut
itxasoa ta arroka,
piztiak ere alkar mentzutzen
ozkaka edo mokoka:
gizona berriz armak egin da
suzko burni gaiztoz joka,
kanpantorretik beera bezela
antziñatik dator soka,
Luzifer zarrak nunai jartzen du
gure arteko borroka.

7

Beartsuari ipintzen dizka
makiña bat lan da neke,
guda-garaian alkar iltzen da,
beste egunetan merke.
Geure begiz guk ikusten degu
itxutzeko ainbeste ke,
bekaizkeririk ezpagendu ta
biziko bagiña pake,
gutxieneko zazpitatik sei
santu egingo giñake.

8

Nik aitortzen det geroko orrek
beldur ematen didala,
mundu ontara zoritxarrean
geiegi sortu giñala,
Jesukristoren pauso tristeak
errukitsuak zirala.
Argaltasunak makurtzen gaitu
errez nola edo ala,
esan liteke deabruaren
morroiak asko gerala.

El Diario Vasco. 1979-I-12
Goiz-Argi, 1979-I-20

Aur-kontu

1

Lenengo lana nik auxe nuan,
orain berriro aur-kontu,
irabaztera saiatua naiz
al dedan ainbeste puntu.
Loxintxerua ez izan arren
iñoiz jartzen det kontentu,
len ikasita dauzkatalako
dozena-bat ume-kantu.

2

Ixil bolara igaro eta
beste aldi bat negarrez,
nik au gozatzen ez det izaten
iñoiz uste bezin errez.
Umeak asko bear du, baiña
diran ordu danak lo ez;
udaberrian, ondo bagera,
apaindu bear det lorez.

3

Obe bearrez ipiñi naute
aur zaintzearen langintzan,
garai bateko sasoiarekin
naiago nuke argintzan.
Billoba eta ni biok orra
munduan nola gabiltzan,
neroni ere onen moduko
ume len izango nintzan.

4

Oraindik ere oroitutzen naiz
ni aitonaren besuan,
iztargaiñetan astintzen nindun
pozez maitasun osuan,
kokotza eta bere bi ezpain
laztanduz nere musuan;
aren bizarra etzan leguna,
zulatu egiten zuan.

5

Ankaz ta besoz egonagatik
nagia edo baldarra,
besterik ez dan tokian beti
bada norbaiten bearra.
Bart arratsean ez naiz entzuna
lenengo ume-negarra,
gazte ergela baiño obea
ez al da aitona zarra?

6

Umerik iñon daukagun arte
maitasunez nai lagundu,
amar urtetik onuntz ez gera
esnegaiñetan egondu;
lana eginda ordaiña zuzen
bederik izan bagendu...
Gure orde z bai besteren bizkar
dabiltzanak munduz mundu.

7

Abendua ta ilbeltza beti,
jakiña, eguna motxian,
esan zidaten: "Zuretzako lain
lan izango da etxian".
Mutikotxoa jartzen didate
lau kurpillezko kotxian,
egunez ni naiz onen gidari,
aita-amak arratsian.

8

Zerutik irten dan albiste bat
nigana iritxi da-ta,
billobatxori abestutzeko(1)
doairik nik ez det palta.
Ziurtasunik ez daukat baiña
berak ipintzen du planta,
osasuna ta jan-gairik badu
aziko dala galanta.

9

San Juan bezperan jaioa da ta
adin au ez du besterik,
ezagutzen det jalea dala,
nabarmendu da gazterik:
zuku, potaje, txitxia janda
ez du utziko postrerik,
gure Jainkoak naiko ote du
ni ta au laian asterik?

10

Euskaldun batzuk jakingo dute
ni berriketan arita,
billobatxo au nik nere ustez (2)
ez daukat aspergarri ta.
Aurpegi mardul sendoarekin
begiak zabal jarrita,
begira nagon ainbeste aldiz
gogoratzen zait Txirrita.

El Diario Vasco, 1979-II-21
Goiz-Argi. 1979. III-3

- (1) *El Diario Vascon*-n: *billobari*. Baiña billobatxori idatzi degu, neurria osatzearren.
(2) Berdin.

Mauel Lasarteri

1

Zutaz mintzatuko naiz, Lasartetar Manu,
ez gaiztoa zerala entzun izan banu.
Ez det penik izango, ta ain gutxi damu,
gaur, biar eta etzi, berdin etzidamu.

2

Lasarte, zuk dezuna apaltasun piña,
asko arrotu gabe, gizon baten diña:
bertso-saio ederrik badezu egiña,
ta lautatik irutan danen eragiña.

3

Aotikan aora berdiñik gabeak,
ta ipiñitakoak oraindik obeak;
zu ontzen ari zera bertsoen legeak,
mereziak zenitun San Jose loreak.

4

Naparroan jaio ta Gipuzkoan bizi,
ezagun da nolana etziñala ezi;
bakardade bizian familia azi,
zeruan goiko mailla zuk dezu merezi.

5

Ezbearrak albotik ematen du izu,
gaitz ori zuri ere peliatu zaizu;
Jesus ona nola dan gu guztion maisu,
ark sari berezi bat ordainduko dizu.

6
Atsekabe ta penak askotan jasoa,
ederki badakizu zer dan erasoa;
baiña Jaunarengana sinismen osoa,
ori da izatea ziñez gurasoa.

7
Nork artu lezakean zure nortasuna,
urrezko bertso oien aberastasuna.
Doi-doi ibili arren iñoiz Osasuna,
Espiritu Santuak dizu maitasuna.

8
Gizon apalarentzat Jaunak badu begi,
ez du nai arrotzerik munduan geiegi;
al bada zabarkeriz ez biurtu nagi,
Lasarteren moduan obe degu segi.

9
Bertsolari ederra, ain zera bikaiña,
eskola aundi gabe ikastun apaiña;
zu goraltzen al dana saiatzen naiz, baiña
ni ez naiz iritxiko zuk merezi aiña.

10
Euskaldunen artean jarri dezun poza,
zerutarra zerala zabaldu da boza.
Gaur Euskadik badauka lore aproposa,
ia danen gaiñera irten dan arrosa.

11
Kondaira bat ez al da zure meritua?
Zuzentasunarekin nago arritua.
Etzaizu damutuko Jauna serbitua,
gero izango zera berak saritua.

12
Openditu bazaitut edo egin, kalte,
iñola al badezu barkatu, Lasarte.
Zuk igaro dituzu amaika gizarte,
Jaunak lagun deizula geiago pasa arte.

El Diario Vasco, 1979-IV-11 eta 12 / *Goiz-Argi* 1979-III-31

Donostiko menditxo bati

1

Ni Donostian jaio nintzan da
bai bizi ere oraindik,
eteten ez dan sentimentu bat
joka ari zait barrendik:
ta albiste au zabaldu nai det
Euskalerrian emendik,
baiña nai nuke jakin dezala
lenbizi Oriamendik.

2

Lenengo arnasa artuko nuan
mendi onen belaunetan,
babes-itzala egin dit beti
ta maitatzen det benetan.
Aiton bezela ezagutua
ditudan urte danetan,
irurogei eta bederatzi
ditut aurtengo onetan.

3

Irurogei ta bederatzi nik
dauzkat aurtengo urtean,
azaroaren ogei ta bosta
ez da oso apartean.
Ni amak ala egingo nindun
baserri xar-xar batean,
berriagoan sartuko al nau
Jainkoak eramatean.

4

Nere sorrera or izango zan
mendi baten bazterrean,
amaika aldiz ibilia naiz
pozik bere bizkarrean;
ego aldetik Ernani muga
egutera ederrean,
ta iparrera begiratuta
Donosti aurre-aurrean.

5

Donostiara begira dago
ta Emaniko mugari,
berez aundia iñoiz ez baiña
gertakizuna ugari.
Ez diran gauzak iñoiz ipintzen
ezin gintezke gu ari,
orren albora urbilduko zan
makiñatxo bat gudari.

6

Donostiako tontor polit bat
dalako Oriamendi,
Ernio aiña izan ez arren
askok jotzen dute aundi;
ainbat kondaira dauzka beregan
gizalditikan gizaldi,
entzuten danez erromatarrak
iritxi ziran aspaldi.

7

Jesukristoren munduratzea
ezagutu zan baiño len,
esaten dute erromatarrak
azaldu zirala emen;
onuntz ekarri arrokeria
ta nai zuten ainbat kemen,
azkenerako aruntz etsita
gelditu omen ziraden.

8

Euskalerrriak txit antziñatik
beldurgarrizko naspillak,
etsai maltzurak lapurretara
arturik gudari-pillak.
Iñoiz izutzen etziralako
euskal lurreko mutillak,
emengo bosteun ezin mentzutu
onuntza zetozen millak.

9

Azken aldera gu zanpatzera
maltzur etorri ziranak,
oraindik ere joateko asmoz
apenas diraden danak.
Askatasuna nai genduke
guk lotuta bizi geranak,
alkar laguntzen ezpaldin bada
txit alperrikako lanak.

10

Millaka urte pasa dituzu,
Oriamendi, artzantzan,
galdetzen dizut: "Zu ez al zaude
izkuntz onekin zalantzan?"
Ni amiltzeko beldurrez nago
urrengo aize-balantzan,
Ama Euskera biziko al da
larpean dagon baratzan?

11

Gaitz mingarria sortu zitzaion
ur zikiñaren kutsutik,
ustelduaren kiratsa dagon
zingira edo putzutik;
ezin altxa da, eldu zaiozu,
Oriamendi, besotik,
ez da samurra izango baiña
ia jartzen degun zutik.

12

Oriamendi, zugana daukat
ezin ordaindu ala zor,
baiña ez pentsa zuk nere baitan
oroitzen ez danik iñor,
mundua sortu zanetik beti
izandu zeralako nor,
ta amaitutzen dan bitartean
erne egon zaitea or.

El Diario Vasco, 1979-XI-15 eta 16

Bertso-txapelketari

1

Txapelketa bat asi bear dala aurten,
ez da au berri txarra danentzako irten;
entzun det ainbat diru nola jarri duten,
tongorik ez da naiko, saia eramaten.

2

Urte ontan asita urrengoan buka,
amabost eguneko iraupena dauka.
Egin bearko dana saiatu ta zaunka,
ain lan astuna dala iñork ezin uka.

3

“Danak aitua dituk” ni nengon pentsatzen,
oparo ekin die dirua dantzatzen;
irabazia jarri bertsoa kantatzen,
neroni ere gutxi ez naute tentatzen.

4

Ez dezute moldatu dirutza motela,
ezagun da bertsoa maite dezutela;
ezin diteken gauza iñolaz bestela,
noren burura joango ote da txapela?

5

Bi sari zoragarri, nabarmenak oso,
lenengoa da eper, bigarrena uso;
oiek merezi dute egitea kaso,
bertso onak bota ta ezaugarri jaso.

6

Bertsolari artean jarri duten pesta,
auntzaren gaberdiko eztul-otsa ezta;
txapela zabala ta berreun milla pezta
norbaitentzat badaude, onenek nai ezta.

El Diario Vasco, 1979-I-11

Bertsojartzaille gazteari

1

Joxe Mari izena eder dezu eta
ondoren abizena legez Arrieta.
Bertsoak moldatzeko artzen dezu beta,
iñon utsegin gabe orrenbeste letra,
dotoretasun ori ez da berriketa.

2

Txit denbora gutxian eldu zaizun pama,
zerutik aingeruak botatako txalma;
abiadura aundian indarra darama,
ta ni ere maitasun poz orrek narama,
presaka ez ibili, artu zazu kalma!

3

Poza ematen dio zarrari gazteak,
ni beintzat alaitzen nau ondo ikusteak;
zarata zabaldu du zu ola asteak,
ta eskuak lanari legun eransteak,
bertsoari illeak txukun orrazteak.

4

Asieratik oso irten zera piña,
gustagarria baita zure artiriña,
Arritzeko moduan zaude itzegiña,
grazi ederrekoa eta atsegiña,
ona danak bear du jarraitzeko griña.

5

Alderantzia bada katura erbitik,
au askok aitortzen du biotzen erditik.
Tanto ederrak datoz zure izerditik,
eguzkiaren diz-diz berozko argitik,
ura edanda zaude iturri garbitik.

6

Zarrak deseginduta gazteak mundura,
antziñatik lege au noski izandu da;
alperrik jartzea da ortan errenkura,
nola ikusten degun itxasoan ura,
Arrieta alaxe dator olatura.

7

Ona zazpi bertso nik zuretzako jarri,
orain arte ez nekin ezer zure berri;
nai baldin bazinduzke gogoz irakurri,
ta or naizen batean perira etorri,
il arte izateko alkar ezaugarri.

El Diario Vasco, 1980-I-4
Goiz-Argi. 1980-I-12

Gaixotegian

(Doiñua: Esne saltzaillearena)

1

Esne-saltzaillearen doiñuan asita,
adorez jantzita,
gelditu nai nuke nik adierazita;
gaixotegira nago egiña bixita,
leku eder askoak dauzkat ikusita,
ankaren ondoezak ekarri-azita.

2

Ni ekarri ninduten Poliklinikara,
onuntz argitara;
sendatzen danarentzat toki polita da:
ankak ematen zidan animan ikara,
beste gauza bat berriz premian ijara,
makiña bat jenero sartzen det tripara.

3

Osatu nai genduke, nola gaixo gauden,
al balitz lenbailen;
sendagille jatorrak badabiltza emen;
zenbakia berreun da oitamairugarren,
gela batean gaude iru gizon erren,
zalantzan zai jarrita zeñek zer dakarren.

4

Nere anketan dago deabruzko arra,
da inpemutarra,
lo egiñarazteko oso prixti txarra;
berak miña eman da berak egin parra,
naigabeturik nago ni, aitona zarra,
badaukat sendagille onaren bearra.

5

Ainbat neskato polit gaur etxe onetan
premizko lanetan,
gaixoari laguntzen diote benetan.
Emen aurkitzen gera geure egunetan,
naiz erdaldunetan da naiz euskaldunetan,
geroago iltzen da esku legunetan.

6

Goibeltasunak datoz nere biotzera,
ezbear antzera;
entzule, gaur onekin arritzen al zera?
Etorri bezelaxe jira ta atzera,
pozik joango nintzake emendik etxera,
atxurra artu eta tipul jorrazera.

El Diario Vasco, 1980-II-24

Arrosari

1

Etxe-ormaren dotoregarri
loretan zauden arrosa,
alde batera ain ederra da
ematen didazun poza:
bestera berriz ezin nezake
atsegin aundirik goza,
ia lengoan joan ziñalako
kastillanekin Burgosa.

2

Aizu, arrosa, zure loreak
ez al dira tentagarri?
Naiago nuan ezpazinduten
etxe-aurre ortan jarri.
Makiña batek botatzen die
kiñua azkar alkarri,
lengo batean ibili naute
iru atsok larri-larri.

3

Arrosa onen albotik ez naiz
asko irteten iñora,
lengo batean azaldu zaizkit
onuntza iru *señora*.
Esan zidaten: “Ola ez dezu
errez pasako denbora;
nai al zenduke gu egunero
inguratzea ondora?”

4

Nola arraio utziko nien nik egin gabe kasorik?
Neri entzuten gelditu ziran
burua gora jasorik:
“Laguntza ona neukan nik baiña
ez det nai arkakosorik,
eta aien lagun bazabiltzate
ez eman onuntz pausorik”.

5

Batek esan du: “Nere gizonak
izena du Jose Jerman”.
Bestea berriz arrosa eske
gogor jarduten da teman.
Ezagutu det irugarrenak
zer korapillo daraman,
apaltasunik etzutelako
batere ez nien eman.

6

Zortzi bertso nik bota dizkiot (1)
arrosari aurpegira,
naiago nuke Euskalerrian
mesedegarri balira.
Nork bere gauza zuzen zaitzea
oso komenigarri da,
zu nai zaituzten ausartak emen
iñoiz agertu oi dira.

El Diario Vasco, 1980-VI-4

(1) “Zortzi bertso” esaten du Segundok, baiña sei bakarrik agertu ziran egunkarian. Leku-faltaz beste biak kanpoan geldituko ziran.

Bakoitzak bere gaitzak

1

Nola austarri izaten baitan
beti asteazkenean,
neri beatza kendu zidaten
garizumaren lenean;
ain zuzen-zuzen otsaillaren
ogeigarren egunean,
ni ez ote naiz jarriko, jaunak,
noizpaitxo zorionean?

2

Nere ankaren opor aldeak
badilu illabeteak,
makiña bat gau igaro ditut
miñez gaiñezka beteak.
Gutxieneko sei edo zazpi
desegin zaizkit urteak,
askori pena emango dio
mundu ontatik joateak.

3

Askotan jardun izan oi gera
geure iritzi batean,
pentsatu gabe izan leikenik
animarentzat kaltean;
beldurrez eta kezkatu nago
dan-dan noiz entzun atean,
Jaungoikoak zer esango didan
emendik eramatean.

4

Askotxok pena izango degu
mundu ontatik joateko,
beldurra ez da askoz ohea
aruntza eramateko.
Sinismena ta garbitasuna
guk ez ginduzke kalteko,
edo bestela Jesusen Amak
ez gaitu asko maiteko.

5

Pekataritzat nere burua
nik epaitzen det benetan,
nere akatsak badakizkite
sortu nintzan lur onetan;
damutasuna eldu danean
ementxe nago penetan,
Jesusen aurka ez naiz asiko
itz astun nabarmenetan.

6

Bein il ezkerro ez dala ezer
emen askotxok diote,
ori esaten ari diranak
miña ematen didate.
Jesus gabeko jakintsu oiek
ez ote daude arlote?
Illargi, eguzki, millaka izarrek
Jabea nunbait badute.

7

Ni garizuman egondu nintzan
miñak erabat jausita,
ta inguruko danak esanez
“laister ilko da” etsita.
Maitasunezko agerpen batek
ez du poztutzen gutxi-ta,
il da gero ere etzait aztuko
Arrietaren bixita.

8

Zutaz askotan oroitutzen naiz,
Joxe Mari Arrieta,
gazte orrek, zuk, artu zenduan
ni bixitatzeko beta:
bide askorik ezin igaro
bi makulukin errenka,
ezin nezake iñoiz pagatu
merezi dezun errenta.

9

Etsipenaren mende nengola
ezin iraunik miñetan,
agerpentxo bat egin zenidan
pozgarri, alajaiñetan!
Gauza ori nola sortu zitzaizun
zuri buruko zaiñetan?
Txerrimunirik ez det izango
zuretzako ordaiñetan.

10

Geiago ere izango dira
ni bixitatutakoak,
merezi haiño askoz geiago
mesede egindakoak;
oi azpiraiño irteten ziran
nik botatako malkoak,
txarren artean gauz onak ere
oputzen ditu Jainkoak.

11

Ezjakin batek nola ditzake
gauz astunak erabaki?
Sinismenaren argitasuna
bakarrik nezake jaulki;
gurutzeturik gu salbatzeko
il zanak guztia daki,
azken arnasak ditugunean,
Kristo, zuk izan erruki.

El Diario Vasco, 1980-X-15 eta 16

Eskerrik asko, jaunak!

1

Eskerrak eman nai dizkiotet
eskubiz edo ezkerrez,
zenbait gizonen leialtasuna
ordaintzen ez daukat errez.
Opari sendoz osatu nairik
ardo onez ta eperrez,
idazle zuzen on baten gisa
merezi banu, ezerrez.

2

Eskerrik asko, Lizaso eta
Berasategi maitea,
erabaki bat artu zenduten
eizak iltzera joatea;
ondorenean neri ekarri
pardel polit bat betea,
asko pentsatzen ez nualarik
egin det eper jatea.

3

Ez bat eta ez bi, an edo emen
gertatzen dira kasoak,
ez dakianak jakin ditzala
dijoaz nere bertsoak.
Bost egunean irentsi ditut
lau eper oso-osoak,
pena ematen zidaten baiña
jateko zeuden goxoak.

4

Nere denboran asko jan gabe
ni bizitu naiz eperrik,
aurten ekarri dizkidatenak
etzaizkit galdu alperrik.
Gauz on berriak egun batean
ez du nazkatzen muturrik,
zuen kulparik ez det egingo
izaten badet okerrik.

5

Zierto dakit olako janik
etzait komeni astero,
erdi goseak igaroa naiz
makiñatxo bat otz-bero;
eper-okelez asetzerik nik
ez nuan asko espero,
esango dute: "Ori ez dek zail
bestek ekarri ezker".

6

Neroni asko ibili gabe
nekatuaz eperretan,
oien txitxiak jan ditudala
aitortuko det gaur bertan.
Nere animak ikusten baitu
garbi ixpillu orretan:
Jaungoikoari asko ez dala,
oieri ere zorretan.

El Diario Vasco, 1980-XI-16
Goiz-Argi, 1980-XI-29

Barkatu, jauna!

1

Milla bederatzireun larogei ta bata,
ilbeltzaren iruan gaur da larunbata;
gizon on alai bati nai nioke kanta,
ez du orrek ipuirik iñoiz ere palta.

2

Errezilko semea Inazio Mari,
Zegaman bizi dala jakindu det ori;
olakoak gustatzen zaizkit erruz neri,
dotore badakizki ipuiak ugari.

3

Errezilko seme da beraz Atxukarro,
baditu iru gurdi ta beste bi karro;
ipuiak ibiltzeko lumaz arro-arro
txantxangorri ta txepetx, xoxo, birigarro.

4

Lagunartekoa da, gizon atsegiña,
Santo Tomas egunez nago itzegiña;
gure jakinduria ain da ezberdiña:
nerea beltz-beltza da, orrena urdiña.

5

Apal da gizalegez nai du errespeta,
antziñako asaben euskaldun izketa;
txit komeni dan gauza derizkiot eta,
ez dakianarentzat zer erakusketa!

6

Berriro ere ori bearako det zaitu,
oraindik ipui danak etzaizkio aitu.
Aitona zarrak iñoiz aitatutzen ditu,
malkarrik txarretenan ikusi nai gaitu.

7

Aitona zarrak anka trabatu lepotik,
beeko txillardegira amildu da goitik;
erbia or irten da laisterka kabitik
txinparta dariola belarrietatik.

El Diario Vasco, 1981-I-11

* * *

Kalonjeren esku-idazkietan Atxukarrori eskeiñitako
beste sei bertso auek arkitu ditugu:

8

Donostitik begira nago Zegamara;
Atxukaroren ipui polit oietara.
Aztu gabe larunbat illunabar gaba,
zu bai iztun apaiña, iñor baldin bada.

9

Euskaldun zarren antzera gurdi eta karro,
parra egiñerazten ipui edo lerro.
Etzera nabarmentzen aizetsu ta arro,
len bezelaxe apal jarrai, Atxukarro.

10

Mereziak dituzu askotan txaluak,
eskeintzen dizkiguzu kontu potxoluak.
Nik eme jartzen ditut belarri zuluak,
gau erdirarte ez nau errenditzen luak.

11

Zer esan nezake nik orain Atxukarroz?
Ardo onak eskeintzen asiko naiz txarroz,
etxera ekarriak gurdiz eta karroz;
ordainduko al dizkit ipuiz edo lerroz.

12

Kanta nai badituzu bertso auek ortik,
askatasun osoan jartzen zaitut gaurtik.
Ez baldin badezu nai deus ez dit inportik,
ez nezake biali beste ipui sortik.

13

Orra bost bertso kaskar Kalonjerengandik,
apur bat tentatzea gogoak eman dit.
Euskaldunak gera gu orain baiño lendik,
naiz alkar ez ikusi sekula oraindik.

Beti zerbaiten palta

1

Bertsoak jarri nai ta gairik ezin arki,
beti zerbaiten paltan ez nabil ederki.
Gaitz onekin bistatik gordeko naiz aurki,
zenbat sufritzen dedan zeñek erabaki?

2

Au erabakitzera iñor baletorke,
borondate osoan laguntzera merke;
ez nioke jarriko lertzeko lain neke;
naiko babaz ta artoz mantenduko nuke.

3

Nere samintasunak ondo neurtzekotan,
ez du egon bearko gau ta egun lotan.
Batzuetan miñez ta disgustoz askotan,
sufritzen ez duanik nor da mundu ontan?

4

Itzegitera noa nere sufrimentuz,
gaiztoarekin beti ibiltzen naiz kontuz;
ta onarekin berriz ez irixten puntuz,
gauz oiek badakizkit lendik eskarmentuz.

5

Sinistu ez nagola eskarmentu gabe,
munduan igarota ainbat atsekabe.
Kontzientzia daukat apal edo bare,
denbora gutxi barru ilko banintz ere.

6

Geienok baditugu norik bere akatsak,
xamurtuko al gaitu piperra ta gatzak.
Jesussek esandako egi zuzen latzak,
sinisten ez badira gu ez aberatsak.

7

Beti urruti nabil aberatsengandik,
arrote jaio eta beartsu oraindik.
Jesus aitaturtzea gogoak eman dit,
ea laguntzen didan nundik edo andik.

8

Betikotasun ori ez da egun biko,
orregatik jartzen naiz inoiz belauniko
Jesus erokerian etzan ibiliko,
artzaz sinistra zagun ta ez gera ilko.

9

Aspaldi illak ditut aita eta ama,
aiek utzi zidaten beartsuen pama.
Beti zerbaiten paltan pozgiroz ez dana,
mundu ontan badago prakak bete lana.

10

Lanerako gogoan nuan nik dotia,
orregatik izerdi asko det botia;
ni zuk nai dezunian mundutik juatia,
Jauna, neretzat izan zeruan lotia.

Segundo Kalonje adiskidea etxean bisitatu nuan
batean, arek esan eta nik papereratutako bertso-
saila. Inon argitaratua dan ez dakit. A. Z.

Aita Agirretxeri jarraituz

1

Agirretxeren zenbait itzaldi
Kristo-maitale antzera,
degun leiorik zabalenetik
sartutzen zaizkit etxera;
berak esaten duan bezela
“biotzetik biotzera”,
ta salbagarri txarrena ez du
nere animak zartzera.

2

Agirretxeren itzaldi oiek
neri datozkit gogozko,
iruditurik ote diraden
sinimentsu ta Jainkozko.
Garai batean ibiltzen nintzan
une batzutan arroxko,
Jesus munduan zergatik il zan a
usnartzen etzala asko.

3

Aolku goxo mardul oriek
neri gogozko datozkit,
len ere zerbait badakit baiña
kalterik egiten ez dit;
maixu oberik ezin mintzatu
Jerusalen da Londrestik,
Jesus da bere apostoluak
il zituzten ezkeroztik.

4

Jaungoikoaren aginduetan
gabiltza larrugorrian,
deabruaren morroi askotxo
galtzeko zori larrian.
Nik berri txarrak entzuten ditut
bizi naizen baserrian:
Aita Santua il nai zutela
Erroman udaberrian.

5

Geienok aintzat ez degu artzen
iturri garbiko ura,
askoz naiago degu murgildu
zikindutako putzura;
zingira zikin nazkagarrian
nabarmentzen da berdura,
ta bertan sartu nai genduke guk
Jesusen soiñeko ura.

6

Ezkerrekoak biurriegi,
eskubikoak zuzen ez,
besterenaren artzaille beti
“gu gera onak” esanez;
mundu ontara narrats antzean
noski azaldu giñanez,
askok naiago degu ibili
ur zikiñetik edanez.

El Diario Vasco, 1981-V-27

Ondartzako erakusketak

1

Zartu ta ajeatu, ni nago motela,
badakit askok ori pentsatzen dutela;
baiña ez beuren kulpaz tentatzen nautela,
Kontxa alde orretan badabil okela.

2

Lengoan izandu naiz Donosti maitean,
an ikusiarekin mintzatu gaitean.
Moda zarreko gauzak ondartzeta betean,
lengo markak autsi az aurtengo urtean.

3

Ondartzaren gaiñean or erakusketa,
orrenbesterañño nik ez nuan uste ta;
nabarmenkeri gabe nola errespeta?
Txukun-txukun ibiltzen zail daukat izketa.

4

Ondartzara egiña nazute bixita,
batek au esan zidan izketan asita:
“Deabruaren salan zu ere nasita?
Zer aurreratzen dezu gu gaur ikusita?”

5

Galdezka asi nintzan zer zan prezioa,
laister izandu nuan kontestazioa:
“Pertsona zarrarentzat ori lezioa!
Nun ikasia zera edukazioa?”

6

Erantzun gabe ezin nik aorik itxi:
“Deabruaren esku orrenbeste pitxi!
Danak erakusteko bai eskusa gutxi,
zuen gidaria da infemuko Patxi”.

El Diario Vasco. 1981-VIII-21

* * *

Segundo Kalonjeren paperetan sail au ere azaldu
da, makinaz idatzita eta beste bi bertso dituala:

7

Esaten badet ere xeibrekeririk,
ez tristetzearren gazteen begirik,
zenbaitek ez du naiko broma geiegirik,
baiña ezin ukatu iñola egirik.

8

Azkeneko unean datorkit burura:
beztu bear onekin daukagu ardura;
eguzkiak berotu, preskatzeko ura,
Brasilko ibaietan indio modura.

Udaberria eldu da

1

Udaberria azaldu zaigu
danen bixtara aurpegiz,
egun bat ere utsegin gabe
oso errespeto aundiz;
denbora onak nai genituzke,
saiatuko al da egiz,
emen lekurik nai baldin badu
urrengo urtean berriz.

2

Gogoan artu nai dituanak
orain datozkidan itzak,
neguak lanak aurreratuta
berdetu dira aritzak.
Bakarren batek agindutzen dik
ta orren esku zabiltzak,
ta orain berriz udaberriak
patrikadan dauzka giltzak.

3

Neguak ere azkenerako
ipiñi digun jarrera,
udaberriak lokatz artean
egin du bere sarrera;
jarraitzen badu gizatxar eta
petralkerian aurrera,
negua ondo igaro baiña
orain penatuko gera.

4

Negua ona joan da geiena,
eman du errematea,
nik orrentzako poltsa txiki bat
badet opariz betea.
Nere esanik ez gaizki artu,
o udaberri maitea,
bein bear eta premian gera,
prestua izan zaitea.

5

Bart arratsean aldatu gera
negutik udaberrira,
nere kabitik an egondu naiz
entzuten edo begira;
aizea eta euria biak
nastuan jardunak dira,
naiago nuke Andaluzira
martxoan joango balira.

6

Eguzki ona, azal zaiguzu,
komeni bada, aurpegi;
gizonak emen ez du eskatzen
oinbeste laiño ta euri.
Extremaduran falta dutela,
Euskadin berriz geiegi,
gu aspertuta egonagatik
iñoiz ala ere segi.

El Diario Vasco. 1982-III-25

Inbiri madarikatua

1

Milla bederatzireun larogei ta bian,
apenas bizi geran pake geiegian.
Juan Pablo il naiean bere txarkerian,
Kaifasen anairen bat portuges errian.

2

Alta Santua dabil pakearen eske,
beraren aldekoak nabari gaituzte.
Mesede litzakenik ez al dute uste?
Gizatxarrak badaude prestuak ainbeste.

3

Bai nabarmen dagola inbiria gailen,
mundu zear zein arro ta zital dabillen!
Indarra artu zuan oraintxe baiño len,
lanak emango ditu gero ere emen.

4

Gazteak izandu ta goaz erretiran,
lengo zarrak berdintsu ezkutatu ziran,
istilluak utzita munduaren jiran;
ez dakigu gauzak noiz zuzenduko diran.

5

Deabruzko gorrotoz biotzak guritu,
maitasuna bear da, noizko ugaritu?
Arazo orrek lendik adar zarrak ditu,
Jesusek bearko du gutaz errukitu.

6

Junagatik *sigloak* ta eunki osoak,
gogortzen ari dira nunai arazoak.
Etsai pozoitsuenak sarritan auzoak,
Satanas maitatzen du inbiriosoak.

El Diario Vasco, 1982-V-19

Bertso berriak

1

Irazustari egin bear diot kaso,
aizkoran eta segan len ona zan oso:
oraingoan ez dezu pama gutxi jaso,
poz ematen didazu, Mikel Polipaso.

2

Polipasok badauzka iru bat armazoi:
gorputza astuna ta indar eta sasoi;
baiña alkarrentzako beti zerbait pozoi,
apustuan ez al da al dana arrazoi?

3

Goi-maillakoa ziñan aizkoran da segan,
usoa dan bezela indartsua egan.
Balio ote dezun asi diran prueban,
ikasiko dute, bai, nolakoa zeran.

4

Negua pasa dezu naiko baba jaten,
oraindik etzizuten tankerik ematen.
Zu asi zeranean autsi edo eten,
txikiak zer egiñik ezpaitauka aurtan.

5

Erakutsi dezute lenengo ekiña,
bitatik batek beti izaten du miña.
Txikia beti txiki izan arren piña,
aundi onaren aurka arentzat pitiña.

6

Errez irabazi du lenengo jokia,
edade ortarako ez al da naikoa?
Urrengora ere txit korajez dijoa,
oraindik ez daukagu Polipaso joa.

El Diario Vasco, 1982-V-27

Ordaiñetan

1

Iruntxibeti, barka zaidazu
naigabetu bazaitut nik,
autan artuta ibili bainaiz
balio duan gizonik.
Ikusi gabe epaitutzeak
iñoiz ezpaitu gauz onik,
seitatik bostek etzuten uste
zu olakoa zeundenik.

2

Gizon txikia izanagatik
zerez zimela ta piña,
amak seme au guda-denboran
burrukarako egiña.
Akulu txiki ezten-zorrotzak
iñoiz ematen du miña,
obe genduan lentxeagotik
kontuz ibili bagiña.

3

Ez dakianak etorkizuna
nola epaitutzen duan,
gertatu dana gezurtzat jota
guk itzegiten genduan.
Mutikotxo bat ematen dezu
Polipasoren onduan,
arrigarritzko ikusmoldeak
sortzen zaizkigu munduan.

4

Zure aurkako otsak zabaltzen
nunai itzetik ortzera,
pentsatzen ez dan traba askotan,
ta zelebrea sortzen da.
Gizon galanta menderatuta
garaille irtena zera,
berrogei milla duroko sari
ederra sartu etxera.

5

Nik berdin-berdin maite zaituztet
naiz bat eta naiz bestea,
atsegin nuken gauza bat au da:
biok ondo ikustea,
tirri pixka bat baldin badago
bera lenbailen uztea;
nere laguntzik onen-onena
pakea erakustea.

6

Nere barrengo atsekabeak
nai dizkitzutet azaldu,
oraingo ontan diru aldetik
ni ez naiz asko ugaldtu.
Polipasoren alde jokatu
bost milla duro ta galdu,
nik baiño ere pena geiago
nere andreak ez al du?

El Diario Vasco. 1982-V-30

Iparragirre oroitzuz

1

Iparragire, zure doiñuan
sarritan ez naiz jardun da,
lengoan nere laguntxo batek
zerbait beartu nindun da;
ta ni oso gustora,
sartu nintzan zestora,
sosegurik ez iñun da,
gure Jainkoak danok iltzeko
lurrera bota gindun da.

2

Iparragirrek berak sortuta
moldatutako bozean,
ni lo nagola amets egiñez
esnatua naiz goizean;
barrendik oso alai,
azaletik ere bai,
ausnartuz bide luzean,
euskaldunaren lengo lege zar
aiekin ezin asean.

3

Iparragirrek berea zuan
gitar apal maite ura,
mundu ontatik zerbait bear da
eramana da zerura.
Aingeru danak lagun,
eztia bezin legun,
santu on baten modura,
gaur ere, arren!, eduki zazu
euskaldunaren ardura.

4

Iparragirre esaten dute
zala kantari artista,
malizi gaiztoz zebiltzanentzat
su piztutzaille tximixta.
Mintzatzen zana egiz,
ez ikusi nai begiz,
gazterik sena ta bixta;
ark ziona zan: "Euskotarra naiz
ta ala izango naiz ta".

5

Iparragirre, orra zer dan gaur
guk dabilkigun jantzia,
gorrotoaren morrontzan dabil
askoren kontzientzia.
Ainbat aize sorturik,
alkar ezin arturik,
nunaitik alderantzia;
alderdi danak pintatzen dute
bakoitzak bere ontzia.

6

Iparragirre, ezagutzen det
ain dala gauza tristea
billaukerian uxatu eta
ate guztiak ixtea.
Baiña zure biotza,
sendoa ta zorrotza,
Jainkoak nai irixtea
zeu jaio ziñan kabi maitea
il baiño len ikustea.

El Diario Vasco, 1982-X-15

Aita Santuaren agerpena

1

Aita Santua iritxia da
donostiarren urrean,
arrera apal bat egiña dio
Azpeitik bere lurrean.
Ainbat aolku jalkiak ditu
preziz geundenon aurrean,
Jesukristoren lege santuan
ta dotriña ederrean.

2

Aita Santua izana degu
Euskadin zorionean,
jendeak ura poz atsegiña
onuntz azaldu zanean!
Millaka asko txaloak joaz
beraren aldamenean,
ta... beste zenbat biderik gabe
galduta mundu danean?

3

Aita Santuak esandakoak
artu ezkerro gogoan,
mundu onetan bizi diteke
atseden obeagoan.
Ez al dakigu Jesusen naia
len ere nola dagoan?
Bere izena zikintzen degu
askok sarritan aoan.

4

Jesusek danok maite gaitu gu
nola zar eta gazteak,
ezkontzaz lotu gabe daudenak
eta senar-emazteak.
Kezka larria ematen dio
mundu ontako nasteak,
zeru aldera bildu nai gaitu
bera bezela besteak.

5

Aita Santua danentzat dabil
txit arduratsu gau ta egun,
euskeraz ere itzegiña da,
ez esan ez danik lagun;
urrutiraiño zerbait badala
ez al daukagu ezagun?
Pekatoriak izanagatik
Jesus aitortu dezagun.

6

Aita Santuak espainoletan
igaro du bere txanda,
makiñatxo bat ondu baiño len
denborarik ezta joan da.
Zerua nola irabazten dan
amaika bider esanda:
Jauna badala sinistu eta
urkoa maite izanda.

El Diario Vasco. 1982-XI. 17

Eiztariak

1

Eiztari oiek ez dute palta
mixeri petral tristerik,
apiziorik ez duan batek
ezpaitauka sinisterik.
Zaletasuna izandu nuan
nik ere gazte-gazterik,
ta orain berriz ez det ikusten
ogei txolarre besterik.

2

Udarazkena ala joan zan
da berdintsu goaz neguan,
mota danetik orren eiz gutxi
nik ez det beintzat goguan:
eiztariaren bizimodua
pentsatu nola dagan,
maiatza arte nik naiago det
aize epela albu.

3

Elurrarekin izotza asten
bada iparretik gogor,
akaso eiza etorriko da,
nai ez dutela, derrigor.
Aate, klixka ta egaberak,
iztingor edo oillagor,
otzik ezpada an bertan goxo,
alderantzia dago or.

4

Txantxangorriak emen iñoizka
doi-doi azaldutzen dira,
ganbaran ezer bai ote dagon
zugaitzetatik begira:
ta oiek ere jotzen badute
oraingo moda berrira,
sekula berriz ez da elduko
kukurik Euskalerrira.

5

Txantxangorria asten bazaio
kuku-jaunari zapuzten,
lengo moduan ez da jardungo
besteren umea azten.
Gauzak aldatu dira erabat,
ez al degu ba ikusten?
Beurak ondoen jakingo dute
len zer oitura zituzten.

6

Kuku entzunak izango dira
noski Pazkoetarako,
zugaitzak ere berdez jantzi bat
egun santuetarako.
Besteren ume azitzaillea
biotz xamurra dalako,
txantxangorria bizi dan arte
kukurik ez da paltako.

El Diario Vasco. 1983-I-21

Otsaila

1

Ekarri digun ekaitzaldian
zarrok ez daukagu giro,
aize, kazkabar, elur da izotz,
ez da ibili eztiro;
dotore asko apuntatuta
sartu dizkigu bost tiro,
lengo lepotik dauka burua
ta pentsatzen du astiro.

2

Elurzaleak pozaren pozez
egiten dute irrintzi,
neri gauz asko atsegingarri
ez dit lepotik erantsi.
Lenago doi-doi dabillenari
egiten dio imurtzi,
plakian gauden baserritarrak
gu batez ere igurtzi.

3

Mendi ta zoko eta uriak
bazter guztiak zuritu,
bere lurraren jabe da eta
ez daukagu zer arritu.
Lenago ere orrelakoak
noiznai egin izan ditu,
elurraren zai gose zeudenak
ez ditu gaizki serbitu.

4

Esaten degu: "Ekaitza emen
egin dezala neguan";
guk ez dakigu ark berak berriz
zer dabilkian goguan.
Zerua nola urruti dagon
ainbat milloira leguan,
andik botatzen dutena
dator mundu ontara eguan.

5

Larunbat-goiza, illak amabi,
etxetik begiratuta,
ikusten ditut Donostiako
estalkiak zurituta.
Lenago ere nai duan dana
dago egiten oituta,
iñor ez gera manipestatzen,
mendean artzen gaitu ta.

6

Aste guztian dijoazkigu
egun otz eta gordiñak,
urrengorako ere entzuten
ditut albiste berdiñak.
Aurtengo ontan gerta litezke
karnabal txuri-urdiñak,
elbi aundirik ez du izango
aize onekin sardiñak. (1)

El Diario Vasco, 1983-II-16

(1) *El Diario Vasco*-k jardiñak idazten du bertso
auen azken itza. Baiña Segundok gordetako
egunkari-muturra agertu da bere paperen artean,
eta an itz ori zuzenduta dago, sardiñak ezarriz.

Dirua ta deabrukeriak

1

Milla bederatzireun larogei ta iru,
nun da nork ote dauka nai aiña diru?
Aberatsenak ere pilla azi nai du,
nundik arrapatuko ogeitik amairu;
arrano ta miru,
gogor datozkigu
millaka kastigu,
sarritan gaizki gu;
ez ote da izango iñor testigu?

2

Munduan badaudela ainbat aurrerapen,
gizonaren buruan etziranak len.
Ondraduak balira zeñen on liraken!
Artaraka legoke zedozer iraupen.
Or zer dabilkiten
ez degu jakiten,
gaude irakiten
odol txar egiten;
deabruen mendetik gu noizko irten?

3

Lurralde askotxotan ezin konpondua,
kontzientziak jota dauka ondua;
biotza gogorra ta kopeta illundua,
adiskidetutzeko pranko berandua;
maitasun sendua
oso urrundua,
gizon lizundua,
astoki, mandua;
alkarri laguntzeko au da mundua!

4

Alkar ikusi nai ez inondik inora,
zorigaiztokoa da gure denbora.
Laguna azpiratu, geuk altxa nai gora,
deabruaren naia beran izango da;
gorrotoa lora,
barrutik kanpora,
txarrerako moda,
sartu aretora,
argiak itzalita goaz linbora.

5

Gaurko aurrerapenak dira bildurgarri,
noraiño joango diran zeiniek igerri?
Tximixta bezelaxe sutsu ta biurri
ikusten ditugunak ainbat adar gorri;
maitasuna urri,
gorrotoa sarri,
tranpan erriz erri,
bizioak jarri,
gazteak ondatzeko prendak ekarri.

El Diario Vasco, 1983-III-24

Emaztea ta senarra

1

Ondarrabian izandu nintzan
ni lengo egun batean,
ta *Bar Alde-zar* irakurrita
barrura sartu atean.
Etxekoandrea aurkitu nuan
arreta argi tentean,
oroituko naiz nere buruan
zentzurik dagon artean.

2

Nere lenengo itza auxe zan:
“Jainkoak arratsaldeon!”
Jakin-goseak sartu nintzan da
galdezka asi nintzaion.
Nere izketa baldar samar
au graziz erori zitzaion,
ta esan zidan: “Euskaldunetan
etzera galduko iñon”.

3

“Senarra nungotarra dezu zuk?”
galde ausardi osoan;
ark erantzuna: “Erri bat badu
Oriok bere auzoan”.
“Aia ote da?” “Bai, alaxe da:
ain mendi-magal jasoan,
andik neronek ekarri nuan
Ernaniraiño besoan.

4

Ernanin urte-mordo bat
eta gaur Ondarrabian bizi,
ango berri len badakigu ta
au ere zer dan ikasi”.
Nik esan nion: “Saiatzen danak
zerbait ez al du merezi?
Izan zaitetze osasuntsu ta
zorionaren nagusi”.

5

Nere lagun dan maite Benino
Albeniz degu aiarra,
onek ez dauka buru motela
eta eskua baldarra.
Eginda dauzkan lan dotoreak
badute irugierra,
egia zuzen epaitzekotan
dago aitortu bearra.

6

Ezin nezake adierazi
mingaiñez eta eztarriz,
ni zoratuta gelditu nintzan
dauzkan ainbeste uztarriz.
Milloi bat bider esanda ere
nola ez aitatu berriz?
Ura etxeko edertasuna
ain gauz apain oroigarritz!

7

Bertso auetxek eskeintzen dizkat
maitasunarengatikan,
nere biotzak ez daukalako
oraindik ere paltikan.
Eskasagoak ibiltzen dute
dirua lasai patrikan,
omenaje bat merezi luke
il baiño lenagotikan.

Leenengo sei bertsoak: *El Diario Vasco*. 1983-IV-14.
Azkena. Segundo Kalonjeren esku-idazkietatik.

Au da primabera!

1

Nik nerez pentsatzen det
gutxi gora-bera,
aiton-amon geienok jakiñean gera.
Ankak otz-otz eginda lotara oiera,
aulak indartutzeko au da primabera.

2

Beti bada guretzat zerbait eragozpen,
eguzkiak laguntzik ez du erakusten.
Odolak neri beintzat ari zaizkit ozten,
aurtengo primaberak ez nau asko pozten.

3

Bi illabetez gora baditu pasiak,
beti otzetik dauka indarra aiziak.
Maiatzak izan arren egunak luziak,
asko berotu gabe oraindaiño ziak.

4

Maiatzak ogei ta sei gaur ain zuzen ditu,
bertsoak moldatzea neri egokitu;
motibo apurtxo bat berak jarri baitu,
kontentu ez geranak aurkituko gaitu.

5

Uste nuan maiatza nik beroa zala,
erre gabe utzi dit lepoko azala.
Nere zalaparta au ulertu dezala,
pekatu egin badet barkatu nazala.

6

San Luis bitartea degu udaberri,
bera gerta liteke guztiz edergarri.
Bestek egiñarekin keja gera sarri,
urrena zure txanda, udara, etorri!

El Diario Vasco. 1983-VI-1

Garagarrillak bederatzi

1

Nere barruan ez bainebillen
Uztapideren izenik, arratsaldeko ordu bat arte
ezpainekian il zanik.
Geiago ere izango dira,
baiña alako gizonik!...
Nere biotzak noiz utziko du
artxek eman dion penik?

2

Uztapideren illetarako (1)
erri jator bat bear zun,
zein izango ta azkenerako
egokitu da Oiartzun.
Jendeak ere biotz-biotzez
ta bai txit prestu erantzun,
Jainkoak berak izango dio
bear ainbeste maitasun.

3

Etzan motela garai batean
Olaizolaren almena,
gatz eta piper eransten zion
ark bertsoari kemena.
Ona danari egiten zaio
benetako aitormena,
orretarako naikoa baitu
bakoitzak bere baimena.

4

Lendik pentsatzen nuan gauza bat
aruntz joanik aurkitu,
gauz orren ziur nola egon ni
an ikusi ezpanitu?
Oiartzuarren eliz aundian
guztiak ezin kabitu,
Jesukristoren antza zuan da
jarraitzailleak baditu.

5

Euskalerriak bertsolaritzan
gaur daukan ainbat kurpilla,
nere iritziz, goi-maillako bat
berriro badegu illa.
Alper samarrik joango zerate
Manuel zanaren billa,
mundu ontatik ezkutatu da,
zeruan gerta dedilla.

6

Esan ere bai, ta entzun berdin,
tabeman eta elizan,
ark bazekian zer egoten dan
konsagratzean kalizan.
Jesus onaren esanetara
sinismen sendoa izan,
ta azkenean auzoan il zait
gizon on-on baten gisan.

El Diario Vasco, 1983-VI-19

(1) *El Diario Vasco*-k: Uztapide'ko.

Gaur aiña eskale...

1

Donosti ontan ere gaur aiña eskale,
bestek emandakotik jan da edan zale.
Abiatzen bazera iñoiz kalez kale,
ikusiko dituzu makiña bat ale.

2

Ez dizute esango alperrak diranik,
alaxe ote diran irudipena nik.
Lotsagabe ausartak seitik bost izanik,
oieri ematea ez det beste penik.

3

Eliz aurrean ere eska eta eska,
agure eta atso, mutil edo neska.
Jarriko dizkitzute besoak trabeska,
nor errukituko dan or daude ameska.

4

Zenbat ijito-mota eskaka ari dan,
sortzen ez dago errez danentzat segiran.
Langilleak alperra asko dauka jiran,
gaiñera nork daki noiz gutxituko diran?

5

Eskale gutxi-gutxi ez degu ikusten,
ari dira oitura gaiztoak ikasten.
Ezpadute bizio trakets ori uzten,
ia laister labanaz larrutzen gaituzten.

6

Gaur entzuten deguna palta dala lana,
ori ere urritu len geiegi zana.
Nundik osatuko da guztientzat jana?
Nabarmenena dabil lotsik ez daukana.

7

Emaleak badauzka makiña bat ezten,
artzailleak pakean ez baidio uzten.
Emen zer gertatzen dan ez al da ikusten?
Emale piñik ez da iñoiz aberasten.

8

Ni ez nai gezurretan ariko iñori,
egi galanta dala noski badirudi.
Beti eska ta eska lagun urkoari,
besterena artzeko maitasuna lodi.

9

Eskale gaixo oiek ezin zaizkit aztu.
Jainkoarekin ere ibili nai justu.
Guretzako badago makiña bat gastu,
esku zabala dana ezin aberastu.

10

Mundua zuzentzeko dabillen ainbat itz,
otar bat egiteko amar milla zumitz.
Artzaille dagon dana emalea balitz,
nik ere obe nuke eskalea banintz.

11

Gu gera emaleak daukagun pixkatik,
aterako badegu anima kezkatik.
Lau aixa tranposoak badaude bostetik,
nik ez det bizitzerik izandu esketik.

12

Keja jendeak emen badauka naikoa,
beartsuenak ere nai degu goikoa.
Lana eskatu baiña neke gabekoa.
Ortik nun izango da? Or dago kakoa.

13

Goiko mailla nai degu lan gutxi egiñez,
nola artu liteke orrenbeste laiñez?
Ontziak betetzean egiten du gaiñez,
len nola bizitzen zan gaur askok jakiñ ez.

Leenengo sei bertsoak: *El Diario Vasco*, 1983-X-12.
Gaiñontzekoak: S. Kalonjeren esku-idazkietatik

Pake prestutik urruti

1

Berak emanik izanagatik
osasuna ta bizia,
askok ez degu aintzat artzen guk
Jaungoikoaren grazia.
Alkar iltzeko griña zital au
ez da atzotik asia,
gaur berriz armaz josita daude
Yanki eta Errusia,
esan diteke suaren mende
dagola mundu guzia.

2

Su ta ke dagon labe gaiñetik
nora bear degu irten?
Utsa guztiok ezipagaituzte
laister jartzen irakiten.
Ez dago errez kulpik geiena
nun dagon ziur jakiten,
or ari dira gizon iltzeko
tramankuluak egiten,
pekatu dala Jaunak esan, bai,
ori apenas dakiten.

3

Danok dakigu gizon azkarrak
gaur badaudela munduan,
ume txikiak giñan garaian
berdin entzuten genduan.
Orain daukaten aurrerapenik
etzan izango orduan,
bildurgarrizko otsak badira
gure belarri onduan,
berekoiaren inkurrioak
orra zer ekartzen duan.

4

Diran laterri indartsuenak
armak egin eta egin,
arnas geiegi dagola eta
pixka bat bakandu dedin.
Beartsuaren negarrarekin
artzen ez dutelako min,
beren iritziz kontzientzia
txori-luma bezin arin,
bat eta bi il, edo milloi bat,
oien errukia berdin.

5

Bakoitza bere aldetik beti
iaiokeriak prestatzen,
geiegi ona ezer ez da ta
etzaizkit erruz gustatzen.
Ainbat lekutan pake askorik
ez dute manipestatzen,
beste askotxok bezelaxe nik
ez det gerrarik eskatzen,
lenago ere ibilia naiz ta
ez nau gutxi kezkatzen.

6

Aitaren egin bear danean
azkenengo itza amen,
oraindik ere Jaunari esker
badaukat ainbeste kemen.
Nere itzaldi mixerable au
amaitu nai det lenbailen,
alkar maitatzen biotzetik pin
asiko diran baiño len,
pake santurik ikusi gabe
il bearko degu emen.

El Diario Vasco, 1983-XI-3

Xenpelar zana

(Doinua: Frantzesaren idea beti aldrebes...)

1

Milla bederatzireun larogei ta lau,
bertsuak moldatzeko polita da au:
batez ere Xenpelarri
al duenak onak jarri,
euskaldunak izan ditzan beti oroigarri.

2

Xenpelarrek ibili zuan doiñu bat
ametsetan burura etorri zait bart.
Nik ixlik nola utzi?
Maitasuna erakutsi,
bear badu soiñeko bat erosi ta jantzi.

3

Norteko trenbidea egin zanean,
prantzesak mutil asko emen lanean.
Xenpelarrek ikusita,
katak jarri merezita,
aldrebesak ote ziran txit noski iritzita.

Trenbidea egiten prantzesak emen,
orain eun da ogei urte edo lau-bost len.
Aldrebesak inguratu,
Xenpelarri gogoratu,
merezia zutelako kantuz anparatu.

4

Xenpelarren iritziz ain aldrebesak,
asko narrasten baitu bururik ezak.
Gaur ere bai alakuak,
xelebrezko modakuak,
mesederik egin al du lujo gorakuak?

5

Betroiarenak ere onak badira,
ainbat mota moldatzen etzan kupira.
Jarri zuan ark ederrik
ukatzea da alperrik,
eskolarik deusik gabe jatorriz bakarrik.

6

Nik ere lengo batez irakurrita
sariak badirala kantak jarrita,
egin bear alegiñak
igaroaz neke-miñak,
Xenpelarrek entzun ditzan orain guk egiñak.

7

Ni ez naiz mintzatuko ergelkerian.
Xenpelar maite dute Errenderian.
Egia esan, guk ere bai;
aitor zagun gerala gai,
Xenpelar bat goraltzea zeñek ez degu nai?

8

Baztangak arrapatu, ark jo betiko,
bestela etzan noski ain gazte ilko.
Nik ez dakit zeñek naita,
txit sasoiko illa baita,
goiko maillan lenengoa Xenpelarren gaita.

9

Nabarmendu zan oso gazte-gazterik,
ez pentsa etzegonik inon besterik:
Bilintx eta Udarregi
etzeudenak bertsoz nagi,
ta aiekin etzan nunbait beldurtzen geiegi.

10

Sarri oroitzen zaigu Xenpelar zana,
gazterik bertsolari trebe izana.
Ogeitamalau urterekin
il zanean ark berekin,
albiste au ematen det naiz len askok jakin.

11

Xenpelar aitatzen da zentzuz oraindik,
neri ere gogoak ala eman dit.
Bertsolari aparta zan
paperean eta plazan,
ain gazteak bakan dira euskaldun arrazan.

12

Xenpelar ain gazterik munduan illa,
zeruan atsedentsu bizi dedilla;
opa diot biotzetik
bereiztea laratzetik;
Jesus ona, errukia izan gurutzetik.

Bertsopaper-sariketa batera bialdutako bertsoak.
Baiña 11 eta 12-garrena, Segundoren esku-
idazkietatik artuak.

Aita baten naigabea

NERE lagun zintzo Segundo Kalonje jaunak Nurrea balio zun seme bat galtzeko zoritxarra izan du oraintsu, nik nere emazte ona galtzekoa izan nun bezelaxe. Samintasun arantzak zulatutako biotzak itzegiten du gaur. Irakurri arretaz Segundok moldatutako bertsoak. (*Basarrik erantsitako argibidea.*)

1
Zer esango dizutet nik aurtengo neguz?
Une batean ere ez nago soseguz.
Samintasuna eta naigabea erruz,
atsedenik ez daukat iñolako moduz.

2
Au kemenik eza ta au argaltasuna!
Bai mikatza dagola nere beazuna!
Gaitza indartsu eta auldu Osasuna,
eskerrak badigula Jaunak maitasuna.

3
Aspaldi illak ditut aita eta ama,
eta orain semea dute eramana.
Jesusen Ama, entzun, ai, auxen da lana!
Guk bezin ondo lendik badakizu dana.

4

Ezbearrak nabilki erabat nasturik,
gertatu dan okerra ezin sinisturik.
Izan zeikenik orrain une latz, esturik,
bizi naizen arteko sukarra piztu dit.

5

Anima doi-doi eta gorputza debilla,
lan asko egiteko ez nago abilla.
Nora joan bear det nik laguntzaren billa?
Zerutik zerbait doai iritxi dedilla.

6

Biotza malkoz urtu ta biurtu putzu, (1)
zingira bat bezela nik daukat alatsu.
Jesus, gure akatsak barka egizkigutzu,
gizon argalarentzat izan errukitsu.

El Diario Vasco, 1985-II-22

(1) *El Diario Vasco*-k artu. Gure iritzian, *urtu* bear du eta orrela idatzi degu

Estropadak dirala ta

1

Estropadak baditugu sarri an da emen,
jendeari erakusten dute ainbat kemen. (2)
Zaletasuna ugari ta oso nabarmen,
Donostia ere ona omen zan, baiña... len.

2

Pasaian ikusi ditut lengoan dotore,
irteten ziran lekutik nengon parez pare.
Amaitu zutenean, zalantzarik gabe,
Zumaia zala zioten danen jaun da jabe.

3

Jendeak gogoan dauka Orioren pama,
berez orkoa dan batek Zumaia darama.
Astinduazten die itxasoko mama,
ikurriñez osaturik jarri nai du zama.

4

Gabaz bezelatsu berdin goiz ta arratsalde,
nere griña nabari det Zumaiaren alde.
Zer asmorekin dabiltzan edozeiñi galde,
noiznai "or konpon" esanda ingurutik alde.

5

Kirol-mota orrek ni arriturik nauka,
atzeraka juten dira aurrera arraunka.
Klaudio Etxeberriak dabilkian mauka!
Zumaiakoa baiña talde ona dauka.

6

Jesukristoren garaitik ia ogei mende,
bekaizkeriak utzita obe, bai, bageunde.
Etsia artzen ari da makiña bat jende,
aurten bearako degula zumaiarren mende.

El Diario Vasco, 1985. VIII-15

Oillagorraren etorrera

1

Amaitu zirala ta albiste berria:
oillagorra ugari bada etorria.
Jaunak, gogoan izan aurtengo urria,
mota guztietara etzala urria.

2

Gozatuko ziñaten, eiztari iaiuak,
zakurrak artu eta nolako saiua!
Nik ere entzun ditut oillagor-oiuak.
oiek ere, gaixoak, iltzeko jaiuak.

3

Eiztariak ez dira txantxetan ibiltzen,
baiña nai aiña ez da tiroero biltzen.
Egirik esan gabe zailla naiz ixiltzen:
ni ere ona nintzan oso gutxi iltzen.

4

Lendik pamakoa da beti oillagorra,
au aitortu bearra dago derrigorra.
Gertutzen zaionean etsai jaun bat, orra,
erru gabe iltzea bai dala gogorra!

5

Biotzez eiztariak duan kutizia:
al badu il egin nai eiz bat ikusia.
Alde batera gauza illun, itxusia:
errurik gabeari kentzea bizia.

6
Nabarmendutzen dira eiztari trebeak,
txarrenak baiño sarri onenak obeak.
Or erakusten ditu bakoitzak bereak,
kolkoan gorde gabe abilidadak.

El Diario Vasco, 1985-XI-21

Esku-idazkietako bertsoak

Kukuari

1

Kukua entzuna naiz garboso lenguan,
ez nion antzik eman zer zeukan goguan.
Aprikatik bidaia egin du eguan,
ai zeïnen apaiña ta bizkorra daguan!

2

Erakutsi izan du makiña bat truku,
ta mendekuarekin portatzen da trapu.
Asko engaiñatuaz kantatzen du ku-ku,
iru illabetean au du bizi-leku.

3

Aprikan daramaki geiengo bizia,
ori zer turista dan dago ikusia.
Uaberria dauka berak berexia,
ta orain moldatzen du Europa guzia.

4

Bera paketsu eta txiroari gerra,
orra nola dabillen turista alperra:
besteari ipiñi lan asko ta lerra,
zitalak prestutzeko ejenplo ederra.

5

Txantxangorria eta geiago ere bai,
kabia nun daukaten lenbailen jakin nai.
Besteri lana jarri, berarentzako jai,
mendekoa zigortu, ortarako da gai.

6

Ni iñoiz ez naiz irten kukuaren alde,
arrazoi zeïnek daukan nai diotet galde.
Arraultza uzten die, beste gabe alde,
txantxangorri gaixoak lanean debalde.

7

Ori kontzientzia nabar edo marroi,
biotz gogorra danak nai ainbeste galoi.
Kukua bizi zaigu arro ta panparroi,
txantxangorriak dauzka neskame ta morroi.

8

Aurten ere European entzun degu kuku,
udaberrian orrek au du bizi-leku.
Badu malizia ta beste ainbat truku,
kontzientzi maltzurra, zikin eta trapu.

9

Ostiral santu goiza, ez nezake uka,
nola ari zan ori garboso kukuka.
Txorien elkartean pama txarra dauka,
ni ere lautatik bat nago bere aurka.

10

Ez da asko nekatzen umea azitzen,
lenbizi mantendu ta lanean ezitzen.
Txit aberats moduan badaki bizitzen,
txantxangorria dabil guztiak nozitzen.

11

Txantxangorria eta geiago badira,
iñoiz egon izan naiz arretaz begira:
kukuaren arraultza onartu kabira,
misterio au ere ain arrigarri da.

12

Emen pasatzen ditu iru illabete,
ta beste bederatzi gugandik aparte.
Txori gaixoen poza an bizi dan arte!
Onuntz datorrenean diktadore dute.

Xenpelarren etxean

1

Errenderian ospakizun bat
ikusi nuan lengoan,
ezaguerarik dedan artean
edukiko det gogoan.
Ezin ditezke asko aurkitu
jarrera obeagoan,
Xenpelar il zan txoko xar ura
ai zeñen txukun dagoan!

2

Ez det esango ziran ainbeste:
milla ta eun bertso berri,
Xenpelar kultur orretarako
jendeak oparo jarri.
Leialtasuna esaten zaio
sendi batean lan orri,
ezaugarri da zaletasuna
ez dagola beintzat urri.

3

An gertatua esan bear det
dan bezelaxe aurrena,
bestela lasai ez da egongo
sekula nere barrena.
Esan dutenez ni omen nintzan
norbait bear da zarrena,
arritzekoa ez danez noski
baldarrena ta txarrena.

4

Nere moduko maillan dagon bat
egon diteke kontentu,
alaitasuna datorkit eta
zerbait bear det kantatu.
Eratzailleak, nai zaituztet nik
biotz-biotzez aipatu,
oso merezi dezutelako
eskertu eta maitatu.

5

Lenengo iru saridun oiek
ain ziran zoragarriak,
nik bezelaxe epaitu zuan
entzuten zegon erriak.
Xenpelar il zan etxe orretan
urrezko bertso berriak,
arrobi jator piñetik eta
eskola onez jarriak.

6

Errenderi da uri polit bat,
ez noski oraingoxia,
Xenpelar zanak azaldu zuan
benetan pake-gosia.
Antzeman zion bazetorrela
pozoizko trumoi-aizia,
geroztik emen gertatzen dana
naiko kondaira luzia.

7

Ausardi aundiz mintzatzen banaiz,
Aurrezki Kutxa, barkatu,
ezjakin batek ezin lezake
gauza aundirik markatu.
Uste ez diran gauzak askotan
nola oi diran gertatu,
zuzen zoazte orain artean,
aurrera ere portatu.

8

Eratzailleak, nai zaituztet nik
al dedan asmoz goraldtu,
euskeragatik saiatzen danak
zerbait merezi ez al du?
Euskotarrok bakoitzak bere
alegin guzian eldu,
guraso zarren batasun ura
ez genduke bear galdu.

Ogi egillea

1

Munduan igarota orrenbeste urte,
oraindik ere zaude osasunez puerte;
Jaunari erregutu bizi zeran arte,
il da gero zerua ez genduke kalte.

2

Justo izena du ta ibiltzen da justu,
parrandan diru asko kastatuko eztu.
Gaztetan ikasia orri nola aztu?
Lagun urkoarekin portatzen da prestu.

3

Opizios izan da ori panadero:
neguan leku ona: otzik gabe bero.
Okerra ez da izan zenbait bezin ero,
zuzen jarraituko du noski onuzkero.

4

Jaunak laguntzen dio txintxua danari,
ta garaiz lagatzea ohea lanari;
bai nik ere baneuka nai ainbat janari,
mundu ontan badago amaika komeri.

5

Ipiñiko dizkizut bost edo sei egi,
etzaituzte epaitzen alper edo nagi;
gorputzarentzat lana egin bai geiegi,
zuk eginda jan degu makiña bat ogi.

6

Langilleak morroi ta alperrak nagusi
iñoiz an edo emen ez al da ikusi?
Justo, zu beintzat orain kejatzen ez asi,
badakit mixerian etzerala bizi.

7

Etzaituzte ikusten nagi eta baldar,
iñork ez dizu joko neri aiña adar.
Ez natzaizu asiko atzetikan marmar,
edo zertan bazera ni alako amar.

8

Ederki bizi zera erretiratuta,
nola ondo liteken zuk begiratuta;
ni beste batzuekin nago arrituta,
alkolak bere mende artutzen ditu ta.

9

Beti ikusten zaitut lasai pazientziz,
beste askotxorekin oso alderantziz;
lujorikan gabea janean ta jantziz,
zeruan ere daude olakuen antsiz.

Ez dakit zer esan

1

Nere zaletasunak gogoz eragiñik,
euskeraz ikasteko etzait aitu griñik.
Ai, ez balitz elduko belarrira miñik!
Askotan gelditzen naiz ulertu eziñik.

2

Nik maite detana da izkuntza otxana,
baztertu egin zuten lenago or zana;
ta oraingo berriak batuaren pama,
negarrez ikusten det euskeraren ama.

3

Euskerak badu ainbat arantz edo ezten,
txit soiñeko polit bat ari dira jazten.
Egitura obean ez badie josten,
nor aleginduko da batua ikasten?

4

Ama Euskerarentzat ez al da tamala
elkarrekin konpondu gu ezin gerala?
Auxen da bizimodu aula ta argala,
jakinda lengo zarrak osatzen zirala!

Tolosara joanda

1

Abenduaren bian Tolosara joanda,
egokitu zitzaidan kantatzeko txanda.
Aiton bertsolari bat an azaldu zan da,
saioa bukatu zan somalak esanda.

2

Garboso zegon eta asi zan kantatzen,
ain xelebrea zanik ez nuen pentsatzen.
Beti tontoarekin ni ez naiz juntatzen,
zein zertarako dagon badaki tentatzen.

3

Illundu eta laister, seirak-zazpitan,
Tolosan *Bar Astelen*, arku azpitan;
gauza bat entzuten nik baztar guzietan:
“Ez daukak zer egiñik Ikaztegietan”.

4

Lengo astelen batez *Bar Astelenean*,
kantari jardun giñan umore onean.
Alderantzi aundirik etzan azkenean,
ai arrapatu banu biaramonean!

5

Ori da Axentxio, ni, berriz, Xegundo,
elkartu ez giñanak sekula egundo.
Gustora jardun giñan gaizki edo ondo,
orregatik ez gera inpernura joango.

6

Baditu zazpi seme ta zazpi alaba,
ez du desondratzerik merezi, al bada.
Gaur askok egiten du parra ta algara,
ume asko sortzea pekatu al da ba?

7

Kontzientziko karga erabat arindu,
apaizen agindua txit zuzen egin du.
Amalau ondorengo bakoitzak bagindu,
talorik gabe tripa zerekin berdindu?

8

Gure lenengo gaitza bat beintzat zar-miña,
ez jateko agintzen digute sardiña.
Ordaintzen badizute lan asko egiña,
sarritan jorratua zera zu jardiña.

Urte berria iritxi zaigu

1

Urte berria iritxi zaigu
baiño ez animosoa,
bai al dakigu nun ipiñi guk
ematen degun pausoa?
Etxian ezin konpondu eta
maitatzen degu auzoa,
tamalgarria bai au degula,
ez gaude sendi osoa,
itxaropenak amaitu zaizkit,
Ama Euskera gaixoa.

2

Ikasi ez ta ez jakin arren
politikako berriak,
geiegietan entzuten ditut
naspilla tamalgarriak.
Batek bat esan, besteak aurka,
ezin arturik neurriak,
bein bear eta premi galanta
badauka Euskal Erriak,
Europatikan badatozkigu
opariz urre gorriak.

3

Orain artean ez gera bizi
onetik sarritan janda,
ta berriz ere kostako zaigu
laterri oiek emanda.
Ez al gaituzte preso sartuko
egi aundi bat esanda!
Guretzat ere komeniko zan
zerbait ikasteko txanda,
aurrerapena elduko zaigu.
an sobre egongo zan da.

4

Guk ez dakigu zertarako dan
onean edo kaltean,
etzan guztien gogozko baiña l
otu gaituzte katean.
Askotxorentzat atsekabe da
ortara ezi artean,
naiago nuke biziko banintz
beste amar bat urtean,
zer gertatu dan an esateko
...tro zarrera joatean. (1)

5

Nola sinistu ezin diteke
Ama Euskerak diona?
Zenbaitentzako ez da izango
iñolaz ere gai ona.
Euskaldunaren arraza emen
luzaro aske egona,
Españiak gu gaur bere mende,
Prantziak berriz Baiona,
batek bestea menperatzeko
sortua baita gizona.

6

Urte berriak ekarri digu
len ez genduan jazkera,
ontzat artutzen ez badegu au
ondo biziko ez gera.
Entzuten danez, zer aldakuntzak
egun batetik bestera!
Mercado Común ezagutuzten
oraintxe goaz astera,
zerbait ikasten igaroko det
il bear dedan bezpera.

7

Mercado Común bear dala ta
ez dira atzo asiak,
au nai zuanak emango dizka
Jaungoikoari graziak.
Ala diote: badatozkigu
gaiñera zerga berriak,
lenago ere supritutzen du
euskaldunaren biziak,
deabru zarrak jango dizkigu
emengo irabaziak.

(1) Leenengo itza erdizka idatzita dago Segundoren eskuidazkian.

Mendi tarteko txoko bat

1

San Pedro eta San Juan or daude bi Pasai,
irugarrenak ere badu zerbait usai.
Itxasotik sartu ta jartzen dira lasai
barku galant askoak, nork zer nai duan zai.

2

Pasajes Antxo degu kaiaren izena,
oraingoz aunditu da len txikia zena;
ta bere inguruan nunai almazena,
begiz ikustea da gauzik errezena.

3

Ontziak sartzten dira sarri itxasotik,
makiña bat ikurrin bai mundu osotik.
Oiek ematen duten etekin gozotik,
zenbatek jaten du or lenengo pausotik?

4

Arrantzarako ere sortzen da mutilla,
Trintxerpen kokatzen da galiziar pilla,
asko bizi diranak eta zenbat illa,
itxasora irtenda arrai oien billa.

5

Pasaitik ikusten da Aiako Arria,
ezaugarri modura aspaldi jarria;
eta ark asko maite du Pasaiko erria,
pasaitar danarentzat bai oroigarria.

6

Pasaiko txoko orrek dauzkan garrantziak
bearrezkoak ditu gure probintziak.
Munduaren atzetik onuntz ur-ontziak,
zama galant askoak iñoiz erantsiak.

7

Arrantzarako ere ainbat itxas-ontzi,
zuengandik gera gu arrai onez jantzi.
Aurrerakoan ere, al bada, ez etsi,
gosez il ez gaitezen biar edo etzi.

8

Legor aldera ere begiratzen det nik,
ez pentsa gezurretan asiko naizenik;
egiten baldin badu eguraldi onik,
egoaize apalaz laiño gabetanik.

Gernikako zugaitza

1
Zutitu berria da Gernikan aritza,
ez du izandu urte askoko bizitza:
Euskal Erriarentzat au da zorigaitza,
lege zarraren aurka zergatik dabilta?

2
Gaiztokeriak errez artzen ditu gaiñak,
etzaizkigu iritxi albiste bikaiñak;
satorraren atzapar, ortz eta ezpaiñak,
orrek ondatuko ditu aritzaren zaiñak.

3
Bizkaian ere orain piñua ugari,
emen ere besterik ez baita ageri:
Sator deabru orrek jakingo du ori,
aritza nola azi luze eta lodi?

4
Aritzaren ondoan dabiltzan satorrak,
ez dira danak noski izango jatorrak;
ordaintzen ari gera gezurrezko zorrak,
nik bezin ondo daki Jaungoiko illezkorrak.

5
Besteren lur astintzen dabillen satorra,
bera nabarmentzen da ez dala jatorra.
Belarri motza baiña ez da txit ain gorra,
Euskal Erriarentzat bai biotz gogorra.

6

Garbituko balira sator gaizto danak,
lotsagabekerira etortzen diranak...
Bestela alper samar dira gure lanak,
asko ez al dituzte lendik eramamak?

7

Euskal Erri apur au nola baitan pixka,
nunaitik eskaleak inguratzen zaizka;
Praitntziak ere lanak erantsitzen dizka,
bere mendean dauzka ainbeste erriska.

8

Osatuko bagiña zazpi anai garbi,
aurrean ipiñiaz ikurriña argi...
Emen zer gertatzen dan badakigu sarri,
tartean daudelako dozena bat txerri.

9

Aspalditxoan daude gauzak zikinduta,
arrazoi aundi gabe goitik aginduta,
nagusiaren mende morrontzan oituta,
deabruak derrigor beartzen gaitu ta.

10

Batetik Espaiña, bestetik Praitntzia,
zeiñen zikin daukaten gaur kontzientzia!
Ama Euskera dabil arlote jantzia,
ta nork ez du entzuten beraren antsia?

11

Gernikako zugaitza, nik entzun dedanez,
zu etzaudela oso gaixo osasunez.
Sarri oroituko naiz gabaz ta egunez,
bai otoitz egin ere biotz-maitasunez.

12

Guretzat pozgarri da zure ostajia
indartu omen zera utzirik ajia;
azitzen jarraitzeko badu korajia,
txit maite duelako bere parajia.

13

Gernikako arbola ez al da ezagun?
Emengo pekatua aitortu dezagun.
Jendia or jardun da jo ta ke gau ta egun,
ta orain zuretzako piñu beltza lagun.

14

Ez bazaizu gerrira sartzen beintzat arrik,
zure ostaje ori ez degu alperrik.
Zugandik elduko da ezkurtxo ederrik,
piñu beltzak ez dezan ja ja egin parrik.

15

Piñu beltz ori degu berez kanpotarra,
losintxeroa eta laguntzaille txarra.
Aritzaren lurrean egin nai du parra,
sortu zan tokian jo dezala adarra.

16

Gernikako arbola, zu zera aritza,
euskaldunaren alde benetan zabilta.
Mundu guztiak daki gure zorigaitza,
guk nai gendukena da zure nagusitza.

Penitentzia

1

Iñork entzun nai badu nik joko det kuxkux,
eskubiz ezin badet ezkerreko eskuz:
ez nuke nai jartzerik ainbat milla eskus,
uraxen bai tristea litzakela, Jesus.

2

Goseak egoteko agintzen didate,
ogei bat kilo beintzat ezkutatu arte.
Ni oso argaldurik ikusi nai naute,
eskean asiko naiz laister atez ate.

3

Goseak dagoena nola egon ixilik?
Urdai-azpikoak bai Kastillan zintzilik.
Aietako bat iñork eskeiñiko balit,
igaroko nituzke amar aste polit.

4

Goseak ibiltzeak mintzatu azten nau,
pentsatu ez dedala gauz atsegiña au.
Gazura beste gabe bost egunetik lau,
nik nola egingo det onenbeste barau?

5

Goseak egoteak ematen dit miña,
len ere sarri naiz ni barauak egiña.
Badakit ez dala au penitentzi piña,
nere urdaillak dauka asetzeko griña.

6

Ez banaute ipintzen lotuta katean,
okerrago ez banaiz aurtengo urtean,
naikoa jan bear det alako batean,
etxean ez bada ere norabait joatean.

7

Entzun arren belarriz aolku bikaiñik,
ni etxera joan nintzan sinistu eziñik.
Iñork ipintzen badit urdai gorri piñik,
etzait gogoratuko ankan dagon miñik.

8

Sendagilleangana egiñik bixita,
adierazi zidan ondo ikusita:
“Zuk egin dezuna da rejimen gutxi ta,
kardoak jan itzazu urdaia utzita”.

9

Sendagille jaunaren esanetara ni
makurtu egin bear, ta zenbat armoni!
Nere buru guztia biurturik burni,
ezjakiñak baditu amar milla mani.

10

Nere lagun Zukunza, tentatzen nazu maiz,
ta erantzungo dizut jartzen didazun gaiz.
Zure emazte ori ezagutua naiz,
zu ola ezin bizi joan baziña apaiz.

11

Ondo ez bada ere nik erakustea,
ez da besterik lengo letrak ikustea.
Oraindik sasoikoa ta naiko gaztea,
ederra ta goapa da zure emaztea.

12

Goseak dagoanak zer daukan gogoan
oroituko zerate geroxeagoan.
Jango luken zertxobait nai luke aoan,
errukitsuagana obeko det joan.

13

Ez da errez ipintzen emen kontu danak,
ulertuko al ditu konturatzen danak,
nik mundu triste ontan pasa ditudanak,
egin nindutelako aitak eta amak.

14

Eskean ibiltzea ain da nabarmena,
ala ez bear baiña lotsatzen nauena:
goseak egotiak ematen dit pena,
Jaunari egiten diot nere aitormena.

Ezbearrak

1

Askok diote mundu au dala
berezko naturaleza,
ezbearrari iges egiten
emen ez dago erreza,
aserretzean itxasoa ta
odeietako ur geza;
beste sustrairik ez ote dagon
erreparoa jar beza,
oker daukate jakintsu otzak
Jesus sinistu nai eza.

2

Zati galanta paltatu zaio
Euskal Erriko uztari,
nork etekiña kenduko dio
ezereztu dan puskari?
Kalte aundiak izango dira,
berriro eldu ez bedi;
Jaungoikoari egin zaiogun
al degun ainbat eskari,
pixka-pixka bat konpondu ditzan
Kantabria ta Euskadi.

3

Zigor gogorak jipoitu gaitu
Santander, Bizkai ta emen,
ondo pentsatzen jarri ezkeru
gu zeñen aulak geraden!
Guk ez dakigu ezbear oiek
zergatik sortzen diraden,
len eziñean zebillen asko
betiko utzirik erren,
nik ondo nola adierazi
zenbat naigabe dakarren?

4

Mundu onetan guretzat dira
atsekabe eta penak.
Euskal Errian geiegi noski
oiek sufritzen daudenak.
Gertatu diran kalte gogorak
ezin kabitu barrenak,
eta burura eldu ere bai
litezken asmo txarrenak,
nik bezin ondo esango luke
berak proatu duenak.

5

Ugoldeak nik gogoan ditut
emen izanak len ere,
berrogeitamar urte joan dira
au zanetikan dotore.
Garagarrilla amabostetik
amaseira zegon jabe,
Korpus-gaba zan ta jardun zuan
deus aterrunerik gabe,
Ernanitikan Donosti arte
asko oroitzen dirade.

6

Gero galanta gertatu zana
andikan ogei urtera,
Oria ibaia gaiñezka eta
berdin Urola partera.
Zestuan ere Guipuzcoana
ezin putzutik atera,
orduko markak txautu dizkigu,
ausartzen naiz esatera,
Bizkaian beintzat jende geiago
irentsia du urpera.

Jose Maria Arrietari

(Doiñua: "Nagusi jauna, auxen da lana...")

1

Arrietaren lau bertso polit
oiek irakurtzeak poz eman dit.
Orrek goraldtu nai du Basarri,
pentsatu izan det nik ere sarri:
maisu da bera
ta gu beraren ikasle gera;
sasoi daukanak jarrai aurrera.

2

Au zure lana azaldu dana,
modu txit politean egiña dana.
Nai duen guztiak bertan ikusi,
nork esan daudela gauzak itxusi,
baizik apaindu,
itz neurketa dotore zaindu,
pentsamoldea erreza ain du.

3

Arrieta, zuk darabilkizun
politika ori ez dago lizun.
Bide txarrean etzera eldu,
aurrera ere berari eldu,
ziñetan eutsi;
alde egiten errez ez utzi,
gauz onak ez du balio gutxi.

4

Nereak arrunt egin du eta
sasoi bete-betean zu, Arrieta.
Orain berrogei urte ni ere nitzan
aberasterik ez nuan izan,
gaur nago pobre,
mundu ontako ontasun gabe,
animarentzat bera det obe.

Zinkoeneko Iñaxiori

1

Zinkoeneko Iñaxiori
nago itzegin biarra,
bertako seme ez izan arren
berez da ernaniarra.
Sal-erosketan balio du ta
atera dio giarra,
mats gozuaren mama salduaz
artua dauka indarra.

2

Aspalditxotik ezagutzen det
nik Inaxio Setien,
lengo batian bere lagunei
gauza bat entzuten nien:
“Guk bere ondra jarri nai degu
apalian txukun goien,
gure sendiko bat izan ezik
ori maite degu geien”.

3

Tratante ere ibili ziñan,
ez dezu etxerik galdu,
joan da Kastillan beiak erosi,
ekarri ta emen saldu.
Mesede onak iñori egin,
bera aurrera azaldu,
ondo portatzen dan gizon batek
zerbait merezi ez al du?

4

Gerrarik gabe bizi biagu
guk elkarrekin pakian,
animarentzat ere gauz ori
ez da izango kaltian.
Pazientzia nik sendo daukat,
zu diruz bete-betian,
lagun urkoa anpara zagon
munduan geran artian.

5

Gorrotorikan ez dauka iñork
nigatik eta zugatik,
ziurtantzia jarriko dizut,
kenduko zaitut dudatik.
Baserritarrak diotena da:
“Zenbatean orregatik?
Makiña bat bei ekarria dek
ori Torrelavega-tik”.

6

Len bei ekartzen saiatu ziñan
ta orain berriz ardua,
zure etxian makiña bati
ikusten diot garbua.
Esaten dute: ‘Zinkoenean
dagoen gizon mordua!’.
Zu lasai-lasai bizi zaitia,
oraintxe dezu ordua.

7

Al badet ez det neretzako nai
komeni ez dan lanikan,
nere iritziz ez derizkiot
au gaizki dagoanikan.
Berriz ara nik azaldu gabe
ez det izango onikan,
an edo emen billatzen badet
ni eramango naunikan.

Garizumako burutazioak

1

Adan da Eba aien lenengo sorrera
ta, esaten dutenez, ez leku txarrera.
Deabrua azaldu muturrez aurrera,
orduak jetxia da gizona lurrera.

2

Gizonaren sorrera zan Paraisuan,
an ondo bizitzea Jaunak naiko zuan.
Baiña suge gaiztoa zeukatzen auzuan,
ark itzegin zioten gorroto osuan.

3

Deabruarengatik leku ona galdu,
Jaungoikoak gizona lurrera bialdu.
Zeru-usaia kendu, betiko argaldu,
gaurko zientzi askok nere ustez au du.

4

Jaungoikoak sorturik Eba eta Adan,
au zeñek daki ondo zenbat denbora dan.
Nik pentsatzen dedana auxe da neregan:
emen iñork ez baiña jakingo dute an.

5

Urte batek aldegin, bestea etorri,
milloiak badirala entzuten det sarri.
Gutxienez erdia gezurra bai jarri,
ziurtasunik iñoiz ez det irakurri.

6

Umerik umeenak, sasoiko eta zar,
iñork ez du ukatzen geranik mundutar.
Jainkoak lurrarekin egin gindun belar,
lurrarekin sortu ta lur biurtu bear.

7

Testamentu Zarreko millaka urtiak,
uralde bildurgarri eta legortiak;
ondo itxita zeuden zeruko atiak,
neurri gabeak ziran zetozen kaltiak.

8

Testamentu Berrira bear zan aldatu,
askok etzekiten nun gauz ori galdetu
Jaungoikoa beartsu ortara moldatu,
gizon aundizki asko ziran asaldatu.

9

Jesusen etorrera izan zan ixilla,
ogei ta lau edo bost, abenduko illa.
Erodes ibili zan aurtxo orren billa,
bi urtetik berako asko zuan illa.

10

Askok ezin sinistu izan arren sarri
Espiritu Santuak egin zion argi.
Ama Mariagandik Mesias etorri,
berriro utzi zuan len zan bezin garbi.

11

Ama Maria eta aitatzat San Jose,
Jesusen gurasoak ziran orrelaxe.
Jauna gure animaz gertatzen zan gose,
Semea ill artean ezin baizan ase.

12

Dotriña apurtxo bat sinisten degunak
maite ditugu Aste Santuko egunak;
aurten ere ez dira izango legunak,
arro samar dabiltza Kaipas da lagunak.

13

Judasek saldu zuan Jaun altsua errez,
alakoa zalako diruzale berez.
Bi gizon gaizto ziran Kaipas ta Erodes,
Jesusen alde oso Pilatos ere ez.

14

Gizona zer belar dan jakiñik munduan,
ezin erabakirik ez daukat buruan.
Judutarrak Mesias il zuten moduan,
gaur ere etsai paltik ez dauka onduan.

15

Nork bete nai du ondo gaur eginkizunik?
Gaitz erdi ez balego izketa lizunik.
Mundutarren artean ez dago gauz onik,
Jauna, zuk nai dezuna eskatzen dizut nik.

16

Guk dakigun apurra aipatzera guazen:
geroztik zenbat urte triste dijoazen.
Deabruen eskolan kontzientziz gizen,
Jainkoari utzi ta beragana zuzen.

Santio eguna

1

Lengoan gertatua nua esatera,
askok pentsatuko du: "Egia ote da?".
Lenbizi obeko det kontuak atera,
gero irten ditezen zuzen bat-batera.

2

Lengoan dama batek eman zidan musu,
berak ez du kulparik, bestek emanda su.
Ezpain politak eta legunak dauzkazu,
eskerrik asko ola maitatzen banazu.

3

Dama ori ez dago zarra ta baldana,
baiña inguratu zan aitonarengana.
Nik pentsatu nuana: "Ai, auxen da lana!".
Ni mugitu baiño len ark musu emana.

4

Oraindik gaztia da, dago marrobia,
oso-osorik dauka bere arrobia.
Poza eman zidan, bai, gero errabia,
aulkiaren gaiñetik jausi nintzan ia.

5

Urte geiegi dauzkat nere bizkarrian,
ta asko ohea ez reuma iztarrian.
Antxe gelditu nintzan guztien aurrian,
damak musu eman da erdi negarrian.

6

Konpesatu nuan da ez dala pekatu,
praileak erantzuna nai nuke kontatu:
“Aitona zartu bati gauz ori gertatu?
Errurik ez dezu ta nun da zer barkatu?”

Bilintx

1

Ezin esan nezake nik askoz geiago,
ortan nabarmendua nere ustez nago;
oraindik gaztea ta gaiean banego,
biurtuko nitzake maitasunerago.

2

Loreak botea zan amaika neskatxi,
lan ortan etzuan ark egin oso gutxi;
eskeiñi genezazke eskerrak Bintxi,
orra ura il zala eun urte iritxi.

3

Bilintx zoriontsua al zan mundu ontan,
ezbear zital batek ala iltzekotan?
Neskatxak erabiltzen zituan aotan,
itz goxo zoragarritz maitasun berotan.

4

Naiz bera egon arren barrendik egarri,
Bilintx zan Donostian maitasun-iturri;
joaten bagera ere danok erriz erri,
nola emango degu gizon aren berri?

5

Besterena joan gabe maitatutzen det nik
artu nuan ezkeru, ta ez daukat penik.
Esaten banazute iñor joaten danik
andrea nola maita alako gizonik?

6

Pentsatu izan det nik neronek askotan:
"Errurik bai ote det nik agindu ontan?".
Etzait amoriorik deskuidatzen lotan,
zertarako andrea ez maitatzekotan?

7

Ordu askotan beintzat nik ez daukat betik,
ezin jarri nezake ortan etiketik:
egun danak berdiñak ez izanagatik,
andreagana ez det amorio-paltik.

8

Aren maitasunari jarrita begira,
neri ere biotzak eman ziran jira:
ta loreak artu ta neskatxeiri tira,
amoriozko usaiz kutsatuak dira.

9

Asi nintzanerako neskatxen atzetik,
nik eramaten nuan poza bat etxetik;
ta esaten niona lenengo itzetik:
"Nai zinduzket neretzat biotz-biotzetik"

10

Askok ez baininduten aintzakotzat artzen,
gauz ori ikusita nik biotza lertzen:
ez ditut pena oiek txantxetan agertzen
nere amoriorik etzuten ulertzen.

11

Ni penak igarotzen nago ikasita,
benetako baimenik ezin iritxita;
itxaropenarekin galdezka asita,
utzi izan ninduten betiko etsita.

Amodioa

1

Amorez zoraturik nago batengana,
iñon ezin aurkitu nik daukadan lana:
zoritxar petral ori sortu neregana,
ai baneki galdezka asi zeinengana!

2

Amorez zoraturik nago batengana,
neskatx dotorea da, izena du Ana;
nik baneki nola joan , . . . beragana, (1)
bestek egin nai liket bitartekoz lana.

3

Egokituko al zait bitarteko onik,
nik maite dedanaren lagun ezagunik;
disimuluan gauza eramango naunik,
atsekabe galantak igaro bear nik.

4

Nere biotzak dauzka naigabe gogorrak,
utsa baldin baleuzka len eginda zorrak;
supritu azten dio maitasun jatorrak,
ori badaki ondo Jaungoiko illezkerroak.

5

Ai jarria banego beingoz ezkondata,
bestela ezin bada Jaunak lagunduta!
Neretzako lirake poza ta konduta,
orain arte txandarik ez det izandu ta.

6

Gaur askok maitasuna dabilki danbolin,
lepoko txintzarria joaz tilin tilin.
Donostiarren pama lendik buru arin,
oraindik kutsu danak ez dute aldegin.

7

Goibeldutzen ninduten oso etsipenak,
baiña etziran joaten amorio danak;
kanpora atera ta barrenen zeudenak
berezten zizkidaten neskatz ederrenak.

8

Nai ta eziñak bere istilluak ditu,
etzitzaidan nai bezin azkar egokitu;
nunbait ala bear da norbait errukitu,
azkenean mutil zar ez nitzan gelditu.

(1) Itz guziak ezin ulertu Segundoren idazkian.

Il bearra

1

Egunaren minutu geienak oiean,
miña bialdu edo sendatu naiean;
astean triste eta pozik ez jaiean,
ementxe bizi gera iltzeko gaiean.

2

Il bearako degula danok badakigu,
bera daukagulako aurrean testigu;
begiratu ederra egiten ez digu,
orretxek jartzen gaitu miñez ta gaizki gu.

3

Il bearrak askori sortzen dio pena,
nik garbi egingo det nere aitormena,
ikusten dedalako gauza nabarmena,
ez beste iñorena: Jaungoikoarena.

4

Il bear ori ez da izango alaia,
ia guztientzako aurkako etsaia:
iñoiz uste ez dala eltzen da garaia,
naiz berak ez eduki iltzearen naia.

5

Pekaturik gabeko bat iltzen danean,
uraxe bai zerura pozik zuzenean;
baiña gu errudunak gera geienean,
orreatatik bildurra dago azkenean.

Banaka eta binaka

BANA eta bina ere azaldu dira bertsoen batzuk Segundo Kalonjeren esku-idazkietan. Saillen bat jartzen asi eta berealaxe aria eten edo ez dakigu zer izango dan. Ale oiek ata1 ontan eskeintzen ditugu, illunpean gelditzerik merezi etzutelakoan.

1

On aundirikan egingo al du
dabillen aize gaizkorrak?
Gure basoan ikusten dira
pozoi gaiztoko aizkorak;
besterenetik jan nai dutenak
malezioso pizkorrak,
erle tartera sartu zaizkigu
kaltegarritzko listorrak.

2

Jateko aiña irabaziaz
an eta emen lanian,
urtez aurrera banua eta
iraungo al det lenian.
Mundu ontatik joan bear ori
laister etortzen danian,
ostatu txiki-txiki bat nai det
zeruan toki onian.

* * *

3

Nere buruko korapilloak
modu ontantxe dira ba;
entzun, Manuel, etzera gizon
zitala eta billaba.

Auxe aztertzen igaro ditut
iru egun da bi gaba,
dan bezelaxe aitortu gabe
nik ez nizuke nai laga,
Euskal Erriak ezaugarri du
Lasarte Arribillaga.

* * *

4

Martzelino Gipuzkoan dabil boto billa,
ez izan balitz jatorriz lotsati sotilla.
Orrek indartu nai du lagun Martin Villa;
konparazio batera nik banitu milla,
bat ez nioke emango, or konpon dedilla!

* * *

5

Bista bajatzen ari zait baiña
oraindik irudipena,
lengo almenak joan zaizkit eta
orrek ematen dit pena.
Ametsik ere ez egitea
noski neretzat onena,
pekatu danak utzi beaitut,
jaunak, al dedan lenena.

* * *

6

Xabier, gaur al dezu urte betetzia?
Aita egokitu da zutzaz oroitzia;
gaur ez dala ausartu zu esnaratzia,
gauz au nai lukeala zuri kantatzia.

* * *

7

Utsegiteko bildurrez beti,
ez nabil egokieraz,
ezjakintasun tamalgarria
aitortu nezake beraz.
Au da polita euskaldun soilla
gaur urri dago izkeraz,
ez dakitenak ikas dezaten
mintzatuko naiz euskeraz.

* * *

8

Ataundar bati emen deitzen die Ontza,
amaren bularrian utzia du lotsa.
Patar zalea dala entzun det nik otsa,
neri sartu nairikan ziri bat zorrotza.

* * *

9

Atsedean aundi gabe daukagu nekia,
an edo emen bada sarri atakia.
Deabruak jartzen du sua eta kia,
ez al genduke obe Jaunaren pakia?

* * *

10

Ez digute utzi nai iñola paketan,
azken urtiak doi-doi sutan eta ketan;
gure odola laister or da erreketan,
orra nere iritziz zer pentsatzen detan.

* * *

11

Amorioz zoratzen neskatz batengana,
baiña aintzat ez artzen, au auxen da lana!
Nere biotzak daukan ezin eramana,
piatzen ez dalako ori neregana.

* * *

12

Beste zertxobait ere bear diot tira,
lotsarik eman gabe deusik arpegira;
goizean jaiki eta gogotsu mendira,
udaberrian beintzat pozik joaten dira.

13

Agintzen duten oiek gordetik aza-aza,
guretzako asmatzen ez da erraza.
Gaurko gazte askoren bizitza eskasa,
entzun, nere arreba maite Nikolasa:
guk paseak pasa,
au ez da jolasa,
stutzen arnasa,
noiz atera baza?
Kontzientzia askok al dauka lasa?

14

Zeiñen serio egiten duan
berak nai duan guzia,
ondo ausnartzen ez bada ere
ori dago ikusia.
Nork jarritako gauzak dauzkagu
arnasa eta bizia?
Aitormen asko ez dago baiño
bada nunbait Nagusia.

Itzaurrea

Ataria	7
Segundo Kalonje Ezeiza (1910-1986)	9
Oriamendiko Joxe Martiñen bertso batzuk.	18
Oriamendiko Lino Kalonjeren bertso batzuk. .	23
Karlisten gerrateko oroipenak	26
Aitajauna eta abar.	31
Gerra-denborako bertsoak.	33
Egunkari eta aldizkarietako bertsoak.	47
Bilintx zanari.	49
Illargirako asmoan.	53
Xenpelar zanari	56
Urtaintentzat iritzi batzuk.	60
Baserriko kontuak.	62
Deabruaren beldurrez	65
Alkarrizketa.	70
Udazkena.	74
Donostiari	77
Idi-tratua.	81
Aurtengo Xenpelar sariketari	83
Moda ta lujoak.	85

Kukuaren otsa.	88
Patronato San Miguel.	92
Ondartzara joan nintzan	94
Goialdea laiño	97
Zar geienak pipiak jota.	99
Kinto-billerak.	103
Baserriko auldadea	105
Emazte gaixoari.	109
Bertso berriak	112
Begira nola gabiltzan	115
Mendaro Txirrixtakari.	120
Pedro Mariren omenez	123
Neguan uda.	126
Manuel Olaizolari.	128
Goierrirrak txalotuz	132
Indotxinako gerra.	135
Pelotariak.	138
Pelotaren izaera.	143
Luziano Ormaetxeari	147
Nere lagun bati aipamenak.	150
Mundutarrok biurri	153
Baserria ta baserritar zarrak	156
Gazte baten aginduz.	158
Aingeru eder bat	160
Nik bai nai.	162
Maiteko nukenari.	165
Bilintxen arrazoiak.	168
Xalbador il zan.	171
Udara negu biurtu.	173
Perurenari	176
Negua oraindik.	178

Zartzaroaren soiñekoa	180
San Antonio egunez.	183
Aralar	185
Gizona munduan.	189
Aur-kontu	192
Manuel Lasarteri	195
Donostiko menditxo bati	197
Bertso-txapelketari.	201
Bertsojartzaille gazteari	203
Gaixotegian	205
Arrosari.	207
Bakoitzak bere gaitzak.	209
Eskerrik asko, jaunak!.	212
Barkatu, jaluna!	214
Beti zerbaiten palta	217
Aita Agirretxeri jarraituz.	219
Ondartzako erakusketak	221
Udaberria eldu da	223
Inbiri madarikatua.	225
Bertso berriak	227
Ordaiñetan.	229
Iparragirre oroitzuz	231
Aita Santuaren agerpena	233
Eiztariak	235
Otsailla	237
Dirua ta deabrukeriak	239
Emaztea ta senarra	241
Au da primabera!.	243
Garagarrillak bederatzi.	245
Gaur aiña eskale	247

Pake prestutik urruti	250
Xenpelar zana.	253
Aita baten naigabea	256
Estropadak dirala ta.	258
Oillagorraren etorrera	260

Esku-idazkietako bertsoak.	263
Kukuari	265
Xenpelarren etxean.	267
Ogi egillea.	270
Ez dakit zer esan.	272
Tolosara joanda.	273
Urte berria iritxi zaigu.	275
Mendi tarteko txoko bat	278
Gemikako zugaitza.	280
Penitentzia	283
Ezbearrak.	286
Jose Maria Arrietari	289
Zinkoeneko Iñaxiori	291
Garizumako burutazioak.	293
Santio eguna.	296
Bilintx.	298
Amodioa	300
Il bearra	302
Banaka eta binaka	303